eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskara eta beste hizkuntzak euskal gizartean eta eskolan

Urtza Garay Ruiz, Aintzane Etxebarria Lejarreta eta Céline Mounole Hiriart-Urruty

EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA

ISBN/ISSN: 978-84-9082-245-6

Liburu honek UPV/EHUko Euskararen Arloko Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

AURKIBIDEA

SARRERA 3

1. EUSKARAREN GARAPENA ETA GAUR EGUNGO EGOERA 6

1.1. EUSKARAREN HEDADURA HISTORIKOA 6
1.2. EUSKARAREN EGOERA GAUR EGUNGO GIZARTEAN 8
1.3. EUSKARAREN EGOERA HEZKUNTZAN 21
1.4. JARDUERA DIDAKTIKOA: "GURE HERRIKO HIZKUNTZAREN GARAPENA: PECHA-KUCHA" 32

2- HIZKUNTZA GUTXITUEN ESKUBIDEAK ETA ERRONKAK GLOBALIZAZIOAREN AURREAN 36

2.1. HIZKUNTZEN EGOERA MUNDUAN 36
2.2. OFIZIALTASUNA ETA HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK 40
2.3. HIZKUNTZA-AURREIRITZIAK 46
2.4. ERRONKAK 49
2.5. EUSKARA INTERNETEN 55
2.6. HIZKUNTZA GUTXITUAK ESKOLAN: ELEBITASUNARI BURUZKO ESPERIENTZIAK 58
2.7. JARDUERA DIDAKTIKOA: "ESKOLARAKO HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKALOGOA" 66

3. EUSKAL HERRIKO BESTE HIZKUNTZAK ETA KULTURAK 68

3.1. EUSKAL HERRI ELEANIZTUNA: ETORKINEN HIZKUNTZAK GURE GIZARTEAN 68
3.2. HEZKUNTZA ELEANIZTUNA: KONTZEPTUAK ARGITZEN 76
3.3. HIZKUNTZA ETORKINEN TRATAMENDU DIDAKTIKOA EUSKAL ESKOLAN 81
3.4. JARDUERA DIDAKTIKOA: "EUSKARA ETA BESTE HIZKUNTZEN ARTEKO HARREMANETARAKO ETA ELKARBIZITZARAKO HIZKUNTZA-PLANA" 84

4. HIZKUNTZAK ETA NORTASUNAREN GARAPENA: EUSKAL IDENTITATEA 87

4.1. HIZKUNTZAK ETA IDENTITATEA 87
4.2. EUSKALKIAK GIZARTEAN ETA ESKOLAN 92
4.3. EUSKAL NORTASUNARI BURUZKO GOGOETA ESKOLAN 95
4.4. JARDUERA DIDAKTIKOA: "EUSKALKIAK, AURREIRITZIAK ETA HIZKUNTZA-NORTASUNA GAUR EGUNGO HIZTUNENGAN" 96

5. BIBLIOGRAFIA 100

Sarrera

Gaur egungo gizartearen ezaugarririk nabarienetakoa hizkuntza-aniztasuna da. Itziar Idiazabal adituak dioenari jarraituz, eleaniztasuna gizartearen berezko ezaugarri arrunt bat da. Erkidegoak, estatuak eta gizarteak, oro har, ez dira inoiz elebakarrak izan, ezta izango ere; UNESCOk era zehatzean azaltzen du fenomeno hori (Manterola eta Berasategi, 2011: 7).

> Como la diversidad lingüística es la sociedad humana lo que la diversidad biológica a la naturaleza, constituye un factor de enriquecimiento mutuo, de acercamiento y de diálogo intercultural. El plurilingüismo no es solo la presencia de varios idiomas que coexisten y no se manifiesta ni por una pérdida ni por la ganancia individual o colectiva, sino que adopta la forma de una situación en curso de transformación cualitativamente nueva. En ese contexto, las personas monolingües no pueden participar ni comunicar en todos los planos de la sociedad. El plurilingüismo es la norma, no la excepción. (UNESCO, 2011)

Euskal Herria osatzen duen gizartea ere fenomeno horretan murgilduta dago. Ildo horretan, hamaika soinu ezberdin entzuten dira gure karriketan; ehunka hizkuntza ofizialekin bizi dira. Baina herrialde txiki honek badu altxor berezi bat ere, euskara, eta handik eratortzen den euskal identitatea. Hortaz, hizkuntza gutxitu batek ofizialtasuna partekatzen du munduan eragin handienetakoa duten zazpi hizkuntzetako batekin —gaztelaniarekin, hain zuzen ere—, eta beste ehunka hizkuntza etorkinekin ere bizi behar du. Horrek egoera berezia sortzen du: alegia, errealitate aberatsa, bizia eta emankorra izan arren, aniztasunak ez du, askotan, bere kabuz arrakastarik izaten gizartean. Horregatik da beharrezkoa lege eta erakunde publikoek erabaki egokiak hartzea eta bitartekoak ondo kudeatzea (Manterola eta Berasategi, 2011: 8); lan honetan, berebiziko garrantzia hartzen du horrek guztiak. Eskolaren ardura da, besteak beste, euskal biztanleei irakastea bai eleaniztasuna bai euskara errespetatzen, eta, gainera, hizkuntza gutxituari arnasbideak eman behar dizkio. Aldi berean, beste hizkuntzak errespetuz tratatzen ere irakatsi behar du: hau da, eskolaren helburua izan beharko litzateke geurea dena ulertzea, ikastea eta maitatzea; baina begiak mundura ere zabaldu behar dira, geurea besteei aurkezteko eta besteena gureganatzeko. Hots, gaur egungo

haurretan, euskal identitatea garatu behar da, eta, era berean, munduko beste herrialdeetatik geurera etorri diren guztien hizkuntzen eta kulturen errespetua bermatu. Laburbilduz, elkartasunean oinarritzen den gizarte bat eraikitzeko, etorkizuneko gizon-emakume integralak egin behar ditu eskolak.

Horregatik, hezkuntzan arituko diren profesionalen trebakuntzari begira, aurreko lerrootan aipatutako errealitatea aztertuko dugu lan honetan, eta irakaslegaiak prestatzeko baliagarria izan daitekeen materiala sortzea dugu xede nagusia. Horretarako, lau kapitulu izango ditu lanak. Lerro hauetan dituzu kapituluz kapitulu ikasmaterialean topatuko duzunaren xehetasun nagusiak:

Lehenengo kapituluan, euskararen garapena eta hizkuntza horrek EAEn, Nafarroan eta Iparraldean duen egoera aztertuko dugu; horretarako, euskararen bilakaera historikoa aztertu ondoren, gaur egungo egoera politikoa eta soziala (erabilera-maila) aurkeztuko dugu, eta, bukatzeko, xehetasun batzuk emango ditugu euskarak hezkuntzan duen egoeraz. Era horretan, “Nondik dator euskara?” galderari eman dakizkiokeen erantzun posibleak aipatuko ditugu, kontuan izanik aspaldi sortu eta garatu diren hipotesiek ez dutela oraindik erantzun argirik jaso. Hala ere, zenbait hizkuntzalari eta antropologoren (esaterako, Pablo Astarloa, Gómez Moreno, Antonio Tovar) lanetan oinarrituta, euskararen jatorria, bilakaera historikoa eta ahaidetasunak landuko ditugu.

Bigarrenean, gogoeta sakona egingo dugu gaur egun euskarak duen presentziaren eta herrialde bakoitzean dituen eskubide politiko eta sozialen gainean, eta, amaieran, euskarak hezkuntzan izan duen bilakaera aztertuko dugu. Horretarako, kontuan izango dugu euskara hizkuntza gutxitua dela, eta hizkuntza gutxituek —haien artean, euskarak— dituzten eskubideak eta erronkak aztertuko ditugu kapituluan zehar, bizi dugun globalizazio-egoerari begira. Kapitulu horretako gogoeta-ildoa gai hauek bideratuko dute: hizkuntzen egoera munduan; hizkuntza gutxituen bizi-iraupena, ofizialtasuna eta hizkuntza-eskubideak; hizkuntza-aurreiritziak; hizkuntzak eta Internet; eta hizkuntzen etorkizuna. Horretarako, *Universal Declaration on Linguistic Rights*, *Minority Language Protection in Europe: into a new Decade*, *Carta Europea de lenguas regionales y minoritarias* eta beste zenbait dokumentu ofizial nahiz lan aipatuko dira.

Hirugarren atalean, berriz, gaur egungo Euskal Herria osatzen duten beste hizkuntzez eta kulturez arituko gara, eta, estereotipoen gainetik, eleaniztasunari eta kultura-aniztasunari buruzko gogoeta sakona egingo dugu. Horretarako, Euskal Herrira

etorritako etorkinen egoera soziokulturala eta soziolinguistikoa aztertuko dugu, baita hizkuntza etorkinen tratamenduak eskolan zer ezaugarri izan behar dituen ere. Horretarako, beste herrialde eta erkidego autonomo batzuetako esperientzia positiboak eta negatiboak aztertzeaz gainera, zenbait aditu eta ikerketa-talderen (Grupo CRIT, Colectivo Yedra, Grup de Recerca en Ensenyament i Interacció Plurilingües) lanak errebisatuko ditugu.

Azken kapitulua izango den laugarrenean, euskal identitatearen gainean arituko gara. Gure ustez, gairik zailenetakoa da, berez dituen ezaugarri pertsonal, psikologiko zein politikoengatik. Horregatik, ahalik eta era zientifikoenean helduko diogu gaiari, eta, irakaslegaiek kontzeptu horiek eskolan lantzeko bideak azalduko ditugu, hau da, hizkuntzen eta identitateen arteko lotura, eta euskararen esentzia diren euskalkiak gizartean eta eskolan.

Arestian aipatu den bezala, kapitulu bakoitzaren bukaeran, ikasleekin eskolan lantzeko jarduera bat proposatuko dugu. Proiektuetan oinarrituta, ikaskuntzak zehazten dituen ezaugarriak errespetatuz diseinatuko ditugu jarduera horiek, bide hori baita, gure esperientziaren arabera, ikasleen gaitasunak garatzeko modurik egokienetako bat. Ondorioz, proiektu eran diseinatuko ditugu zenbait jarduera, eta gai bakoitzari lotutako produktu bat sortu beharko dute ikasleek, taldean zein bakarka, horixe izango baita proiektuaren azken helburua.

1. Euskararen garapena eta gaur egungo egoera

1.1. Euskararen hedadura historikoa

Hainbatetan esan izan da euskara hizkuntza indoeuroparrak baino lehenagokoa dela, eta beste hainbat hizkuntzaren hedapenari edota nagusitasunari aurre egin izan diola mendeetan zehar. Biziraupen horrek —alegia, aurreindoeuropar hizkuntza izateak— ematen dio gaur egun duen balioa; era berean, miresmen horrek ekarri du beste hamaika hizkuntzarekin ahaidetasuna zehazteko teorien beharrizana eta agerpena: besteak beste, iberierarekin edota kaukasiar hizkuntzekin lotu izan ohi dute, zenbait autorek bere lanetan adierazi duten bezala. Besteak beste, Nuñezek, 2003an:

> Hemos dicho que las lenguas indoeuropeas aniquilaron en su invasión a las lenguas precedentes, pero eso se produjo con tres excepciones, dos en el borde de Europa y otra en su interior: las lenguas caucásicas (entre los mares Negro y Caspio, en la frontera de Europa y Asia) en la expansión hacia el sureste, la lengua finesa en la expansión hacia el norte y la lengua vasca en la expansión hacia el oeste. Esta última es, pues, la única prerromana que sobrevivió al latín en la zona de la invasión romana, un par de milenios más tarde, constituyendo así un fósil lingüístico de incalculable valor. (…) El verdadero valor mundial del euskera no es su exotismo ni ninguna otra característica más que el hecho de ser la única lengua preindoeuropea del interior de Europa. Esto no significa que sea más antigua que el indoeuropeo o que otra lengua alguna —ya hemos dicho que todas son en cierto modo igual de antiguas— sino que es más antigua aquí en Europa. Y ese hecho ha sido el que ha convertido el euskera en el comodín de la baraja lingüística, en la piedra de toque que tendría que servir para comprobar algunas hipótesis históricas así como cualquier parentesco, desde los más sensatos hasta los más disparatados. (Nuñez, 2003: 28)

Euskararen inguruko lehen datu fidagarriak K.a. 5000. urtearen ingurukoak dira (http://www.badubada.com/eu/erakusketa/biziraupena.php), eta euskara egun baino hedatuago zegoen. Euskarak oraingoa baino hedapen geografiko zabalagoa zuen antzina; iparraldetik Garoñaraino, ekialdetik Andorraraino, hegoaldetik Zaragozaraino eta hego-ekialdetik Burgoseraino iristen zen (http://www.argia.eus/multimedia/erreportajeak/euskararen-misterioa):

1. irudia. Euskararen hedadura (http://www.argia.eus/multimedia/erreportajeak/euskararen-misterioa)

Bestalde, euskararen aztarnak aurkitu ziren Akitanian, eta, egun, ontzat ematen da akitanieraren eta euskararen arteko lotura. Zesarrek euskaldunen arbasotzat hartzen ditu Akitaniako biztanleak (Arejita eta lank., 2007)

> Galia osoa hiru partetan banatua dago: euretariko batean Belgikarrak bizi dira; beste batean Akitaniarrak; eta hirugarrenean, hizkuntza zeltaz mintzo direnak, guk Galiarrak deritzegunak. Hirurok dituzte diferenteak hizkuntza, erakundeak eta legeak. Galiarrak Akitaniarretatik Garona ibaiak banatzen ditu, eta Belgikarretatik Matrona eta Sekuana ibaiek bereizirik daude (Arejita eta lank., 2007:22)

Pirinioen hegoaldean ere, euskaraz hitz egiten zen. Horren adierazgarri dira euskal jatorriko zenbait toki-izen, Aragoi Goienean edota Kataluniaren ipar-mendebaldean (Aran, Andorra). 1349ko Huescako udal ordenantzen ararbera, XIV. mendean, oraindik ere euskara entzuten zen eremu horietan (Arejita eta lank., 2007: 24-25). Horrela, bada, hauxe izan zen euskararen presentzia antzinatean:

2. irudia. Euskararen presentzia (Arejita eta lank., 2007: 25)

Erdi Aroan, euskarak bazuen egun baino hedadura handiagoa oraindik ere: Erdi Aroan, "izioki dugu" eta "guek ajutu ez dugu" aurkitu zen glosetan idatzita, Errioxako Donemiliaga Kukulako monasterioan. XII. mendean, Aymeric Picaud izeneko erromesak euskarazko zenbait hitz idatzi zituen erromesentzako gida batean; besteak beste, "Ur(t)zia (Jainkoa, zerua)", "Andrea Maria (Andre Maria)", "ogi", "ardum (ardao)", "aragi", "arrain", "etxea", "iaona (jauna)", "andrea", "elizera", "gari", "belaterra (bereter, apaiz)". Nafarroan sasoi hartan egin ziren zenbait dokumentutan (testamentu, donazio…) ere, hainbat euskal izen eta hitz agertzen dira (Arejita eta lank., 2007: 40).

1.2. Euskararen egoera gaur egungo gizartean

Ofizialtasuna zertan den

Gaur egun, euskara ez da ofiziala mintzatua den eremu guztietan. Hegoaldean berean, egoera desberdina dugu Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan. 1978ko Espainiako Konstituzioak Espainiako estatuko hizkuntza ofizial gisa finkatu zuen gaztelania, eta erkidego bakoitzaren borondate eta estatutuen esku utzi tokian tokiko hizkuntzen patua:

3. artikulua:

1. El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.
2. Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos.

Hortik, artikulu hori berretsi zuten erkidegoek, lege propioak eginez. EAEn, 1979ko Gernikako Autonomia Estatutuak ofizialtasuna aitortu zion euskarari, gaztelaniarekin batera. Horrez gainera, bi hizkuntzetako hiztunen eskubideak babesteko oinarriak ezarri zituen. Hona, zehatzago, 6. artikuluak dioena:

6. artikulua:

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.
2. Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.
3. Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.
4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale.
5. Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzuetako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroiekin izan ditzaketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala —edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko—, horretara euskara zaindu eta bultza dadin.

1982an, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea onartu zen, Estatutuan jasotako ezagutzaren nondik norakoak finkatzen dituena. Lege horretan, besteak beste:

- Herritarren hizkuntza-eskubideak aitortzen dira (euskara eta gaztelania maila berean jarriz).
- Herri-agintaritzaren eginbeharrekoak arautzen dira (administrazio elebidunaren oinarriak finkatzen dira).
- Euskararen irakaskuntza finkatzen da, eta euskaraz ikasteko eskubidea aitortzen.
- Kazetaritza euskaraz garatzeko eskubidea aitortzen da, eta hura garatzeko konpromisoa hartzen du Jaurlaritzak (EITBren barnean garatuz).

Urte berean, Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzeko Legeak 9. artikuluan xedatu zuen euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak direla, baina euskara Nafarroako gune euskaldunetara mugaturik, haietatik kanpo gaztelania baita ofizial bakarra. 1986an,

Euskararen Legeak (5. artikuluan) hiru eremu linguistikotan zatitu zuen Nafarroa; horrek ondorioak ditu bereziki administrazioarekiko harremanetan eta irakaskuntzan:

- Eremu euskalduna (Nafarroaren iparraldea besarkatzen duen eremua): herritar guztiek eskubidea dute administrazio publikoekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta harrera bi hizkuntza horietan izateko. Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan, euskararen eta gaztelaniaren irakaskuntza derrigorrezkoa da, azken helburua baita ikasle guztiek bi hizkuntzetan gaitasun bera izatea oinarrizko eskolatzearen bukaeran.
- Eremu mistoa (erdialdeko eremua, Iruñea barne): herritar guztiek eskubidea dute euskara nahiz gaztelania erabiltzeko administrazio publikoei zuzentzeko. Hezkuntza-maila ez-unibertsitarioetan, euskararen irakaskuntza hautazkoa da: hala nahi dutenek euskaraz ikas dezakete, eta horretarako euskarazko irakaskuntza-ereduak bermatuko dira.
- Eremu ez-euskalduna (Nafarroaren hegoalde osoa): herritarrek Nafarroako administrazio publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dute baina azken hauek interesatuei gaztelaniarako itzulpena eska diezaiekete. Euskararen irakaskuntza bermatzen da bertan, baina ez euskarazko irakaskuntza.

Ipar Euskal Herrian, euskara ez da ofiziala. Are gehiago, Frantziako 1958ko Konstituzioari 2. artikulua gehitu zitzaion 1992an, zeinak errepublikaren hizkuntza bakar gisa aitortzen duen frantsesa ("La langue de la République est le français"). Bestela erranik, ez ditu onartzen Frantziako 75 jatorrizko hizkuntzak (itsasoaz haraindiko hizkuntzak kontuan hartuz) erabiltzeko eskubide indibidualak eta kolektiboak. Xedapen konstituzional horren ondorio legalak 1994an garatu ziren, Lamassoure-Toubon legearekin. Lege horrek frantsesaren erabilera orokortzen du; hala, irakaskuntzan, lanean, trukatzeetan eta zerbitzu publikoetan, frantsesa da derrigorrean erabili beharreko hizkuntza: "Langue de la République en vertu de la Constitution, la langue française est un élément fondamental de la personnalité et du patrimoine de la France.

Elle est la langue de l'enseignement, du travail, des échanges et des services publics". 2008an, 75-1 artikulua gehitu zitzaion Konstituzioari, eskualdeetako hizkuntzak Frantziaren ondarea direla aitortzeko ("Les langues régionales appartiennent au patrimoine de la France"). Baina artikulu horrek ez du ondoriorik, ez hizkuntza horien

estatutuari, ezta haien hiztunen eskubideei dagokienez ere. Oroitaraz dezagun, gainera, Frantziak berretsi gabe duela oraindik Europako Gutuna.

Geroago ikusiko dugun bezala, eskualdeetako hizkuntzei buruz indarrean dauden lege edo testu juridiko gehienek irakaskuntzarekin dute zerikusia.

Euskararen normalizazioa

Normalizazioa hiztunak eta erabilera-esparruak irabazteko prozesua da, hizkuntzaren egoera "arrunt"era heltzeko bilakabidea.

> Se puede definir la "normalización lingüística" como el proceso social tendente a retener y recuperar para el euskera hablantes y ámbitos de uso, de forma que dicho idioma se atenga o convierta en la lengua habitual en las relaciones internas de la correspondiente comunidad de lengua, tanto en contextos formales como informales, y en interacciones de base oral o escrita. (Zalbide, 1998:365)

Euskararen normalizaziorako egin diren urratsak ez dira hein berekoak lurralde osoan.

Normalizazioa EAEn

EAEn, 1982ko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legean, euskararen normalizaziorako lehen oinarriak ezarri ziren. Administrazioa, hezkuntza eta hedabideak dira euskararen erabilera normalizatzeko xedatzen diren hiru ardatzak.

Seigarren artikuluan eta ondokoetan, administrazioari dagokiona zehazten da. 30 urte geroago, esan daiteke herri-administrazioan egin dela ahaleginik handiena euskararen erabilera bermatzeko. Justizia-administrazioan eta enpresa munduan, berriz, normalizazio-prozesua motela da oraindik.

Hezkuntza da, zalantzarik gabe, hiztunak irabazteko gehien garatu den bidea. Izan ere, 1982ko legeak EAEko eskoletako derrigorrezko hizkuntza bihurtu zuen euskara (15. eta 16. artikuluak), eta helburu gisa ezarri derrigorrezko ikastaldiaren bukaerarako ikasle guztiak elebidunak izatea (17. artikulua).

> **15. artikulua**
>
> Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmaila guztietan. Horretarako, Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak neurri aproposak

hartuko dituzte Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan dadin.

16. artikulua

1. Unibertsitate-hezkuntza hasteraino egiten diren ikasketetan derrigorrezkoa izango da ikasketok hartzeko guraso edo kuradoreak edota, hala denean, ikasleak berak, aukeratu ez duen hizkuntza ofiziala irakastea.

17. artikulua

Bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko ditu; halaber, euskal giroa ziurtatuko du, euskara [ikastetxeetako] barne- nahiz kanpo-jardueretan eta administrazio-ekintza eta -dokumentuetan ohiko tresna bihurtuz.

1990az gero, UPV-EHU unibertsitate publikoan ere euskararen erabilera bermatzeko bideak zabaldu dira (Euskararen I. Normalizaziorako Plangintza 1990an, Euskararen II. Normalizaziorako Plangintza 1999an, Euskararen I. Plan Gidaria 2007an, Euskararen II. Plan Gidaria 2013an). Euskarazko irakaskuntza eskaintzeaz gainera —horretarako, irakaslego euskalduna handituz eta euskarazko ikasmateriala sortuz—, onartutako planek ikasgelaz kanpoko harremanetan euskararen erabilera ziurtatzea dute helburu —administrazio eta zerbitzuetako langileak euskaldunduz—, eta euskarazko ikerketa bultzatzea (Irazusta, 2010).

Azkenik, hedabideetan ere euskararen presentzia normalizatzea aurreikusten zuen 1982ko legeak. Horren ondorioz, euskarak gero eta leku gehiago du ikus-entzunezko euskarrietan (irratiak, telebista), egunkarietan, aldizkarietan, liburugintzan.

Normalizazioa Nafarroan

Nafarroan, 1982an ezarri zen Euskararen Legean oinarritzen da euskararen normalizazioa, hau da, badaude eremuen araberako mailakatzeak.

Lege horren 6. artikuluan, Administrazio Publikoarekiko harremanetan euskaraz zein gaztelaniaz aritzeko eskubidea aitortzen zaie nafar guztiei. Halere, eremu euskaldunean bakarrik dute euskara zein gaztelania erabiltzeko eta harrera bi hizkuntza horietan jasotzeko eskubidea. Eremu mistoan, Administrazio Publikoari euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen da, baina, harrerari dagokionez, ez da euskararen erabilerarik aurreikusten. Eremu ez-euskaldunean, berriz, Administrazio Publikoari euskaraz

zuzentzeko eskubidea ukatzen ez bada ere, Administrazioak gaztelaniazko itzulpena eska dezake halakoetan.

Hezkuntzari dagokionez, nafar guztiei euskaraz zein gaztelaniaz ikasteko eskubidea aitortzen bazaie ere, eremuek finkatzen dituzte irakaskuntza horren erak. 1988ko Foru Dekretuan ezartzen dira euskararen lekua eta erabilera hezkuntza ez-unibertsitarioan. Eremu euskaldunean, euskaraz zein gaztelaniaz irakastea nahitaezkoa da. Eremu mistoan, berriz, euskararen irakaskuntza hautazkoa da eskola publikoan, eta, eremu ez-euskaldunean, euskara ikas daiteke, baina ez euskaraz. Unibertsitate publikoaz den bezainbatean, une honetan ez dago euskararen normalizaziorako planik.

Nahiz eta 1982ko legeak euskararen normalizazioa hedabideetan ere aurreikusten duen (27. eta 28. artikuluak), gaur egun arte oso mugatuak izan dira Nafarroako Gobernuak horren alde bultzatutako ekintzak.

Normalizazioa Ipar Euskal Herrian

Ipar Euskal Herrian, euskara ofiziala ez izanik, haren normalizazioa oso atzeratua da. Halere, oraintsu arte ekimen pribatuen esku gelditu bada ere, azken urteetan martxan dago Frantziako Gobernuak onartu eta diruztatu politika linguistiko bat.

Irakaskuntza da normalizazioari begira gehien garatu den esparrua. Hura da, halaber, marko juridikoa duen bakarra. 1951n, Deixonne Legea onartu zen, zeinak tokiko hizkuntza eta dialektoen irakaskuntza arautzen duen. Eskualdeetako hizkuntzak astean ordu batez irakasteko bidea zabaldu zuen lege horrek, baina, betiere, irakaslearen nahikariaren arabera, eta ikasleek hala nahi izanez gero.

> **Article 3**
>
> Tout instituteur qui en fera la demande pourra être autorisé à consacrer, chaque semaine, une heure d'activités dirigées à l'enseignement de notions élémentaires de lecture et d'écriture du parler local et à l'étude de morceaux choisis de la littérature correspondante. Cet enseignement est facultatif pour les élèves.

Geroztik, ez da beste legerik onartu, baina bai dekretuak. Azken horiek, zeinak Hezkuntzaren Kodean (*Code de l'Education*) biltzen diren, 1951ko legea berresten dute, aldaketa batzuekin: eskualdeetako hizkuntzen irakaskuntzaren antolaketa eskualde bakoitzak estatuarekin adostea aurreikusten dute, eta eskolaldi osoan eskaintzeko bidea

zabaltzen. 2001ean, ministerio-erabaki baten bidez, Frantzian gara litezkeen irakaskuntza elebidun motak zehaztu ziren: ordu-parekotasunezko irakaskuntza elebiduna onartu zen, eta, lehen aldikotz, murgiltze-metodologia baietsi ―nahiz eta eskola publikotik kanpo―.

Hedabideei dagokienez, 1986ko Léotard Legeak Frantziako ondare kultural eta linguistikoa erakusteko ardura ematen die ikus-entzunezko euskarri publikoei. Baina, errealitatean, urriak dira sare publikoan eskualdeetako hizkuntzetan eskaintzen diren programazioak.

Zabaletak (2014b) dioen bezala, Frantziak eleaniztasuna kudeatzeko oinarri juridiko zuzenik ―eta konstituzionalik― ematen ez badu ere, erabateko debekurik ere ez du jartzen; alderantziz, "tolerantzia-politika" aplikatzen du. Eta frantsesaren aldeko xedapenen salbuespen gisa aurkeztuz egiten du hori. Adibidez, 1999an, Konstituzio Kontseiluak erabaki zuen, adierazpen askatasunaren izenean, esparru pribatuan, irakaskuntzan, hedabideetan, ikerketan erabil zitezkeela eskualdeetako hizkuntzak. Baina hizkuntza horien erabilera onartzen bada ere, ezin da derrigorrezkoa izan, ezta hiztunen eskubide bihurtu ere (Zabaleta 2014b: 12). Adierazpen-askatasunaren izenean, eremu publikora ere heda daiteke hizkuntza horien erabilera, baina, betiere, erabilera hori derrigorrezkoa ez bada, bi hiztunen arteko adostasun batetik heldu bada, eta interes orokorreko helburu bati erantzuten badio: alegia, ezkontzak euskaraz egin daitezke, udaletxearen borondatearen arabera.

2004an, Frantziako estatuak Euskararen Erakunde Publikoa sortu zuen, eta, gisa horretan, hozka batez goititu bere "tolerantzia-politika". 2006an, Hizkuntza Politika Proiektua gauzatu zen, EEPren lan-ardatz gisa. Proiektu horren helburu nagusia hiztun osoak erdiestea da, belaunaldi gazteak lehentasun gisa harturik. Iparraldeko proiektua biziki aipatzekoa da, Frantzian ez baita parekorik: Bretainian eta Alzasian ere badira tokiko hizkuntzen erakunde publikoak, baina ez hizkuntza-politika hain zehatz definiturik eta adosturik. EEPren lehen eraginak irakaskuntzan hautematen dira bereziki, baina aurrerapen ikusgarriak egin dira Administrazioan, euskara-teknikariak sortuz eta udaletxeetan euskararen ahozko eta idatzizko erabilera bultzatuz. Euskarazko harrera eskaintzen duten haurtzaindegiak ere aipagarriak dira, ordura arte bakan batzuek eskaintzen baitzuten zerbitzua euskaraz. Halaber, euskarazko argitalpenak emendatuz doaz, eta sustengu ekonomikoa jasotzen dute euskararen alde lan egiten duten elkarteek. Ororen buru, Zabaletak (2014: 18) erakutsi bezala, "Frantziak eurokartaren baitan

izenpetu zituen artikulu gehienak dagoeneko aplikatuak dira, eta EEPren Hizkuntza Politika Proiektua urrunago ere doa, hainbat esparrutan".

Euskararen ezagutza, erabilera eta jarrerak

Euskararen lege-egoera eta hizkuntza-politiken ezaugarri garrantzitsuenak ikusi ondoan, euskarak jendartean duen lekuarekiko interesa agertuko dugu; ezagutza kopuruak eta erabilera-tasak aztertuz, batez ere. Euskararekiko jarrerei ere arreta emango diegu. Horretarako, azken urte hauetako ikerketa soziolinguistiko esanguratsuenak hartuko ditugu oinarri gisa.

Euskararen ezagutza

V. inkesta soziolinguistikoaren arabera (2012)[1], euskara ezagutzen dutenen kopurua gutxiengoan da Nafarroan eta Iparraldean; EAEn, aldiz, elebidun osoak eta hartzaileak (ulertu bai, baina hitz egin ez) batuta, erdaldunen pareko kopurura heltzen dira. Ohargarria da EAEren pisua zenbaki hauetan: Euskal Herriko biztanleen 3/4 biltzen ditu, eta euskaldunen % 80. Zenbaki horien irakurketa egokia egiteko, gogoan izan behar dira euskal populazioaren ezaugarri nagusiak. Euskal Herrian, jaiotze-tasa oso apala da; beraz,gazteriak pisu txikia du gizarte osoarekiko, elebidun kopuru handiena biltzen badu ere. Halaber, azken hogei urteetan, etorkinen ehunekoa hazi da: EAEn, biztanleriaren % 6,6 osatzen dute, eta, Nafarroan, % 11,2. Iparraldean, kanpotik (nagusiki Frantziako beste eskualde batzuetatik) etorritako jendearen kopurua azkarki emendatu da: inkestako datuen arabera, % 41,5.

	Euskal Herria	**EAE**	**Nafarroa**	**Iparraldea**

[1] V. inkesta soziolinguistikoa Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak agindu eta diruztatutako ikerketa bat da. Nahiz eta gaur egun gutxi gora behera 2.650.000 pertsona bizi diren Euskal Herrian (EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria baturik), 7.800 inkesta baino ez dira egin ikerketa horren egiteko: 4.100 EAEn, 2.000 Iparraldean eta 1.700 Nafarroan. Gainera, 16 urte edo gehiagoko hiztunak hartzen ditu aintzat; bestela erranik, kanpoan gelditu da 16 urtetik beherako biztanleria, gaur egun elebidun kopuru handiena biltzen duen multzoa izanik ere. Inkestak 2011an egin ziren, telefonoz, eta hurrengo urtean ezagutarazi emaitzak.

1. taula.

Guztira	2.648.998	1.873.498	537.139	238.360
Elebidunak	714.136	600.058	62.977	51.100
Elebidun hartzaileak	388.255	325.967	40.546	21.742
Erdaldunak	1.546.607	947.473	433.616	165.518

Biztanleria

Euskararen erabileraren ehunekoetara itzulirik, 2011n, datu hauek bildu dira: 16 urte edo gehiagoko elebidun osoak % 32 dira EAEn, % 21,4, Iparraldean, eta %,11,7, Nafarroan.



3. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldeen arabera

Azken hogei urteetan, elebidunen kopurua emendatu egin da EAEn eta Nafarroan: 1991n, biztanleriaren % 24,1 ziren EAEn, eta % 9,5, Nafarroan. Iparraldean, aldiz, oraindik ere badira galerak (1996an, % 26,4), baina lehenago baino apalagoak dira, eta elebidunen kopuruak haziz segitzen du gazteen artean.

Adinaren aldagaiari begiratuta, EAEn eta Nafarroan, 16 eta 24 urte bitartekoek dute elebidunen ehunekorik handiena: % 59,7 EAEn, % 20,8 Nafarroan. Iparraldean, ordea, % 17,6 baizik ez da elebiduna adin-tarte horretan, eta 65 urtetik gorakoek dute elebidunen ehunekorik handiena (% 30,6). EAEn eta Nafarroan, 16 urtetik beherakoek dute elebidunen ehunekorik handiena; inkestan aintzat hartu ez badira ere, aurreikus daiteke 2011ko inkestak marraztutako joerak iraul ditzaketela 15-20 urte barru. Halaber,

Iparraldean, badirudi gazte elebidunen kopuruak eta ehunekoak goititu direla eta goitituko direla. Zalantzarik gabe, irakaskuntza-mailan egindako ahaleginekin dute zerikusia datu horiek (ikus beherago).

Euskararen transmisioa ere gora doa. Gaur egun, bi gurasoak euskaldunak direnean, transmisioa kasik erabatekoa da EAEn (% 97) eta Nafarroan (% 95); apalagoa da Iparraldean (% 87). Bikote mistoei dagokienez, transmisioa apalagoa da denetan: % 71, EAEn; % 67, Nafarroan, eta % 56, Iparraldean. Datu horiek interesgarriak dira Fishmanen (1991) gogoetei begira: haren ustez, hizkuntza gutxitu baten irakaskuntza bermatzea oso garrantzitsu izanagatik, tarteko urratsa besterik ez da izan behar da haren normalizazio-prozesuan; hizkuntza hori transmititzera heltzen ez bada, galduko da. Hain zuzen ere, irakaskuntzako datuak eta transmisioarenak gurutzatzen direnean, itxaropenez beteriko ondorioak lortzen dira. Berriki, Villanuevak aztertu du zer hizkuntzatan hitz egiten duten Hegoaldeko eskualde erdaldunetan D ereduan eskolatu ziren gurasoek beren seme-alabekin. Emaitzak honako hauek dira: parte-hartzaileen % 73k euskaraz, % 23k bi hizkuntzetan eta % 4k gaztelaniaz egiten diete. Joera hori mantentzen bada, euskara ama-hizkuntza izango dutenen kopurua izugarri emendatuko da datozen 30 urteetan, eta errotik aldatuko du hiztunen tipologia.

Izan ere, 2011ko inkesta soziolinguistikoaren arabera, gaur egungo hiztunen ezaugarri nabarmenena da haien “euskaldunberritasuna”: 2011n, 16-24 urte arteko elebidunen % 52 euskaldun berriak dira EAEn; % 38,6, Iparraldean, eta % 54, Nafarroan. Joera berria da: 1991n, adin-tarte horretan, elebidunen % 14 ziren euskaldun berriak EAEn; %9, Iparraldean, eta % 16, Nafarroan.



1. grafikoa. Elebidun moten bilakaera adinaren arabera (Euskal Herria, 1991-2011) (V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011)

Euskararen erabilera

Euskararen ezagutza gauza bat da, eta haren erabilera, beste bat. Beherago ikusiko dugun bezala, bien tasak ez datoz bat; alde horren ulertzeko giltzak ematen saiatuko gara. Gainera, azken urte hauetan euskararen erabileran aldaketarik izan ote den ere ikusiko dugu.

2011ko inkesta soziolinguistikoaren arabera, Euskal Herri osoa kontuan izanik, biztanleen % 24,2k erabiltzen du euskara, neurri batean edo bestean (% 16,1ek erabiltzen du erdara bezainbat edo gehiago; % 8,1ek, erdara baino gutxiago). Alabaina, erabilera-mailak oso desberdinak dira euskararen hiru lurraldeetan: euskara erdara bezainbat edo gehiago erabiltzen dutenak % 20 dira EAEn; % 9,6, Iparraldean, eta % 5,5, Nafarroan. Erdara baino gutxiago erabiltzen dutenak, berriz, % 7,3 dira EAEn; % 7,1, Iparraldean, eta % 1,9, Nafarroan. Bilakaera aztertuz gero, azken 20 urteetan, euskararen erabilerak gora egin du EAEn, berdin jarraitzen du Nafarroan, eta behera egin du Iparraldean. Halere, nabarmendu behar da 35 urte baino gutxiagokoen artean euskara erabiltzen dutenen kopurua duela hogei urte baino handiagoa dela hiru lurraldeetan, batez ere EAEn.



2. grafikoa. Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Datu horiek gizarte osoko hizkuntza-erabilera hartzen dute kontuan. Elebidunen datuei soilik begiratzen bazaie, bestelako emaitzak eskuratzen dira: azken 20 urteetan elebidunen kopurua handitu bada ere, euskararen erabilera 1991n baino txikiagoa da haien artean. Halere, iduri luke gazte elebidunek duela hamar urte baino gehiago erabiltzen dutela euskara EAEn eta Iparraldean, baina ez Nafarroan.

Euskararen erabilera neurtzeko beste tresna garrantzitsua kale-neurketak dira. Haien helburua Euskal Herri osoko eremu publikoan ahozko erabilera neurtzea da. Inkesta ez bezala, zuzeneko behaketa du oinarri. 2006an, V. kale-neurketa egin zen: 185.316 lagun

behatu ziren (Araban, 4 herri; Bizkaian, 18; Gipuzkoan, 16; Nafarroan, 13; Lapurdin, 7; Nafarroa Beherean, 2; eta Zuberoan, 2 (Altuna, 2007). Behaketa horien arabera, euskararen hiru lurraldeak batera harturik, erabilera % 14,2koa da. Bilakaerari dagokionez, Gipuzkoan eta Araban, erabilerak gora egin du; Bizkaian eta Iparraldean, behera. Nafarroan ez dago alderik aurreko neurketarekin konparatuta. Adinari erreparatuta, zenbat eta gazteago, orduan eta handiagoa da erabilera. Zalantzarik gabe, emaitza positiboa da euskararen normalizazioari begira (Amonarriz, 2007).

Euskararekiko jarrerak

2011ko V. inkesta soziolinguistikoaren arabera, euskararen aldeko jarrerak ugaritu egin dira EAEn eta Nafarroan; ez, aldiz, Iparraldean, biztanleria osoan. EAEn eta Nafarroan, adin-talde guztietan goititu dira; Iparraldean, berriz, gazteen artean.



3. grafikoa. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera (1991-2011) (V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011).

Aurreko datuek biztanleria osoa hartzen dute aintzat; hala euskaldunen nola erdaldunen jarrerak, alegia. Bizkitartean, erdaldunek euskararekiko dituzten iritziak eta jarrerak berezikiago aztertzea garrantzitsua da, haien rola giltzarria baita normalizazioari begira. Hori bera egin dute Amorrortuk eta bestek, (2009) *Erdaldunen euskararekiko jarrerak eta iritziak* izeneko ikerketa soziolinguistikoan.

Azterketa horren xedea euskararekiko jarrerak, usteak eta aurreiritziak ikertzea da, euskaraz ez dakien EAEko biztanleria oinarri harturik. Horretarako, partaideak eztabaida-taldeetan elkartu zituzten, eta bakoitzaren ekarpena bildu. Euskara ez ikasteko arrazoiak azterturik, honako emaitza hauek lortu dira:

- % 31,9k adierazi du beste lehentasun batzuk dituela;
- % 18,9k, ez duela behar beste motibazio;

- % 9,7k esan du egin beharreko ahaleginak ez duela merezi;
- % 6,7k, ez duela batere interesik.

Alabaina, denbora-falta aipatu du gehiengoak (parte-hartzaileen % 60), eta askok aipatu dute behar beste motibazio ez izatea. Arrazoi horiek motibazio-falta ezkutatzen dutela diote autoreek; barne-motibazioaren falta, alegia.

Aldiz, euskara ikasteko motibazioez galdeturik, honako erantzun hauek agertu dira erdaldunen artean:

- Motibazio instrumentala eta, bereziki, "haurrei etxeko lanekin laguntzea" (lehen arrazoia da % 23,1entzat; bigarrena, % 3rentzat) eta "beste lan batzuk lortu ahal izatea" (lehen arrazoia da % 17,3rentzat; bigarrena, % 14,9rentzat).
- Motibazio identitarioa eta, bereziki, "gure hizkuntza delako" motibazioa, hau da, identitatearekin lotua den barne-motibazioa lehen arrazoi gisa eman dute parte-hartzaileen % 23,7k, eta, bigarren gisa, % 7,3k.
- Motibazio integratzailea, hau da, "euskaldunekin euskaraz komunikatu ahal izatea" lehen arrazoia da parte-hartzaileen % 12,6rentzat, eta bigarrena, % 18,1entzat.

Bestalde, "neure burua aberasteko" barne-motibazioa adierazi du heren batek (% 29,8), lehenengo bi arrazoietan; alabaina, bigarren motibaziotzat ageri da, batez ere (% 19,6). Ondoren, "gal ez dadin laguntzeko" motibazioa dago (% 16,9k aipatu dute), eta, oso atzean, motibazio integratzaileak: "nire familian edo lagun-taldean, zenbaitek hitz egiten dutelako" (% 7,9), "euskal kulturan integratzeko" (% 7,9) eta "euskal hiztunekiko errespetuagatik" (% 5,8). Argi gelditu da motibazio integratzaileek ez dutela garrantzirik erdaldunen artean.

Ondorio gisa, ikerketaren egileek oroitarazten dute benetan ahalmentsuak diren motibazioak barnekoak direla; erran nahi baita, norbere nahikaritik sorturikoak, "erabakiak hartzera eta ekitera" bultzatzen baitute. Kanpoko motibazioak ere oso garrantzitsuak dira, hau da, gizartearen presioak eragindakoak, bere baitatik hartuko ez lituzkeen erabakiak hartzera bultzatzen baitute norbanakoa. Hori horrela, egileek ondorioztatzen dute, erdaldunak euskarara hurbildu nahi badira, haien motibazio-espektroa indartu behar dela, eta ekimen bereziak egin, haien ikuspuntuari erantzun egokia emateko eta barnean eragiteko.

Laburbilduz

Azken 20 urteotan, euskararen egoera hobetu egin da: elebidunen ehunekoak handitu dira EAEn eta Nafarroan, eta, Iparraldean ere, suspertze bat nabari da gazteen artean. Irakaskuntzari esker, eremuak ere irabazi dira, euskara berriz agertu baita galdua zuten leku frankotan. Baina, aldi berean, erdara azkarki zabaldu da oraintsura arte oso euskaldunak ziren guneetara. Bestela esanda, euskararen "irlak" erdararen itsasoan murgiltzen hasi dira, eta lausoagoa da euskararen eta erdararen arteko banaketa geografikoa (ikus §4 jarduera).

Euskararen ezagutza eta erabilera ez doaz batera. Erabilerak ez du ezagutzaren hazkunde bera erakusten, eta, berez joera hori arazo baten seinale bada, bildutako tasak kezkatzeko modukoak dira. Euskal Herri osoko datuak batuta, biztanleriaren % 20k inguru erabiltzen du euskara bere egunerokotasunean; tasa apalegia, adituen arabera, hizkuntza baten biziraupena segurtatzeko.

Etorkizunari begira, elebidunen kopurua handitzen segitu behar bada ere, erabilerari eman beharko zaio arreta berezia. Iduri luke zentzu horretan josten hasi direla hizkuntza-politika berriak (ikus Jaurlaritzaren euskara-planak). Nahiz eta garapenean zehar gutxi aipatu diren, etorkinek ere rol garrantzitsua izan dezakete euskararen iraupenari begira. Haien ehunekoak handitzen diren heinean, euskal gizartearen beste erronka garrantzitsu bat da euskarara hurbiltzea.

1.3. Euskararen egoera hezkuntzan

Hezkuntza-legeak eta euskara

Hizkuntza gutxituen normalizazioan, funtsezko tresna da hezkuntza elebiduna. Mikel Zalbidek (1998: 368) EAEko hezkuntza elebidunaren sistemari buruz egin zuen ikerketan adierazi zuen bezala: "Sin escuela que euskaldunice de forma extensa e intensa no hay ya futuro para el euskera".

Hain zuzen, atal honetan, euskararen hiru lurraldeetan euskararen irakaskuntza zertan den aztertuko dugu.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

1982ko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen ondorioz, ereduen araberako sistema sortu zen EAEn. Hiru eredu proposatu ziren: A (gaztelania irakats-hizkuntza da; euskara, ikasgai moduan), B (gaztelania eta euskara, biak dira irakats-hizkuntzak), D (euskara irakats-hizkuntza da; gaztelania, ikasgai moduan).

EAEko sistema horrek honako ezaugarri hauek ditu (Zalbide 1998): (i) sistema bera proposatzen da EAE osorako, hau da, lurralde-irizpide globala erabiltzen da (Nafarroan ez bezala), (ii) ereduaren aukeraketa gurasoen, ikasleen eta irakasleen esku uzten da, (iii) ereduak, printzipioz, ez dira inposatzen. Sistema horrek 1982ko legean adierazitako helburuari erantzun behar dio, hau da, derrigorrezko eskolaldia amaituta, euskara eta gaztelania, biak menderatu behar dituzte ikasleek.

Beheko grafikoetan ikus daitekeen bezala, gaur egun, gurasoek D eredua aukeratzen dute nagusiki. Haur Hezkuntzan (% 72) eta Lehen hezkuntzan (% 65) dago alde handiena ereduen artean (% 72 eta % 65 daude D ereduan matrikulatuta, hurrenez hurren). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrera, euskara hutsezko irakaskuntzak pisu gutxiago dauka; gero itzuliko gara gai horretara (§2.3).



	Infantil 2º c.	Primaria	ESO	Bachillerato	F.P.
A	5%	7%	15%	46%	76%
B	23%	27%	28%	0%	0%
D	72%	65%	58%	54%	24%

4. grafikoa. EAE: ikastetxe guztiak. Ikasleen banaketa hiru irakas-ereduetan, hezkuntza-etapen arabera. 2011-12 ikasturtea (Hezkuntza Euskadin, 2013).

Nafarroa

Nafarroan, maiatzaren 19ko 159/1998 Foru Dekretuak arautzen du euskararen irakaskuntza unibertsitate aurreko etapetan, 1982ko Euskararen Legea abiapuntu harturik. Azken horretan, EAEk ezarri zituen A, B eta D hizkuntza ereduez gainera, G eredua ere aurreikusten da; gaztelania hutsezko eredua, alegia (euskara ez da eskaintzen ezta ikasgai modura ere). Euskararen Legeak finkaturiko eremu linguistikoen menpe daude eredu horiek:

- Eremu euskaldunean, euskara ofiziala izanik, ikasi beharrekoa da euskara. Horregatik, euskara barnean hartzen duten hiru ereduetako batean ikas daiteke: A, B edo D ereduetan.
- Eremu mistoan, euskara aukerakoa da. Orduan, euskara eskaintzen duten hiru ereduetako batean (A, B eta D) zein euskararik batere eskaintzen ez duen ereduan (G) ikas daiteke.
- Eremu ez-euskaldunean, euskara irakastea onartzen da, baina ez euskaraz irakastea. Horregatik, A eta G ereduetan bakarrik ikas daiteke.

Eredu bakoitzaren arrakastari dagokionez, Oroz eta Sotesen (2008) arabera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako datuak baturik, 2004-2005 ikasturtean, Nafarroako ikasleen % 47ek G ereduan ikasten zuen, % 26k D ereduan eta % 27k A ereduan. Etorkinei dagokienez, tokiko populazioak bezala, G eredua hobesten dute, eta, ondoren, A eredua. Tokiko biztanleriarekiko aldea D ereduarekiko joeran datza: D ereduaren aukeraketa nabarmen jaisten da haien artean, eta G eredua nabarmen igotzen.



5. grafikoa. Nafarroa: HHko eta LHko ikasleen banaketa ereduen arabera (2004-2005)

Halere, gogoan izan behar da ikasereduen banaketa oso desberdina dela eremu batetik bestera (Oroz & Sotes 2008). Eremu euskaldunean, D eredua da nagusi, ikasleen % 90 inguru biltzen baitu. Eremu mistoan, gorago aipaturiko datu orokorren parekoa da: G eredua nagusi da oraindik (% 44), baina A (% 26) eta D (% 30) ereduak ere indartsu. Azkenik, eremu ez-euskaldunean, G eredua nagusi (% 63) izanagatik, A eredua (% 34) hedatuz doa. Oroz eta Sotesen arabera, % 6 inguru izango dira azken eremu horretan D ereduan ikasten duten ikasleak.

Ipar Euskal Herria

Ipar Euskal Herrian, euskara ofiziala ez izanik, euskararen irakaskuntza ez da derrigorrezkoa. Ez da arautua, EAEn eta Nafarroan bezala. Halere, zenbait lege eta zirkular tarteko, irakats daiteke, eta, gaur egun, ikaseredu bat baino gehiago onartzen du

Frantziako estatuak. Euskararen irakaskuntzaren modalitateak eskola moten arabera aldatzen dira; horregatik, garrantzitsua da eskola publikoa, eskola pribatu kristaua eta ikastola pribatua zein bere aldetik aipatzea.

Eskola publikoan, hala eskatzen dutenek ikasgai modura ikas dezakete euskara, baina txikia da euskararen delako presentzia, eta mailakatua: astean gehienez ere 3 orduz ikasten da, eta ez da eskola guztietan eskaintzen. Savary Zirkularraz geroztik (1982), talde elebidunak sor daitezke eskola publikoan, baldin eta gutxienez 15 ikasleren nahia bada. Delako irakaskuntza elebidunak ordu kopuru bera eskaintzen du euskaraz eta frantsesez Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, baina, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrera, gehienetan ikasgai bat edo beste euskaraz eskaintzera mugatua da, gainerako guztiak frantsesez izanik.

Eskola pribatu kristauetan ere, irakasgai modura ikas daiteke euskara (nahiz eta ez eskola guztietan), eta sare elebiduna eskaintzen da. Halere, ordu kopuruari begira, publikoan baino ordu gehiago eskaintzen da euskaraz eskola askotan —betiere, eskolako zuzendariaren borondatearen arabera—. Eskola kristau batzuk, euskaraz irakasten den kopuruari begiraturik, Hegoaldeko D eta B ereduen artean kokatzen dira.

Izan ere, 2007an, esperimentazio protokolo bat izenpetu zuten Hezkuntza Ministerioak eta Euskararen Erakunde Publikoak. Haur Hezkuntzako irakats-denboraren % 75 eta % 100 euskaraz izateko bidea ireki zuen horrek eskola publikoan eta kristauetan. Gaur egun, hiru eskola publikotan, euskaraz egiten da irakats-denboraren % 75, eta, 2013ko irailetik, % 100 euskaraz ematen da Miarritzeko eskola publikoan. Eskola kristauetan, 2014ean, 14 eskolatan irakasten zen euskara hutsean (Zabaleta 2014: 20).

Ikastola pribatuak salbuespena dira, irakaskuntza osoa euskaraz eskaintzen baita Haur Hezkuntzatik Batxilergora arte, frantsesa ikasgai modura izanik. 1994an, eskola kontzertatu bilakatu ziren ikastolak, eta, beraz, kontratupeko eskola pribatuen estatusa erdietsi zuten: Estatuak ordaintzen ditu irakasleen hilabete-sariak eta kostuak, eta Ikastolak bere egiten du Hezkuntza Nazionalaren curriculuma. 2012an, Hezkuntza Ministerioak ofizialki ezagutu zuen murgiltze-pedagogia.

Eredu bakoitzaren banaketari dagokionez, 2013-2014 ikasturtean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako datuak baturik, ikasleen % 27,94k sare elebidunean ikasten zuen (B ereduaren parekoa); % 8,6k, ikastolan (D ereduaren parekoa), eta % 64,44k, frantsesez (A eta G ereduen parekoa).



6. grafikoa. Hizkuntza–ereduen araberako banaketa.

Euskararen presentzia eskolan: bilakabidea

Ereduen bilakaerari dagokionez, datuak oso desberdinak dira Euskal Herriko hiru lurraldeetan.

EAEn, D eredua etengabe doa goraka; A eredua, beheraka; B eredua, aldiz, mantendu egiten da. Haur Hezkuntzako datuei erreparatuta, 2008-2009 ikasturtean, % 70,19k D ereduan ikasten zuen; % 24,44k, B ereduan, eta % 4,86k, A ereduan. 2013-2014 ikasturtean, berriz, % 75,98 D ereduan matrikulatuta zegoen; % 19,96, B ereduan, eta % 3,54, A ereduan.



7. grafikoa. Hezkuntza-ereduen garapena (http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/).

Nafarroan, Oroz eta Sotesek (2008), 1988-1989 eta 2005-2006 arteko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako datuak alderaturik, honako hau erakusten dute: G eredua ia erdira jaitsi da (% 47), D eredua bikoiztu egin da (% 26) eta A eredua boskoiztu (% 27).



8. grafikoa. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako datuak Nafarroan (Oroz & Sotes 2008).

Iparraldean, gero eta ikasle gehiagok ikasten dute euskaraz. 2004-2005 eta 2013-2014 ikasturteen artean, % 24,7tik % 36,6 izatera igaro da Lehen Hezkuntzako ikasle elebidunen (sare elebidunak + ikastola) proportzioa. Haur Hezkuntzan, ikasle elebidunek ikasle guztien % 30,4 osatzen zuten 2004an; % 43,6 dira hamar urte geroago.



9. grafikoa. Lehen mailako ikasle elebidunen eta elebakarren proportzioaren bilakaera (EEP, 2013-2014ko irakaskuntzari buruzko txostena).

Euskarazko irakaskuntzaren bilakaeraren arrazoiei gagozkielarik, Zalbideren (1998) ustez, bi faktorek baldintzatu dute ereduen bilakaera EAEn: gurasoen nahiak eta giza baliabideek. Idiazabal (2001) harekin bat dator neurri handi batean. Haren iritziz, D ereduari dagokionez, ikerketek erakutsi dute D ereduak bakarrik bermatzen duela haurrak euskara jakitea ikasprozesua bukatzen duenerako, eta badirudi gizarteak bereganatua duela ideia hori. Gainera, gurasoek balioetsi egiten dute beren seme-alabek

ama-hizkuntza ez duten batean ikastea, ahalegin berezia egitearekin lotzen baitute. Idiazabalek dioenez, euskararen balio instrumentalaren hazteak ere eragin duke D ereduaren arrakasta, euskarari gero eta gehiago aitortzen baitzaio tresna garrantzitsua dela lana bilatzeko. EAEn B eredua mantendu izanaren arrazoien artean, Idiazabalek aipatzen du malgutasuna dagoela B ereduan eskatzen den euskara mailan, D ereduarekin konparatuz. Haren ustez, lortu beharreko euskara-maila zehaztugabe izateak eragin lezake eredu horren aukeratzea. Guraso erdaldunek seme-alabei zenbait ikasgaitan lagundu ahal izateak ere bultza litzake eredu horren alde egitera. Azkenik, B eredua desberdina da eskolaz eskola: batzuetan, A eredutik hurbil dago; beste batzuetan, D ereduaren parekoago da, bakoitzari komeni zaionaren arabera. Malgutasun hori ere erakargarri gerta dakioke guraso zenbaiti.

Nafarroan, irakats-ereduen banaketak bestelako arrazoiak dauzka oinarrian. Aldasororen (2001) ustez, D eredua aukeratzen dutenek euskal munduarekiko atxikimenduarengatik aukeratzen dute, euskal munduan integratu nahi dutelako. Euskara ikasgai modura ikastea aukeratzen dutenek euskararen balio instrumentalagatik aukeratzen dute, hau da, lana aurkitzeko baliagarri izanen zaielakoan.

Iparraldean, konzientzia hartzea eta euskal munduarekiko atxikimendua zabaltzea izan daitezke euskarazko irakaskuntzaren aldeko apustua egitearen oinarrian. Baina Euskararen Erakunde Publikoaren sorrerak eta hizkuntza-politikaren martxan jartzeak ere badute zerikusia euskarazko irakaskuntzak azken hamar urtean ezagutu duen emendatze ohargarrian.

Balorazio-saioa

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako datuek erakusten dute euskaraz ikasten duela EAEko ikasleen % 70ek baino gehiagok. Baina errealitatea bestelakoa da Haur Hezkuntzatik Batxilergora bitartean, gutxiago baitira euskarazko irakaskuntza jasotzen dutenak: % 59, 2013-2014 ikasturtean. Lanbide Heziketan, are txarragoa da egoera: 2013-2014 ikasturtean, D ereduan ikasten zutenen ehunekoak ez zuen % 25a gainditzen —B eredua oso gutxi garatua da ikaskuntza mota horretan; ikasleen % 1 inguru biltzen du—. Dudarik gabe, kezkatzeko moduko datua da, horrek izango duelako eraginik lan-munduan erabiliko den euskaran.

Iparraldean, egoera are txarragoa da. Gorago ikusi ditugun Haur eta Lehen Hezkuntzako ehunekoen ondoan Bigarren Hezkuntzako datuak hartzen direnean, ohartzen gara ikasle elebidun asko galtzen dela bidean: 2012ko ikasturtean, % 26,50ek utzi zuen euskarazko irakaskuntza (sare elebiduna edo ikastola), Bigarren Hezkuntzan sartzean. Sare publikoko eta kristauko sail elebidunak soilik kontuan hartuz, ikasle kopuruen galera handiagoa da; % 32,85koa, hain zuzen.

Azken urteetan, euskarazko irakaskuntzak Bigarren Hezkuntzan eta unibertsitatean (EAEn) gora egin badu ere, oraindik asko falta da egoera erabat normalizatzeko. Gogoan izan behar da Lehen Hezkuntzaren ondotik jarraikortasunik ez bada alferrikakoa izango dela egindako lana, gaztelaniak eta frantsesak segituko baitute gizarte-hizkuntza izaten.

Eskolako ibilbide osoa euskaraz egiten duten ikasleen kopuru apalaz gainera, erdietsitako euskara-gaitasuna ere kezkatzekoa da. EAEko 1982ko legeak, euskarazko irakaskuntzaren oinarriak ezartzerakoan, adierazten du ikasleek elebidun orekatuak izan behar dutela derrigorrezko eskolaldiaren bukaerarako, edozein ikaseredu aukeratzen dutela ere. Zalbidek (2010: 128) oroitarazten du ikasleak ez direla eskolalditik benetan elebidun irteten. Haren hitzetan, egungo gazteria “elebitasun funtzional orekatuaren *desiratum*-helburutik urrun dago”. Etxebarria Balerdik 1999an egindako elebitasunaren ikerketak honako emaitza hauek ekarri zituen (Osa, 2003):

- D eredukoak B eredukoak baino hobeak dira; B eredukoak, A eredukoak baino hobeak. Dudarik gabe, denbora da eragile nagusia.
- D ereduan ikasitako askok zailtasun asko dituzte euskara ahoz eta idatziz erabiltzeko.

Oro har, gazteak gai dira ulertzeko eta idatzizko azalpen gehienak ulertzeko, baina oso zaila zaie txukun idaztea eta garbi mintzatzea (Zalbide, 2010: 166). 12-16 urteko ikasleen artean, hiru ikasletatik batek ez du «maila egoki»rik derrigorrezko eskolaldia bukatzean.

Hizkuntza-eskolan ikastea ez da nahikoa maila on batera heltzeko. Zalantzarik gabe, etxean erabiltzen diren hizkuntzak, testuinguru soziolinguistikoak, hizkuntzen arteko interferentziak badute eraginik emaitza horietan (Osa, 2003). Galesen egindako ikerketa batzuek erakutsi dute eskolako hizkuntza eskolatik kanpo ere erabili behar dela, elebidun orekatuak lortu nahi badira. Etxean ingelesez egiten duten ikasleek emaitza

onak dituzte giro galesdunean murgilduak badira; alderantziz, giro galesdunik ez dutenek gales-maila eskasagoa dute (Zalbide, 2010). Euskal Herrira itzulirik, gizarte-mailan eragin behar da, egoera soziolinguistiko bakoitzari egokitutako programak garatuz.

> Eskolan aurrera egin nahi bada normalkuntza kontuan, eskolan baino hagitz sendoago, sakonago eta zabalago gizarte-bizitzan egin behar da lan: hizkuntza-normalkuntzak gizarte osoan jardun behar du buru-belarri, mintzajardunaren gizarte-moldaeran funtsezkoak diren esparruei, jardun-guneei eta harreman-sareei orain arte ez bezalako atentzioa eskainiz. Hizkuntza-normalkuntzaren jarduna gizarte-perspektiba zabalean txertatu behar da, eskolak bere zatia aportatuz noski baina eskolan zentratu gabe lautatik hirutan edo hamarretik bederatzietan. Gizarte-bizitza osoaren % 10ik ez du betetzen eskolak, berez. Zergatik jarraitzen dugu, hortaz, eskola-esparruko interbentzio hutsa proposatuz behin eta berriro? (Zalbide, 2010: 170)

Baina hezkuntza-sistemari buruz konplexurik gabe hausnartzeko beharra ere badago. Hiztunak irabazi ditugu, baina kalitatean ez dugu irabazi. Eraginkorrak ez badira, ereduak berriz pentsatu behar dira. Halaber, Osak (2003) adierazi bezala, berriz ikusi behar dira hizkuntzak eskuratzeko metodologiak eta estrategiak eta haien garatzeko euskarriak (testuliburuak, etab.). EAEko ikasle gehienak (% 75 edo % 80) erdaldunak badira etxetik, L2ko metodologia erabili behar da, eta landu, hobetu. D ereduan —baina, gisa berean, B eta A ereduetan— L2 ikasteko metodologia landu behar da, bakoitzaren ordu kopurua aintzat harturik. Baina, etxetik euskaldunak diren ikasleen kasuan, beste metodologia bat erabili behar da, L1 lantzeko.

Halaber, irakasleen prestakuntza ikasleen egoera linguistikoari egokitu behar litzateke. Euskara behar bezala (batzuetan, L1 gisa; bestetan, L2 gisa) irakasteko metodologiak bereganatu behar dituzte. Azkenik, Osaren (2003) ustez, eskolan irakasten den euskara eta kalean mintzatzen denaren arteko aldea handiegia da. Horrek komunikazioa oztopatzen du, eta euskara eskolatik kanpo era naturalean erabiltzea. Euskara «zuzena» erabiltzeko gehiegizko presioa arindu behar da, eta hizkuntzarekin jolasten utzi gazteei, eta hizkuntza berenganatzen.

Euskara eskolako egunerokotasunean

Aurreko atalean, gizarte-mailako euskararen erabilera aztertu dugu. Atal honetan, ikuspegi osoago bat izateko eta eskolako errealitatea hobeki ezagutzeko, eskola-mailako erabilera aipatuko dugu.

Eskola barruan, ikerketa soziolinguistiko gutxi egin dira. Gaur egun, bakarra dago: Arrue proiektua, Soziologia Klusterrak eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak batera egina. Erabilera zentzu hertsienean aztertzeaz haratago, ikerketa horren helburua eskolako hizkuntza-erabileran zer aldagaik eragiten duten ikertzea da (eskolaren testuingurua, euskararen jakintza-maila, ikasteko eredua…). Horretarako, hizkuntza-erabileraren neurketak egin dira, bai gela barruan, bai jolaslekuan, eta ikasleen ezaugarriei buruzko informazioa bildu da (galdetegien bidez, gehienbat).

Ikerketa 2011n egin zuten, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan, EAEko ikastetxe publiko zein itunpeko guztietan. Hortaz, hiru ikasereduetako ikasleen hizkuntza-erabilera aztertu zen. Inkestatuen kopuru zehatzagoak beheko tauletan ageri dira:

Ebaluazio Diagnostikoa zentsuko ikerketa denez, 2011ko proban, aurreko edizioetan bezala, diru publikoarekin finantzatutako ikastetxeetan (publiko zein itunpeko) eskolatutako Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiek parte hartu zuten.

	Ikastetxeak	Taldeak	Ikasleak
LMH4	522	986	18.636

	Ikastetxeak	Taldeak	Ikasleak
DBH2	329	865	17.184

1. taula

(Arrue proiektua, 2011)

Inkestan parte hartu duten ikasleen tipologiari begira, bi ikasmailetan, ikasleen gehiengoaren lehen hizkuntza gaztelania da (% 60-62). Euskara eta gaztelania edo euskara bakarrik lehen hizkuntzatzat izan dutenak ikasleen heren bat inguru dira (% 33-35), eta % 4kt jaso du euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat etxean, hiru urtera bitartean.



10. grafikoa. Lehen hizkuntza (Arrue proiektua, 2011).

Ikasereduei dagokienez, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 64k D ereduan ikasten du, % 29k B ereduan eta % 7k A ereduan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean, berriz, % 59k D ereduan, % 28k B ereduan eta % 13k A ereduan.



11. grafikoa: hizkuntza-eredua (Arrue proiektua, 2011).

Ikasleen eskola giroko hizkuntza-erabilera ezagutzeko, lau erabilera aztertu dira: (i) ikaskideekin gelan, (ii) ikaskideekin jolaslekuan, (iii) irakasleekin gelan, (iv) irakasleekin gelatik kanpo. Emaitza hauek lortu dira:

- Ikaskideekin gelan:
    - LHM4n: gehiengoak euskaraz egiten du (% 60k beti edo gehienetan)
    - DBH2n: gehiengoak gaztelaniaz egiten du (% 60k beti edo gehienetan)
- Ikaskideekin jolaslekuan:
    - LHM4n: gehiengoak gaztelaniaz egiten du (% 59k beti edo gehienetan)
    - DBH2n: gehiengoak gaztelaniaz egiten du (% 75ek beti edo gehienetan)
- Irakasleekin gelan:

    - LHM4n: gehiengoak euskaraz egiten du (% 74k beti edo gehienetan)
    - DBH2n: gehiengoak euskaraz egiten du (% 61ek beti edo gehienetan)
- Irakasleekin kanpoan:
    - LHM4n: gehiengoak euskaraz egiten du (% 64k beti edo gehienetan)
    - DBH2n: gehiengoak euskaraz egiten du (% 52k beti edo gehienetan)

Emaitza horiek lotura nabarmena dute alderdi hauekin:

- Ikasleek eskolatik kanpo (familian zein beste gizarte-alor batzuetan) bizi duten errealitate linguistikoa. Argiki, eskolatik kanpo, familian edo eskolaz kanpoko jardueretan euskara erabiltzen dutenek lagunartean ere gehiago erabiltzen dute, eskolan.
- Hizkuntza-eredua (A, B edo D izatea), LHM 4ko ikasleen artean. D eredukoek B eredukoek baino gehiago erabiltzen dute euskara. B eredukoek, berriz, A eredukoek baino gehiago.
- Eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan parte hartzea, DBH2ko ikasleen artean. Jarduera antolatuetan euskaraz egiten duten ikasleek euskara gehiago erabiltzen dute eskolako egunerokotasunean.
- Irakasleen arteko erabilera. Irakasleek beren artean euskaraz egiten badute, ikasleek ere euskara erabiltzeko joera handiagoa dute. Aldiz, irakasleek erdaraz hitz eginez gero, ikasleek ere erdarara jotzen dute.

Ondorio gisa, ikasleen euskarazko erabilera areagotze aldera, eskolaz kanpoko jarduera antolatuak indartu eta areagotu behar lirateke, gizartea/familia ingurunea euskaldundu, irakasleen arteko (eta eskolako beste lankideen) euskararen erabilera bultzatu, B ereduan euskarazko gaitasuna hobetu (gaitasunak eragin zuzena baitu erabileran) eta D ereduko ikasleak motibatu (hizkuntzarekiko atxikimenduak hura erabiltzea motiba bailezake).

1.4. Jarduera didaktikoa: “Gure herriko hizkuntzaren garapena: Pecha Kucha”

Jardueraren deskribapena:

Egin herri, auzo edo hiri bateko hizkuntza-garapenaren azterketa, eta aurkeztu lana Pecha Kucharen bidez.

Lan-sekuentzia:

Lana egiteko, pauso hauei jarraitu behar zaie:

-Herri, auzo edo hiria aukeratu.

-Herriari buruzko informazio orokorra bilatu: kokapena, biztanleria, historia, leku aipagarriak, eta abar.

-Azken hamarkadetan herriko paisaia linguistikoan izan den garapena aztertu. Horretarako, komeni da dokumentuak eta bibliografia erabiltzeaz gainera galdeketak egitea adin ezberdineko herrikideei.

-Datu guztiak bildu dituzunean, herri horretako hizkuntza-garapena ulertzeko informazio garrantzitsuena zein den aukeratu.

-Pecha Kucha aurkezpena prestatu.

Materiala eta gomendioak:

-Informazioak ez du idatzizkoa bakarrik izan behar; elkarrizketak, bideoak eta argazkiak ere jasotzea interesgarria da, ondorengo aurkezpenerako.

-Pecha Kucha aurkezpenak: definizioak eta ezaugarriak.

Pecha Kucha izena japoniar hizkuntzatik dator, eta “chit-chat” elkarrizketaren soinua adierazten du. Aurkezpen mota hori gero eta gehiago erabiltzen da nazioarteko kongresuetan.

Pecha Kucha aurkezpenaren helburua entzuleen arreta momentu oro mantentzea da. Horretarako, aurkezpen labur bat egiten da. Hogei irudi dira osotara, eta haietako bakoitzak hogei segundo irauten du (20X20). 6,40 minutu irauten du aurkezpenak; diapositibak automatikoki pasatzen dira, aurkezlea hitz egiten ari den bitartean. Beraz, Pecha Kucha aurkezpenen ezaugarri nagusiak hauek dira:

-Bisualak izatea.

-Dinamikoak izatea.



Ebaluazioa:
Zure lanaren ebaluazioa egiteko, gomendatzen dizugu errubrika hau erabiltzea:

	HOBEKUNTZA FRANKO BEHAR DUEN LANA	LAN NAHIKOA	LAN ONA	LAN BIKAINA
EDUKIAK	Edukiak txarto hautatu dituzte; txarto antolatuta daude, eta errepikatuta,	Edukiak egokiak dira, baina edukiak hobeto antola daitezke.	Edukiak ondo aukeratu dituzte; ondo antolatuta daude, eta ondo azalduta.	Edukiak ondo aukeratu dituzte; ondo antolatuta daude, eta ondo azalduta.
IRUDIA	Kolorea txarto aukeratu da; testu gehiegi; ikusteko arazoak.	Aurkezpena ondo ikusten da, baina itsusia da.	Argazkiak ondo aukeratu dira; testua orekatua da; ondo ikusten da.	Argazkiak ondo aukeratu dira; testua orekatua da; gainera, ikusten dena oso erakargarria da.
AHOZKO AURKEZPENA	Isilune handiak; testua falta da. Diapositibak nahasten dira.	Aurkezpena egokia da, baina denboretara egokitzeko arazoak. Ahoskera-	Aurkezpen egokia, denboretara ondo egokituta; ahoskera ona.	Aurkezpen egokia, denboretara ondo egokituta; ahoskera ona. Gorpuzkerak,

		arazoak.		aurpegierak eta keinuek diskurtsoari indarra ematen diote.

1. taula. Pecha Kucharako errubrika (Etxebarria, 2014).

2- Hizkuntza gutxituen eskubideak eta erronkak globalizazioaren aurrean

2.1. Hizkuntzen egoera munduan

2000. urtean, Hagégek hauxe adierazi zuen hizkuntza bat kulturaren, identitatearen nahiz bizitasunaren erakusgarri zela adierazteko: “Gure hizkuntzak eta horien aniztasunari eustea, bakar baten nagusitasunaren kontra bereziki, gure kulturak defendatzea baino gehiago da. Gure bizitza defendatzea da” (Hizkuntzen Amarauna, 2004: 13). Hala ere, zenbait hizkuntza galduta edota galtzeko bidean daude; izan ere, estatu gehienek bere nazio-hizkuntzak sustatzen dituzte, homogeneotasunaren izenean eta gainerako beste hizkuntzen kaltetan (Hizkuntzen Amarauna, 2004: 21).

Nazio eta estatu kontzeptuei dagokienez, asko idatzi du Joxe Azurmendi filosofo, idazle eta ikertzaileak. 2015eko urtarrilaren 16an *Deia* egunkariak eginiko elkarrizketa batean, era honetan definitu zuen nazio kontzeptua: “Nazioa objektiboki deskriba daitekeen zerbait da edo ezer ez da”. Elkarrizketa berean, zenbait ezaugarri erantsi zizkion nazio kontzeptuari; besteak beste: fenomeno soziala eta historikoa da, gizarte batetik bestera nahiz aro batetik bestera aldatzen dena. Nazioaren eta hizkuntzaren arteko loturaz, bestalde, honako hau adierazi zuen:

> Hizkuntzak ez zuen inportantziarik. Nazioaren teoria frantsesean hizkuntza ez da garrantzizkoa, Frantziari interesatzen ez bazaio. Gero, eskualdeok konkistatu orduko, izugarri garrantzizkoa bihurtzen da nazio osoan hizkuntza bakarra inposatzea. Nazio bat, hizkuntza bat. Errusia herrien kartzela bazen, Frantziak hizkuntzen hilerria dirudi. (Azurmendi, 2015)

Bestalde, nazio kontzeptua kulturaltzat hartu da zenbaitetan, baina, beste zenbaitetan, batez ere Frantziako Iraultzaren ondoren, politikotzat. Kulturala litzateke etnikoa, arrazista eta irrazionala; eta politikoa, aldiz, liberala eta demokratikoa. Nazio on eta txarren arteko bereizketa, alegia. “Nazio politikoa eta kulturala kontrajartzea akatsa da; estatuak bere nazioa defenditzeko egindako operazio interesatua da” (Larrabe, *Berria*, 2015-06-26). Hala ere, nazio eta estatu kontzeptuak bateratu, eta estatuak nazioaren jabe bihurtu ziren, era horretan “estatu bat indartu, hedatu eta aberastu dutelako. Eta batasuna lortzeko asmoz, historia, kultura, hizkuntza batasuna bultzatu dituzte” (Larrabe, *Berria*, 2015-06-26). Horrek, artikulu berean esaten denez, nazioa definitzeko era aldatu du, eta nazioa estatuarekin bat dator, bai maila politikoan, bai maila

administratiboan; ondorioz, estaturik ez duten nazioak nortasunik gabe geratu dira (beste batzuen artean, Gales, Eskozia, Herrialde Katalanak eta Euskal Herria).

Nazio-estatu testuinguru horretan, eta homogeneotasunerako eta absolutismorako bidea egiteko nahia badago ere, errealitatea oso bestelakoa da. Hizkuntzak nazioak eta estatuak baino askoz ere ugariagoak dira, eta ez datoz bat lurraldeetako mugekin. Ikus ditzagun zenbait datu:

- Munduan 193 estatu aitortzen ditu NBEk (194, Vatikano kontuan hartuta).
- Munduan hitz egiten diren hizkuntzak, aldiz, 6.000 inguru dira. (Martí, 2006: 69, 91)
- Oso modu heterogeneoan daude banatuta: Papua Ginea Berrian, adibidez, lau milioi hiztunek 800 hizkuntza erabiltzen dituzte; Zeelanda Berrian, aldiz, oso lurralde zabala izanagatik ere, maoriera baino ez zen hitz egiten europar kolonizatzaileak iritsi aurretik. (Martí, 2006: 69)
- Kontinenteei begira, Afrikan eta Asian hitz egiten da hizkuntza gehien. (Martí, 2006: 91)
- Aniztasun handieneko estatuak: Papua Ginea Berria, Indonesia, India, Nigeria... (Martí, 2006: 92)
- Europan ere, uste baino askoz ere ugariagoak dira hizkuntzak: 68 hizkuntza hitz egiten dira guztira, 1. irudian ikus daitekeen bezala.

4. irudia: Europako hizkuntzak

(http://www.badubada.com/eu/erakusketa/euskera_munduan_hizkuntzak_estatuak.php)

Adierazitakoa azpimarratuz, garrantzitsua da jabetzea estatuen mugak ez datozela bat hizkuntzen eta hizkuntza-komunitateen mugekin. Hain zuzen ere, estatu bat baino gehiagoko lurretan hitz egiten dira hizkuntza asko (euskara adibide argia da). Horrek honako gogoeta hau eragin behar digu: hizkuntza-politikek mugez gaindikoak behar dute izan, eta hizkuntza-politikaz arduratzen diren erakundeen arteko koordinazioa sustatu behar da, hizkuntza- eta kultura-banaketa faltsurik ez bultzatzeko (Martí, 2006: 152).

Aniztasun horretan, hizkuntza guztiek ez dute maila bera: batzuk ofizialak eta indartsuak dira, eta beste batzuk, gutxituak eta txikiak[2]. Hizkuntzen Munduko Txostenak hizkuntzen inguruko informazioa jasotzen du; Hizkuntzen Amarauna txostenak 2004an argitaratu zuenaren arabera, besteak beste, honetarako:

- Hizkuntzen hiztunei eta dinamizatzaileei ondarea babesten laguntzeko, beste hizkuntza batzuk gutxietsi eta ahuldu gabe.
- Hizkuntzen homogeneizatze-prozesua geratzeko eta horretan ari direnei alderantzizko bidea egiteko ardura hartzen laguntzeko.
- Emaitza onak lortu dituzten hizkuntza-sentsibilizazio eta -sustapen ereduei balioa emateko eta eredu gisa eskaintzeko eta arrakasta izan duten tokietan bazterrean ez uzteko.
- Galzorian dauden hizkuntzen egoera salatzeko nahiz horretaz ohartarazteko, eta horren ardura dutenak jakinaren gainean egoteko.

Esan bezala, hizkuntza guztiek ez dute maila bera, eta batzuk galtzeko zorian daude. Hizkuntza-aniztasuna murrizteak ez du esan nahi hizkuntza hori soilik galtzen dela, baizik eta "informazio genetikoaren murrizketa garrantzitsua ere gertatzen da: hizkuntzen iragana eta hizkuntz komunitateek iraganean izandako harremanak ulertzeko informazio lagungarria, alegia" (Hizkuntzen Amarauna, 2004: 13).

Baina zergatik galtzen ditugu edota desagertzen dira hizkuntzak? Moreno Cabreraren arabera (2008), hizkuntza inperialistak hedatzeak homogeneotasun linguistikoa ekarri du, eta ez aniztasuna; izan ere, hiztunek beren hizkuntza natiboak baztertu dituzte, edota ez dituzte zaindu behar bezala, sarritan pentsatu baitute hizkuntza horiek garapen eta aurrerapen sozialaren nahiz pertsonalaren kontra doazela. Era horretan, bost kontinenteetako hizkuntza internazionalek beste zenbait baztertu eta desagerrarazi dituzte.

Egoera horren aurrean, hizkuntza-aniztasuna zaintzen ikasi behar da, eta, horretarako, Munduko Hizkuntzei buruzko Txostenaren laburpenaren arabera, honako puntu hauek hartu behar dira kontuan hizkuntza-plangintzak egitean:

- [2] Hizkuntza txikiak: hiztun kopuru apala duten hizkuntzak
- Hizkuntza gutxituak: erabilera mugatua duten hizkuntzak eta, hortaz, desagertzeko arriskuan daudenak. (Zendoia, 2000: 40)

Hizkuntzen inguruko ingurumen eragile zabalak aztertu behar ditugu, hizkuntz fenomenoak —isolatuta edo/eta barnetik— baino gehiago.

Kulturabakartasunaren eta aniztasuna murriztearen ondorio negatiboez jabetu behar dugu.

Naturaren eta giza baliabideen mugez ere jabetu behar dugu.

Epe luzerako ikuspegia izan behar dugu.

Ekologia osasuntsuak sustatzen laguntzen duten eragileez jabetu behar dugu. (2004: 18)

Txosten berberak zenbait gomendio ematen ditu hizkuntza-ondareari buruz. 2. taulan irakur daitezke:

Hizkuntz aniztasuna galtzeko zorian dagoela ikusita:

- Galtzeko arriskuan dauden hizkuntzek ere –beste edozein hizkuntzak bezala– gizartearentzat aberastasun eta interes handia dutela aldarrikatu, defendatu eta arrazoitu beharko litzateke jendaurrean, eta ohartarazi zeinen faltsu eta arriskutsua den hizkuntzen artean hierarkiak ezartzea.
- Hizkuntza guztietako hiztunek beren hizkuntzak erabili eta lantzeko eskubidea daukatela zabaldu beharko litzateke, eta eskubide horiek errespetatu eta babestu egin behar direla, batez ere, agintarien aldetik.
- Gizartearen ondare izendatu beharko lirateke hizkuntza guztiak.

2. taula. Hizkuntza-aniztasuna babesteko gomendioak (2004: 19).

2.2. Ofizialtasuna eta hizkuntza-eskubideak

1966an, UNESCOk, Nazioarteko Kultura Lankidetzari buruzko Printzipioen Deklarazioan, honako puntu hauek bereizi zituen hizkuntza-eskubideak babesteko:

1. Kultura orok du duintasuna eta balioa, eta horiek errespetatu eta jagon egin behar dira.

2. Gizabanako orok du norberaren kultura garatzeko eskubidea eta betebeharra.

3. Kultura guztiak, haien aniztasuna eta elkarrekiko eragina kontuan hartuta, gizon-emakume guztion ondarearen zati dira. (Munduko Hizkuntzei buruzko Txostenaren laburpena, 2004: 21).

Bai hiztunek bai estatu bat gobernatzen duten agintariek betebeharra dute hizkuntza guztiak errespetatzeko, zaintzeko eta ondarearen zati direla garrantzitsutzat hartzeko ; hala ere, sarritan, hizkuntza guztiak ez dira maila berean egoten. Izan ere, batzuei ofizialtasuna ematen zaie eta beste zenbaiti ez. Baina zer esan nahi du estatu batek hizkuntza bat ofizial izendatzea? Azken finean, estatu horretako "hitza" dela aitortu, eta balio bereizlea eta baztertzailea ematen zaio; alegia, beste hizkuntzen gainetik jartzen da:

> Lo es en la medida en que se basa en el reconocimiento de la existencia de una «voz del Estado», separada conceptualmente del habla de los individuos, y a la que se le asigna una validez exclusiva y excluyente. (Revenga, 2005: 131)

Hizkuntza bat ofizial egiten da identitate nazionala azpimarratzeko ere:

> Oficializar una lengua es también, a menudo, un modo de reafirmar la identidad nacional. Así, por ejemplo, en la República de Irlanda, donde el artículo 8 de la Constitución proclama el irlandés como primer idioma nacional, y «reconoce» el inglés como «segundo idioma oficial». (Revenga, 2005: 131)

Estatu bateko hizkuntza ofiziala izateak hauxe adierazten du: hizkuntza hori herritarren eta botere publikoen arteko erlazioetarako hizkuntza dela onartzea. Revengak Auzitegi Konstituzionalaren aipamen hau egiten du hizkuntza baten ofizialtasunak duen balioari eta funtzioari dagokienez:

> Es reconocida como lengua vehicular para las relaciones entre los ciudadanos y los poderes públicos. Tal es la perspectiva del Tribunal Constitucional en la stc 82/1986 («es oficial una lengua, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, con plena validez y efectos jurídicos»). (132)

Munduko hizkuntzei buruzko datuak Ethnologue katalogoan kontsultatuta, bost kontinenteetako hizkuntzak bost multzotan sailkatzen dituzte: instituzionalak (aurreko lerroetan ofizialak deituak), garatzeko bidean daudenak, indartsuak, arazoak dituztenak eta desagertzen ari direnak. Sailkapen hori eta kontinenteak kontuan izanda, 3. taulan agertzen diren datuak ematen ditu aipatu berri den katalogoak:

	Amerika	Afrika	Europa	Asia	Ozeania
Instituzionala	37	194	73	203	71
Garatzeko bidean	234	542	81	362	379
Indartsua	145	1026	31	856	421
Arazoduna	309	245	50	693	234
Desagertzeko zorian	339	131	51	187	208

3. taula. Bost kontinenteetako hizkuntzen egoera (Iturria: Ethnologue).

Ikusten denez, hizkuntza arazodunen eta desagertzeko zorian daudenen kopurua handia da bost kontinenteetan: Amerikan, % 60; Europan, % 35,31; Asian, % 38,2, eta, Ozeanian, % 33,26. Afrikan dago kopururik txikiena desagertzeko zorian edota bizirauteko arazoekin; alegia, % 17,5. Hala ere, hizkuntza ofizialak edo instituzionalak % 9 baino ez dira kontinente horretan. Hizkuntza ofizial gehien Europak ditu (% 25,5), eta gutxien, Amerikak (% 3,4); hala ere, hizkuntza ofizialen kopurua txikia da kontinente guztietan.

Administrazioan erabiltzen ez diren hizkuntza batzuek badute koofizialtasuna besteren batekin, eta toleratu egiten dira. Peruko aimara eta Kolonbiako Uitoto hizkuntzekin gertatzen da hori, baina, gehienetan, ez zaie ematen ofizialtasunik. Esaterako, Benineko fongbeera:

> Formalmente hau cooficialidad y en la práctica existe la tolerancia e incluso el rechazo del sector dominante de la sociedad criolla blanca. En la administración pública y privada no hay uso del idioma aymara, ni oral ni escrito (Aymara, Perú).
>
> Según la nueva Constitución política de 1991: “El Estado reconoce y protege la diversidad étnica y cultural de la Nación Colombiana” (Artículo 7). `Las lenguas y dialectos de los grupos étnicos son también oficiales en sus territorios. La enseñanza que se imparta en comunidades con tradiciones lingüísticas propias será

> bilingüe´(Artículo 10). Aun así, no hay ningún uso de la lengua en la administración (Uitoto, Colombia).
>
> Desde el año 1987, esta lengua fue elevada (junto a otras cinco lenguas) al rango de las lenguas nacionales, que deben ser promovidas prioritariamente en Benin. […] La lengua fon no se utiliza en la administración. Hay que señalar un movimiento esperanzador, sin embargo, puesto que actualmente en el Parlamento de Benin hay diputados que sólo comprenden las lenguas nacionales. Ellos, por lo tanto, comienzan a reclamar que los debates parlamentarios puedan realizarse también en lengua fon (Fongbe, Benin). (Martí, 2006: 171)

Egoera horiek saihesteko asmoz eta hizkuntza ondarea babesteko, zenbait ekimen jarri ziren abian. 1992an, Europar Batasuneko Ministroen Batzordeak eta hogeita hamaika estatuk Eremu Urriko edo Eskualde Hizkuntzen Europako Gutuna sinatu zuten, eta haietatik hogeita hiruk berretsi egin zuten (Elortza, 2015: 1). Gutuna ezartzeko prozesuan, Europako Kontseiluak, Estatuek, Gobernuz Kanpoko Erakundeek eta hiztunen beste ordezkari batzuek hartzen dute parte. Gutunaren oinarriak honako hauek dira:

> Biztanleriaren gehiengoak hitz egiten d(it)uenaz beste hizkuntzak babesten ditu Gutunak, nahiz eta hiztunen kopurua txikia izan. Alde horretatik, etorkinen hizkuntzak eta estatu bakoitzeko hizkuntzaren dialektoak ez ditu hartzen eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzatzat.
>
> Hizkuntzak beraiek dira Gutunaren onuradunak, eta, horretarako, hizkuntzak bizitza publikoko eta pribatuko esparru guztietan erabili erabiltzera bultzatzen du Gutunak.
>
> Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen errespetua eta haien erabilera sustatzea ez da estatu bakoitzeko hizkuntza ofizialen eta haiek ikasi beharraren kontrakoa. Alderantziz: gizartearen ongizatea handiagotzen du eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak onartzeak eta haien hiztunak eta berezko kulturak errespetatzeak.
>
> Arreta eremu urriko hizkuntzen babesean jartzen duen nazioarteko tresna lotesle bakarra da Gutuna, eta onuragarria da sinatu duten estatuentzat, nazioartean onartutako esparru komun bat eskaintzen baitie hizkuntzapolitika lantzeko.

> Dagozkion hizkuntzen hiztunekiko elkarlanean bakarrik gara daitezke hizkuntzen aldeko politikak, eta alderdi guztiek ateratzen dute etekina lankidetza horretatik.
>
> Gutunak bizirik eta garatzen jarraitzen duela ziurtatzen du estatuek Gutuna aplikatzen duten moduaren etengabeko behaketak. Hasierako fasean ere, behaketa-prozesuak hizkuntza-politiken ahalmenaren edo gabezien kontzientzia harrarazi die askotan agintariei, eta agintarien eta dagozkion hizkuntzen hiztunen artean harreman eraikitzaileak sortzeko ekarpena ere egin du. (Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordeza, 2009: 3-5)

Gutun hori bost zatik osatzen dute:

I. zatia

I. zatiak Gutunaren esparrua zehazten du.

II. zatia

II. zatiak Gutunaren “espiritua” adierazten du, eta eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak kultura-ondarearen adierazpentzat onartzea da muina. II. zatiko xedapenak estatuetan erabili izan diren hizkuntza guztiei dagozkie.

III. zatia

III. zatiko xedapenak xeheagoak dira, eta haien esparruan zer hizkuntza sartu behar diren adierazten dute estatuek, esplizituki. Hizkuntza bakoitza babesteko eta sustatzeko 68 xedapenetatik gutxienez 35 ezartzeko konpromisoa hartzen dute Estatuek.

IV. zatia

Gutunaren behaketa Gutuna ezartzeko prozesuaren funtsezko osagaia da, eta IV zatiak zehazten ditu behaketa eta Gutunaren aplikazioari buruzko beste gai batzuk.

V. zatia

Gutuneko V. zatiak Gutuna indarrean noiz sartzen den eta hura sinatzeari eta

berresteari buruzko hainbat gai zehazten ditu. (Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordeza, 2009: 3-5).

1996an, Hizkuntza Eskubideei Buruzko Deklarazio Unibertsala sinatu zen, Bartzelonan. Hizkuntza Eskubideei buruzko Munduko Biltzarrean (zenbait erakundek antolatua, UNESCOk emandako laguntzarekin), ehunen bat herrialdetako gobernuz kanpoko kideak bildu ziren. Hizkuntza-eskubideei buruzko deklarazioa aurkeztu eta onartu zuten. 1994ko irailean, PEN Clubaren Comitè de Traduccions I Drets Lingüístics delakoak eta CIEMEN (Centre Internacional Escarré per a les Minories Etniques I les Nacions) taldeak, hizkuntza-eskubideei buruzko deklarazio baten beharrizana bazegoela jabeturik, halako bat egiteko enkargua eman zioten nazioarteko eta zenbait diziplinatako aditu-talde bati (Iriondo, 1997: 44).

Deklarazioaren nahia hauxe zen:

> Oharturik ezinbestekoa dela Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsal bat, bide emango duena hizkuntz arteko desorekak zuzentzeko, eta modu horretan ahalbidetzeko bai hizkuntza guztien errespetua eta garapen osoa eta baita mundu osoan zehar bake linguistiko zuzen eta ekitatezkoaren printzipioen ezarpena. bizikidetza sozialari eusteko gako-faktorea baita. (Hizkuntza Eskubideen Behatokia: 2)

1999an, UNESCOk Ama Hizkuntzen Nazioarteko Egun izendatu zuen otsailaren 21a; bi urte geroago, Hizkuntzen Europako urte izendatu zen 2001. urtea, eta Hizkuntzen Nazioarteko Egun, irailaren 26a. Orduan zera azpimarratu zen: hizkuntzak ezinbestekoak dira kultura-nortasuna adierazteko, elkar ulertzeko eta kulturarako eta merkataritzarako bideak irekitzeko. (http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vedorok/eu/contenidos/libro/argit23_2_crystal_08_04/eu_crystal/argit23_2_crystal_08_04.html)

UNESCOk 2005. urtean egin zuen Biltzar Nagusian, hau onartu zuen Kultura Edukien Aniztasunaren eta Adierazpen Artistikoen Babesari buruzko Hitzarmenean:

> Kultura aniztasuna eta hizkuntza aniztasuna kontzeptu kideak dira. Kultura aniztasunak sorkuntza eta adierazpen bideak diren hizkuntzen errespetua eta sustapena dakar. Badakigu munduko 6.000 hizkuntzetatik gutxienik 2.000 inguru desagertze bidean direla, eta hala ere diogu hizkuntza guztiak gizateriaren kultur ondare

> nagusienetakoak direla. Munduko hizkuntza ondarearen benetako babesa eta sustapena kultura aniztasunaren ezinbesteko zutabeak dira, eta honen ondorioz Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostenak (2005) dioena onartzen dugu.
>
> Hizkuntza guztiek dute komunikatzeko gaitasun eta ahalmen intelektual berdina, eta ez da bidezkoa beraien arteko hierarkirik ezartzea. Azpimarratu behar da norberaren hizkuntza eta kultura identitatea eta estimu pertsonal eta kolektiboaren funtsa direla. Horregatik, botere publikoek hizkuntza babesteko eta sustatzeko neurriak ezarri behar dituzte, lurraldean hitz egiten diren hizkuntzen onarpen ofiziala ziurtatuz. Jarrera negatiboak eragiten dituzten aurreiritzi linguistikoak arbuiatzen ditugu, bereziki hizkuntza gutxituei kalte egiten baitiete. (Euskal Herriko UNESCO Zentroa)

2.3. Hizkuntza-aurreiritziak

1996an Bartzelonan sinatu zen Hizkuntza Eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsalean, hizkuntza-aurreiritziei buruzko testu hau irakur daiteke:

> La invasión, la colonización y la ocupación, así como otros casos de subordinación política, económica o social, implican a menudo la imposición directa de una lengua ajena o la distorsión de la percepción del valor de las lenguas y la aparición de actitudes lingüísticas jerarquizantes que afectan a la lealtad lingüística de los hablantes. (http://www.unesco.org/cpp/sp/declaraciones/linguisticos.htm)

Beraz, sarritan, botere-, ekonomia- eta gizarte-mendekotasunaren eraginez, hizkuntza-aurreiritziak agertzen dira. Tusón-ek era honetan definitu zituen:

> Podemos, pues, entender que un ‘prejuicio lingüístico’ es una desviación de la racionalidad que, casi siempre, toma la forma de un juicio de valor o bien sobre una lengua (o alguna de sus características), o bien sobre los hablantes de una lengua (en tanto que hablantes). Y se trata de un prejuicio generalemente dictado por la ignorancia o por la malevolencia, ajustado a estereotipos maniqueos y dictado por la desazón que nos

> producen todas aquellas cosas y personas que son diferentes a nosotros. (Tusón 1996: 27)

Hizkuntza-aurreiritziak ez dira gaur egungo kontua. Badugu Erdi Aroko adibide bat, Picaud euskaldunez aritu zenekoa, XII. mendean:

> Berbetan entzungo bazenitu, adausika ari diren txakurrekin oroituko zinateke, hizkuntza erabat basatia baitute: Jainkoari Urtzia deitzen diote, Jainkoaren amari Andrea Maria, ogiari ogi, arrainari arraiñ, etxearietxea, etxeko jaunari iaona, etxeko andreari andrea, elizari elizera, apaizari belaterra —esan nahi baita, pulcra terra 'lur ederra'—, gariari gari, urari urik, erregeari erregia, Done Jakueri Iaona domne Iakue. (http://euskaraetaliteratura.blogspot.com.es/2014/11/aimeric-picaud.html)

Etxeparek, 1545. urtean argitaratu zuen Linguae Vasconum Primitiae liburuko olerki batean, hau dio *Kontrapas* olerkian, zeina euskararen ingurukoa baita:

> Berze jendek uste zuten
>
> ezin eskriba zaiteien;
>
> orai dute phorogatu
>
> enganatu zirela.

Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña ikertzaileen *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* izeneko lanean (2009), besteak beste, 3. taulan adierazten diren aurreiritziok agertzen dira bi multzotan banatuta: euskararen balio instrumentalari buruzkoak, euskararen balioa norbanakoaren eta gizartearen nortasuna eraikitzearen ingurukoak.

Euskararen balio instrumentalaren inguruko zenbait iritzi	**Euskararen balioa norbanakoaren eta gizartearen nortasuna eraikitzeari buruzko iritzi batzuk**
“Lo que pasa es que es un tema de rentabilidad. Yo sé que en francés, inglés o alemán... Yo soy	“Que el euskera es una lengua, que es una lengua, y que además es la nuestra, y que no es ni

director de una empresa yo sé que la gente la necesito que hable ese idioma; yo necesito gente que hable ese idioma. A mí si habla euskera no me aporta nada más que satisfacción". (BI-B, 38)	más pequeña ni más grande que otras, y que no es la lengua de los niños, ni la de los aldeanos, ni la de los incultos..., no, porque es una lengua normal". (GA-E, 14)
"Ataunen ez duzu behar, nahi ez baduzu euskera bizi gaur egun. Zu bizi zaitezke euskararik gabe edozein tokitan, o sea, hori nabarmena da". (ENP1-C,	"Hombre, yo creo que aquí hay una... por lo menos uno de los primeros, vamos a decir, aspectos motivacionales de cuando se empezó a hablar de estos temas de implantar los planes de euskera y tal, estaba claro claro inicialmente que era porque se corría y se corre serio riesgo de perder... hombre, no ya la identidad sino el propio idioma y la propia lengua. O sea, eso sea un aspecto, vamos a decir, troncal, básico". (ENP2-A, 80)
"Niretzat, komunikatzeko ez dugu behar euskara, bezeroekin hitz egiteko, komunikatzeko ez dugu behar, hornitzaileekin ezta, orduan tresna moduan, niretzako da tresna bat, gauza askotarako, baino nagoen tokian ez dut ikusten euskara tresna bat modura". (ENP1-B, 14)	
"Nosotros vemos, al cabo del año vemos cientos de personas, de parejas o que han tenido hijos, o que los quieren tener, que te cuentan, el modelo tal, y la mayor parte de la gente les mete en el modelo en el que meten euskera. Pero, ¿por qué? Porque el día de mañana lo van a tener más fácil, si no...". (GA-B, 56)	

4. taula. Erdaldunek euskararekiko dituzten aurreiritziak (Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña, 2009)

2.4. Erronkak

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren (Bartzelona, 1996) arabera, hiztun komunitate orok bere hizkuntza zaintzeko eta indarberritzeko eskubidea du:

> Toda comunidad lingüística tiene derecho a codificar, estandarizar, preservar, desarrollar y promover su sistema lingüístico, sin interferencias inducidas o forzadas. (Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala)

Hizkuntza hori zaintzeko eta bultzatzeko, hizkuntza indarberritzeko ekimenak jartzen dira abian; hizkuntzaren normalizazioa, indarberritzea edo biziberritzea izendapenek prozesu sozial berari egiten diote erreferentzia. Hizkuntza gutxituarentzat hizkuntzak eta erabilera-esparruak irabaztea da.

> Se puede definir la "normalización lingüística" como el proceso social tendente a retener y recuperar para el euskera hablantes y ámbitos de uso, de forma que dicho idioma se atenga o convierta en la lengua habitual en las relaciones internas de la correspondiente comunidad de lengua, tanto en contextos formales como informales, y en interacciones de base oral o escrit. (Zalbide, 1998: 365)

Horretarako, estatuek hizkuntza-politikak jartzen dituzte abian; erakunde publikoek hizkuntzen erabilera antolatzeko eta arautzeko egiten dituzten esku-hartzeak dira hizkuntza-politikak. Era horretako politikak garrantzitsuak dira estatu batean hizkuntza bat baino gehiago dagoenean; izan ere, gehienak eleaniztunak dira, gutxi baitira elebakarrak (Zarraga eta lag., 2010: 231). Hizkuntza-politikak hizkuntza-plangintza kontzeptura eramaten gaitu. Hizkuntza-plangintza kontzeptuaren definizioak bildu dituzte Zarragak eta lankideek, 2010ean egindako lan batean. Haietako batzuek hizkuntza-politika kontzeptuarekiko ezberdintasuna azaltzen dute; besteak beste, honek:

> Hizkuntza-plangintza terminoaren bidez, beste batzuen hizkuntza-portaeran eragiteko, hizkuntzen eta hizkuntza-aldaeren irakaskuntzan, egituran eta funtzioetan egindako ahalegin kontzienteak adierazten dira (Cooper, 1997). Hizkuntza-politikan hartutako erabakiak gauzatzera bideratutako ekimen planifikatuak biltzen ditu hizkuntza-plangintzak, edo zentzu zabalagoan, hizkuntzen erabileran edo

> egituran eragiteko esku-hartze kontzienteak (Xavier Lamuela, 1994); izan ere, sarritan, esku-hartze horiek ez dira izaten aski planifikatuak ez baitute plan batek izan behar duen ezaugarririk, nahiz eta hizkuntza-plangintza izena jarri. Hizkuntza-politika hausnarketa, eztabaida, erabaki eta botereari lotuta dago, eta hizkuntza-plangintza, berriz, exekuzioari eta hartutako erabakien aplikazioari (Bastardas i Boada, 2009). Horixe da bien arteko desberdintasun nagusia (Zarraga eta lag., 2010: 239).

Hizkuntza-plangintzak bi eratakoak izan daitezke: batzuk, corpusaren plangintzari dagozkionak dira, "hizkuntzari berari dago lotuta, alderdi linguistikoa lantzen du; emaitzarik esanguratsuenak dira gramatika eta hiztegi arauemaileak, terminologia lanak, ortografia, puntuazio-arauak eta abar" (Zarraga eta lag., 2010: 239); beste batzuk, estatusaren plangintzaren ingurukoak dira: "hizkuntzaren alderdi soziala lantzen du; hemen sartzendira, adibidez, estatus legala ezartzea, hizkuntzaren alde egindako kanpainak, hizkuntza-transmisioa bermatzeko egindako ekimenak, helduak alfabetatzeko ekintzak eta abar" (Zarraga eta lag., 2010: 239).

Euskal Autonomia Erkidegoan, euskara indarbarritzeko hainbat plangintza abian jarri dira, bai corpusari lotuak, bai estatusarekin zerikusia dutenak. Eremu publikoan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren honako eginkizun hauek zehazten dira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web-orrian:

> 1.– Saileko sailburuordetzen funtzio orokorrez gain, honako funtzio eta jardun-arlo hauek dagozkio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, hura baita hizkuntza-politikaren arloan eskumena duen organo gorena:
>
> a) Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika artikulatzea eta haren jarraipena egitea euskararen erabilera normalizatzeari dagokionez, eta Eusko Jaurlaritzak emanda Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek bete beharko dituzten arlo horretako jardun-irizpideak garatzea eta ezartzea.
>
> b) Jaurlaritzaren Lehendakaritzak eta Jaurlaritzako sail guzti-guztiek beren egitura organiko eta funtzionaletan abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren bidez sortuak dituzten edo sortu behar dituzten euskara-atalen jardunerako irizpideak ezartzea, politika publikoetan eta kudeatzen dituzten administrazio-gai guztietan euskara bultzatzen laguntzeko.

c) Bermatzea hizkuntzaren arloan berariazko funtzioak dituzten Jaurlaritzako organo eta zerbitzuek sarean, koordinatuta eta modu osagarrian jarduten dutela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zuzendaritzapean.

d) Arlo honetako zuzendaritzek hizkuntza-politika zuzentzeko egindako arauak ezartzeko, aldatzeko edo aplikatzeko proposamen orokor zein zehatzak koordinatzea eta, hala badagokio, sailburuari helaraztea.

e) Eusko Jaurlaritzako sailek edo mendeko erakundeek egindako ikerketa soziolinguistikoak edo alderdi soziolinguistikoak jasotzen dituzten bestelako lanak koordinatzea, edozein dela ere horien eremua, Jaurlaritzaren hizkuntza-plangintzak koherentzia eta efizientzia handiagoa eta izan dezan.

f) Euskal Autonomia Erkidego osorako plangintza orokorra prestatzea eta jarduera bateratuak gauzatzeko planak egitea, Jaurlaritzak onar ditzan.

g) Hizkuntza-politikan eskumena duten botere publikoak lankidetzan aritzeko neurriak dinamizatzea eta bultzatzea, horretarako behar diren ekimen guztiak sustatuta, eta erakundeen arteko lankidetza eta koordinazioa areagotuko duen beste edozein formula ikertuta.

h) Azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskararen erabilera arautzekoa, eta gainerako xedapen osagarriak egoki garatzen eta aplikatzen direla zaintzea, hargatik eragotzi gabe administrazioko beste organo batzuek horretarako berariaz izendatuta dituzten funtzioak. Esleitutako jardun-arloan, eta euskararen erabilera normalizatzeari begira, arreta bereziz zainduko du botere publikoek betetzen dituztela xedapen orokorrak, Eusko Jaurlaritzaren jarraibideak eta Euskararen Aholku Batzordearen gomendioak, eta betetze-maila hori ebaluatuko du.

i) Hizkuntza normalizatzeko zereginetan, euskara normalizatzen eta normatibizatzen diharduten erakundeekin harremanak izatea eta, euskal hiztunen komunitate osoa kontuan izanik, beste lurralde batzuetako era guztietako erakundeekin ere lankidetzan aritzea.

j) Hizkuntza-eskakizunak zehazteko eta eskakizun horiek aplikatzeko proposamena egitea, Euskal Funtzio Publikoaren Legean ezarritako ondorioetarako. Gainera, herri-administrazioekin batera arituko da irizpide horietara egokitzeko planak lantzen eta ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatzen. Horrek guztiak ez ditu eragotziko administrazio horietako bakoitzak

dituen eskumen eta eskurantzak, ezta, hala dagokionean, Jaurlaritzako sailek dituztenak ere.

k) Euskararen jakintza-mailari dagozkion titulu eta ziurtagiriak homologatzeko prozedura aurrera eramatea, izan agiriok Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailek edo horien mendeko erakundeek emandakoak, izan hizkuntza-eskola ofizialek emandakoak, edo izan berez helduen euskalduntzearen arlotik kanpo egonda ere euskara irakasten duten beste erakunde batzuek emandakoak. Halaber, dagoeneko homologatuta daudenak eguneratzea edo/eta egokitzea dagokio. Horretarako, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan jasotako aurreikuspenak beteko ditu, besteak beste, eta, ondorioz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari atxikita dagoen Baliokidetzen Jarraipen Batzordeari esleitutako eginkizunak zuzenduko ditu.

l) Euskaratik beste hizkuntza batzuetara edo beste hizkuntza batzuetatik euskarara zinpeko itzultzaile eta interprete aritzeko habilitazio profesionala lortzeko prozesuak kudeatzea, eta, horrekin batera, profesional horien erregistroa sortzea.

2.– Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, esleitu zaizkio funtzioak gauzatzeko, honako zuzendaritza hauek izango ditu hierarkikoki bere mendean:

a) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza.

b) Euskara Sustatzeko Zuzendaritza.

c) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza.

3.– Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea erakunde autonomoa (HABE), azaroaren 25eko 29/1983 Legean ezarritakoarekin bat, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari atxikita dago, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bidez.

4.– Euskararen Aholku Batzordea, uztailaren 11ko 132/200 Dekretuan ezarritakoarekin bat, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari atxikita dago, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bidez.

http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-17894/eu/contenidos/organo/1536/eu_4536/hps.html

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak zenbait alorretara bideratzen ditu euskara sustatzeko eginkizunak; besteak beste, 5. taulan adierazten direnetara:

Alorrak	Zer dira	Jarduerak
Lan-Hitz	Euskara lan-munduan sustatzeko ekimena	• Diru-laguntza deialdia. • Finantza-etxeen neurgailua: euskararen erabilera-adierazleak neurtzeko aplikazioa. • Telefonoa euskaraz konfiguratzeko aplikazioa. • Agiri-ereduen bankua.
Toponimia	Tokien izenak euskaraz	• Toponimiaren datu-basea.
Soziolinguistika	Euskararen egoeraren berri ematea	• Euskal Herriko hizkuntza adierazleak (EAS). • Euskararen berripapera. • Argitalpen soziolinguistikoak.
Literatura	Euskarazko literaturari buruzko informazioa	• Euskal Literaturaren sarrera. • Euskal Idazle Klasikoak bilduma. • Lotura interesgarriak. • Literatura Unibertsala. • Euskadi Literatura Sariak. • Bidegileak. • Euskara mintzagai.
Hiztegiak eta Banku Terminologikoak	Hiztegiak eta terminologia-bankuak	Web-orri honetan, zerrenda: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-17894/eu/contenidos/informacion/3091/eu_2411/eu_12412.html

Euskararako Softwarea	Euskaraz erabiltzeko softwarea deskargatzeko aukera	Web-orri honetan, zerrenda: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-17894/eu/contenidos/informacion/euskarazko_softwarea/eu_9567/aurkib.html
Elebide	Hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzua	150/2008 Dekretua
Sentiberatzea	Euskararekiko sentiberatasuna piztea	Europako Hizkuntza Azokan parte hartzea. Publizitatea.

5. taula. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskara sustatzeko dituen alorrak (http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-17894/eu/contenidos/organo/1536/eu_4536/hps.html).

Horretaz gainera, zenbait proiektu diru-laguntza publikoz laguntzen ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, eta baditu hitzarmenak zenbait erakunderekin; besteak beste, Euskaltzaindia, Euskara Elkarteen Topagunea, Labayru, UPV/EHUko Euskara Institutua, Unesco Katedra, EUDEL, UEMA, Tokikom, Euskal Herriko Bertsozale Elkartea, ONCE, EIZIE, Galtzagorri, Victoria Eugenia, Mintzola, Nafarroako EKE eta Euskararen Erakunde Publikoa-Iparraldeko Office Publique de la Langue Basque erakunde eta elkarteekin.

Horrekin batera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hainbat proiektu eta lurralde-plan jarri ditu abian; esaterako, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, zeina era honetan definitzen baita:

> Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da, hizkuntza-politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarrizko tresna.
>
> EBPNren helburu nagusia honako hau da: euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-

> politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea (http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/941/eu_2383/eu_12372.html).

Bukatzeko, lurralde-mailako plan handiez gainera, badira euskara sustatzeko zenbait plan eremu txikiagoetan egiten direnak; mikroplanak deritze, eta erakunde, talde edota norbanakoen mailan gauzatzen dira (Zarraga eta lag., 2010). Haien adibide ditugu enpresa handietan egiten diren planak, Kuadrillategi egitasmoa (http://www.kuadrillategi.com/) eta mintzapraktika-programak (www.mintzapraktika.org).

2.5. Euskara Interneten

Intenetek, izatez, izaeraeleaniztuna du, hizkuntza guztiek parte har baitezakete; gainera, hizkuntza gutxituentzako baliabiderik onena da, nahi dugun hizkuntzan mezu bat bidali edota web-orri batean edozer motatako idatzia egin baitaiteke denbora-tarte oso txikian. Hizkuntza gutxitua duten zenbait tokitan —Europako lurralde batzuetan, kasurako—, hizkera birtuala erabiltzen duten komunitateak sortu dira:

> Internet es el medio ideal para las lenguas minoritarias, y puede suponer una auténtica tabla de salvación para algunas de ellas (…). Actualmente con las páginas web y el correo electrónico el mensaje puede emitirse prácticamente al instante, en su propia lengua —acompañado de una traducción, si queremos— ante una audiencia global cuyo tamaño potencial convierte a las audiencias de los medios de comunicación tradicionales en minúsculas en comparación. Los mensajes colocados en la Red, además tienen una permanencia que no consiguen las referencias en los periódicos ni en la radio. Los chats ofrecen muchas posibilidades a los hablantes de una lengua que viven aislados, ya que ahora pueden crear una comunidad de habla virtual de la que formar parte. Algunas de las lenguas con menos hablantes del mundo que tienen acceso a la tecnología de Internet, como las lenguas minoritarias de Europa y muchas de las nativas norteamericanas, poseen actualmente sitios web y fomentan comunidades de habla virtual. (Crystal, 2005: 110)

Hala ere, ez da erraza izaten hizkuntza gutxitu edo txiki batentzat Interneten agertzea; alde batetik, tokiaren arabera azpiegiturak ez baitira prestatuak egoten, eta, beste alde batetik, hizkuntza jakin batzuetan, zaila izaten da ordenadore guztiek irakurtzea idazteko karaktereak. Bi arazo horiek gaindituta, garrantzitsua da Interneten jartzen dena kalitatezkoa izatea, ahalik eta jende gehienak parte hartzeko:

> Es preciso reconocer que no resulta sencilla para una lengua conseguir una presencia significativa en el ciberespacio. Para empezar, hay que contar con la infraestructura, lo cual no siempre ocurre, porque muchas de las lenguas amenazadas se sitúan en partes del mundo en las que el acceso a la electricidad es poco fiable o no existe en absoluto, en cuyo caso las prioridades están claras. Luego, para poder utilizar la tecnología actual de la Red, el lenguaje debe ser escrito, lo cual excluye a unas 2.000 lenguas que no están documentadas en absoluto. (…) Otra complicación viene dada por el hecho de que las letras específicas de algunas lenguas (especialmente las que utilizan una variedad de tildes) no son fácilmente codificables para poder ser "leídas" de forma rutinaria por los ordenadores de cualquier lugar. Finalmente, si ya se cuenta con la tecnología y la alfabetización, es preciso superar el obstáculo de la motivación. Parece existir una especie de "masa crítica" en la penetración de Internet que debe construirse en una comunidad o en un país antes de que una lengua pueda cobrar una vida virtual animada. En realidad no sirve de mucho tener uno o dos sitios sobre una lengua local en la Web. Quienes estén interesados en utilizarla o en averiguar más acerca de ella, se aburrirán pronto. El número de sitios debe aumentar hasta que, de pronto, todo el mundo esté visitándolos, participando y debatiendo sobre ellos. Se trata de un momento mágico, que hasta ahora sólo han alcanzado unos cuantos cientos de lenguas. Es preciso que haya abundantes "contenidos" de calidad en lenguas locales en la Red y, hasta que eso ocurra, se continuarán utilizando los idiomas que han conseguido acumular contenido, el inglés en particular. (Crystal, 2005: 111)

http://www.nativos.org/internet-tabla-de-salvacion-para-lenguas-minoritarias/

Euskarari dagokionez, azken urteetan Interneten zabaldu diren sare sozialek, blogek nahiz euskarazko Wikipediak euskara hedatzea ekarri dute:

> 2010. urtearen lehen hiruhilabetekoan, Euskal Herriko etxeen %61,4tan ordenagailua zegoen, (…) eta horietatik % 54,9k Interneterako sarbidea zuten beren etxeetan. Horrenbestez, 15 urte edo

> gehiagoko milioi bat lagun baino gehiago Internet-erabiltzaileak ziren. Gehienek esan zuten egunero konektatzen zirela. % 22,9k bakarrik erabiltzen zuen euskara Interneten. Hala eta guztiz ere, euskaldunen artean Internet-erabiltzaileen talde sendo eta gogotsu bat dago. Euskarazko blogek, euskarazko Wikipediak nahiz lineako zerbitzuek eta doako softwarean oinarritutako sistema eragile eta tresnen kokapenak euskara eta euskal kultura Interneten nahiz IKTetan egotearen aldeko apustua egin dute, eta, hala, euskara zabaldu dute. (Hernáez eta lag., 2012: 14)

Gainera, azken urteetan, .eus domeinua sortzeko proiektua jarri da abian. 2014ko urtetik erabilgarri dago, besteak beste, euskara hedatzeko eta beste hizkuntza indartsuagoen parean jartzeko:

> .EUS domeinua, Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitateaern Interneteko lehen mailako domeinua da. Bere helburua euskara eta euskal kultura sustatu eta Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitatea kohesionatzea da. .eus, hortaz, tresna bat da, euskara beste hizkuntzen mailan kokatzen duena, euskararen normalizazioan lagunduko duena eta euskararen herriari nazioarteko aitortza eskaintzen diona.
>
> .eus domeinuaren proiektuak 2007an eman zituen lehen urratsak eta 2008an PuntuEus Elkartea eratu zen, Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitatea egituratzeko helburuarekin.
>
> 2008tik 2012ra zabaltze prozesuan egon da eta guztira 58 elkarte eta erakundek osatzen dute PuntuEus Elkartea. 2012an, PuntuEus Elkarteak PuntuEus Fundazioa sortu zuen eta azken hau izan zen ICANNen aurrean 2012ko maiatzean .eus domeinuaren eskaria aurkeztu zuena. Eskari hori ebaluatu eta 2013ko ekainaren 14an jakin genuen .eus domeinua onartua izan zela. Eta martxan jartzeko beharrezko lanak bukatu ondoren, 2014ko udaberritik ikusgarria da .eus domeinua Interneten.
>
> http://www.domeinuak.eus/eu/domeinua/

2.6. Hizkuntza gutxituak eskolan: elebitasunari buruzko esperientziak

Elebitasunari buruz asko idatzi da; alegia, hainbat alderditatik aztertu da zer motatako eragina duen haurren garapen kognitiboan. 1928an, elebitasunaren ondorio negatiboei buruz hitz egin zen Luxenburgon egin zen bilkura batean:

> Bertan lortutako ondorioen arabera, elebitasunak efektu kaltegarriak ditu elebidunaren hizkuntza baten edo bien garapen egokirako (hiztegiaren murriztea, zehaztasun gutxiko adierazpena…), eskola-atzerapen orokorra eragiten du, ideien nahasmena sorrarazten du eta nortasunean eragin ezkorra du. (Gorostiaga eta Balluerka, 2000: 95)

Ondorengo urteetan, aldatuz joan zen ikuspegi hori, eta Gorostiagak eta Balluerkak (2009) beste bi epe azpimarratu zituzten alde kognitiboan elebitasunak zuen eraginaz. 60ko eta 70eko urteetako epean, Lamberten 1962ko lana aipatzen dute eredutzat, hitzezko nahiz ez-hitzezko adimen-neurrietan elebidunak nagusi zirela erakutsi zuen lehen lana izan baitzen, aipatutako autoreen hitzetan. Gorostiagak eta Balluerkak (2009) hirugarren epe bat ere zehazten dute halako ikerketak sailkatzeko, 70eko hamarkadatik gaur egun arteko lanak biltzen dituena. Autore horien esanetan, Sánchez eta Rodríguezek (1997) zehaztutako prozesamendu kognitiboarekin lotura duten bost ikerketa-eremuren arabera sailkatu dira zenbait lan, eta, bakoitzaren arabera, elebidunen eta elebakarren emaitzak irakur daitezke. Bost alor horiek dira arrazonamendu abstraktua, gaitasun aritmetikoa, gaitasun espaziala eta berarekin erlazionatutako alderdiak, estilo kognitiboak, eta hitzezko informazioaren prozesamendua.

Behin baino gehiagotan esan ohi da hizkuntza erabat lotuta dagoela identitatearekin, gizartearekin eta hiztun-taldearen ezaugarriekin; gainera, hizkuntzak gizartean elkarrekin egotea aberatsa da:

> El bilingüismo siempre le aporta algo importante a la sociedad, le aporta otras formas de ver el mundo, otras concepciones de vida, otras formas de interpretación y es una riqueza muy importante. (A. González Moncada, 2009: 25)

Baina zer da elebitasuna? Kontzeptu horren inguruan, zenbait definizio eman dira urteetan zehar; besteak beste, Erriondok 1993ko tesi-lanean jasotakoak ekarri dira lerrootara:

> Elebiduntasunaz hitz egiterakoan, ikus dezagun lehenik eta behin nola defini izan den. Elebiduntasunari buruzko zenbait definizio jaso ditu Lewis Balkanek (1979), hala nola:
>
> -Haugen: "elebiduntasuna, hizkuntza bat erabiltzen duen norbaitek beste hizkuntzan esanguratsuak diren esaldi osoak adieraz ditzakeenean hasten da".
>
> -Von Weiss: "elebiduntasuna, hiztun bakar batek aktiboki zein pasiboki bi hizkuntzetan egiten duen zuzeneko erabilpena da".
>
> -Christopherson: "elebiduna, bi hizkuntza, hizkuntza bakoitzeko hiztun elebakarraren antzeko gaitasun mailarekin ezagutzen dituen norbait da"
>
> Beranduago Michel Paradis-ek (1987an) elebiduntasuna orokorrean, aldizka bi hizkuntza erabil ahal izateko ahalmena bezala definitu zuen. Errealitatean ez dela hain argia ere azpimarratu zuen eta hau dela eta, elebidun mota desberdinak daudela ohartarazi eta hauek sailkatu zituen. (Erriondo, 1993: 55)

Erriondok zenbait elebidun mota aipatu zituen bere tesi-lanean (1993), zenbait autoretan oinarrituta. 6. taulan agertzen da Erriondok 1993an emandako informazioa, autoreak, elebidun motak eta bakoitzaren definizioa kontuan hartuta:

ELEBIDUN MOTAK	AUTOREAK
<u>Elebidun konposatuak</u>: 2Hz 1Hren ingurumari berean jabetu direnak. **<u>Elebidun koordinatuak</u>: 2Hz 1Hren ingurumariaz beste batean jabetu direnak.**	Ervin eta Osgood (1954)
<u>Elebidun konposatuak</u>: H2ko hitz berri bakoitza H1eko beste bati lotuta ikasten du. Bi hizkuntzetan, itzulpen baliokidea izenekoa jartzen da martxan. Eskolan eta metodo "klasiko"en arabera	Balkan (1975)

ikasitakoen artean ikus daiteke. **<u>Koordinatuak</u>: berezko egoeretan jabetu da H2z, eta, askotan, garai batean baino gehiagotan.** **<u>Elebidun orekatuak</u>: Bloomfield-en definizioarekin bat datozenak.** **Gaitasun guztiak era berean garatzen dira, edozein komunikazio-egoerari aurre egiteko bi hizkuntzetan.** **Sarritan eztabaidatu da elebidun mota horri buruz, funtzio komunikatiboen araberako aukeraketa egin baitaiteke.**	
Elebidun motak elebitasunaren hiru egoeraren arabera bereizten dituzte. **<u>Eleparekotasuna</u>: bi hizkuntzak erabiltzea jatorrizko hiztunek erabiliko lituzketen moduan.** **<u>Ekilinguismoa</u>: bi hizkuntzen ezagutza orekatua adierazten du, baina, aurreko kasuan ez bezala, egoera horretan dagoen hiztunak ez ditu erabiltzen H1 eta H2 jatorrizko hiztunek bezala.** **<u>Sasielebitasuna</u>: bi hizkuntzak erabiltzen dira ideia bakar bat adierazteko, ez baitira gai hizkuntza bakar batean (H1 edo H2) osoki eta behar hainbat adierazteko.**	Rondal eta Comblain (1991)

6. taula. Elebidun motak zenbait autoreren arabera (Erriondo, 1993: 56-59).

Elebitasuna erabat lotuta dago hibridazio kontzeptuarekin, hau da, bi hizkuntza dakizkigunean eta biak erabiltzen diren lurralde baten bizi garenean, bata edo bestea aukeratzen dugu, erabilera-arauen arabera:

> El terme hibridació amaga, al capdavall, un conjunt complex de costums i procediments amb què les persones organitzen els seus usos lingüístics quotidians: les normes d'ús (amb qui parlen quina llengua i com ho decideixen). (Pujolar i Cos, 2010: 7)

Eskola-eremuan, erabateko garrantzia izan du elebitasunak; izan ere, irakaskuntzan aritzeko, elebitasun-eredu bat baino gehiago egon dira urteetan zehar. Ondoren, Fishmanen (1976) eta Hornbergeren (1991) sailkapena aurkezten da (6. taula), Jiménez eta Rico-Martínek 2012an egindako lanetik aterata:

IRAKASKUNTZA ELEBIDUN MOTAK	AUTOREAK
Mantentzezko irakaskuntza elebiduna edo babes linguistikoa (Appel eta Muysken, 1996): ▪ **Kasu honetan, hizkuntzari berari eta talde etnikoaren identitate kulturalari ematen zaio indarra.** ▪ **Gutxiengoaren hizkuntza eskolaldiaren hasieran eta ondoren ere erabiltzen da: era indartsuan lantzen da elebitasuna.** ▪ **Otheguyk eta Ottok bi azpimultzo bereizi zituzten, 1980an:** • **Mantentze estatikoa: eskolara heltzen den eran mantentzen da ikaslearen hizkuntza, trebetasunik landu gabe.** • **Mantenimendu ebolutiboa: ikasleak ama-hizkuntzan dituen gaitasunak garatzeko ahalegina egiten da.**	Fishman (1976) eta Hornberger (1991)

Irakaskuntza elebidun iragankorra:

- **Ikaslea (bai sozialki, bai kulturalki) eta haren ama-hizkuntza hizkuntza indartsuaren komunitatean barneratzen dira.**
- **Era ahul batean lantzen da elebitasuna: gutxiengoaren hizkuntza lehenengo ikasturteetan erabiltzen da, hezkuntza-sisteman ondo barneratzeko eta eskola-porrota ekiditeko, baina, gero, ez.**

7. taula. Irakaskuntza elebidun motak, Fishmanen (1976) eta Hornbergeren (1991) arabera (Jiménez eta Rico-Martín, 2012: 151).

Ferguson, Houghton eta Wellsek (1977) irakaskuntza elebidunaren bidez zer helburu lortu behar diren zerrendatu zuten:

- Gizarte menderatzailean barneratu.
- Gizarte eleaniztuna bateratu.
- Komunikazio-gaitasuna garatu, kanpoan komunikatzeko.
- Lanerako hizkuntza-trebetasunak landu.
- Identitate etnikoa eta erlijiosoa zaindu.
- Komunitate politiko eta linguistikoen artean bitartekotza egin eta adiskidetu.
- Kolonizazio-hizkuntza hedatu, herrialde oso bat hizkuntza horretan mintzatzeko.
- Eliteko taldeei indarra eman.
- Legearen aurrean estatus berbera eman eguneroko bizitzan ez duten hizkuntzei.
- Kultura eta elkar ulertzea sakondu.

(Jiménez eta Rico-Martín, 2012: 154)

1997an, Bakerrek eskolako irakaskuntza elebidunerako eredu ahulak zein ziren zehaztu zuen (8. taula):

PROGRAMA	AZALPENA
MURGILTZEA:	• Umearen ama-hizkuntza erabat baztertzen da. • Noizean behin, lehen hizkuntzaren inferentzia batzuk onartzen dira; betiere, gehiengoaren hizkuntza ahalik eta lasterren ikasteko. • Sarritan, desmotibatuta eta bere burua gutxituta sentituko da ikaslea.
MURGILTZEA (ESKOLA-ORDUAK KENDUTA):	• Espainiako estatuan gehien baliatzen den eredua. • Laguntzeko eskola-orduak ematen zaizkie, trebetasunak lantzeko. • Beharrizan bereziko haurtzat hartzen dira.
SEGREGAZIONISTA:	• Afrikako zenbait herrialdetan baliatzen den eredua. • Gutxiengoaren hizkuntza eta gehiengoaren hizkuntza hitz egiten duten hiztunak erabat bereizirik izatea. • Ondorioa: gutxiengoaren hizkuntza dutenek maila soziopolitiko baxuagoa.

SEPARATISTA:	• Ideologia politiko eta kulturalarekin bat dator. • Gutxiengoaren hizkuntza eta kultura dutenen aldarrikapena da. • Gutxiengoaren hizkuntzan soilik egiten da lan.
IRAGANKORRA:	• Eskolaldiaren hasieran, umearen ama-hizkuntzan ematen dira eskolak, eta, ondoren, gehiengoaren ama-hizkuntzan.
OROKORRA (ATZERRIKO HIZKUNTZAREKIN):	• Herrialdeko hizkuntza ofizialean ematen dira eskolak. • Atzerriko hizkuntza beste ikasgai bat balitz bezala irakasten da. • Eskolaldia bukatu ondoren, ikasleak gutxitan izaten dira elebidunak.

8. taula. Irakaskuntza elebidunerako eredu ahulak (Baker, 1997). Taula honetako informazioa Jiménezen eta Rico-Martínen (2012) lanetik aterata eta itzulita dago.

Eredu ahulekin batera, indartsuak ere zehaztu zituen Bakerrek (9. taula):

PROGRAMA	AZALPENA
IMMERTSIOA:	• 1965ean hasi zen, Kanadan, Montrealen. • Guraso-talde baten nahia izan zen: Haur Hezkuntzako haur elebidun eta bi

	kulturadunak egin nahi zituzten (ingelesa/frantsesa). • Baldintzak: –Hizkuntza biek prestigiodunak eta gehiengoarenak izatea. –Hezkuntza elebiduna behartua ez izatea. –Irakasleak elebidunak izatea. –Hizkuntza-komunikazioa benetakoa izatea, ez imitaziozkoa, eta ikaslearen beharrizanak kontuan izatea. –Ikasle guztiak batera izatea, ez banatuta.
ONDARE-HIZKUNTZA MANTENTZEA:	• Ikaslearen ama-hizkuntza (hizkuntza instrumentala) eta herrialdeko hizkuntza ofiziala biak lantzen dira. • Sarritan herrialdeko hizkuntza ez dator bat hizkuntza ofizialarekin: estatu batuetako adibidea.
NORABIDE BIKOITZA / BI HIZKUNTZA:	• Ikasle kopuru berberak du gehiengoaren edo gutxiengoaren hizkuntza. • Bi hizkuntzatan lan egiten da. • Irakaslearen laguntzaile gisa aritzen dira hizkuntzetako bat ondo dakiten ikasleak. • Irakaskuntza mota hori oso ondo onartua dago gutxiengoaren hizkuntza

	duten taldeetan.
IRAKASKUNTZA ELEBIDUN OROKORRA:	• Hizkuntza biak lantzen dira, era berean.

9. taula. Irakaskuntza elebidunerako eredu indartsuak (Baker, 1997). Taula honetako informazioa Jiménezen eta Rico-Martínen (2012) lanetik aterata eta itzulita dago.

2.7. Jarduera didaktikoa: "Eskolarako hizkuntza eskubideen dekalogoa"

Jardueraren deskribapena:

Sortu hizkuntza gutxituen eskubideen aldeko dekalogo bat eskoletarako.

Lan-sekuentzia:

-Dokumentazioa irakurri eta gogoeta egin.

-Dekalogoa idatzi.

-Gomendatzen dizugu sare sozialetan zabaltzea; hala, gaiaren gainean interesa duten pertsonen feedback-a jasoko dugu, gogoeta egiten jarraitu ahal izateko.

Materiala eta gomendioak:

-Irakurtzeko dokumentazioa eta non aurkitu daitekeen:

"Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala"
http://www.hikhasi.eus/docs/55/DEKLARAZIOA.pdf

"Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna"
http://www.erabili.eus/zer_berri/galdezka/1085524537

"La protección de las lenguas minoritarias en Europa: hacia una nueva década"

http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/adjuntos/Lenguas%20Minoritarias.pdf

“Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia-markoa”
http://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/oinarrizko_kontzeptuak/es_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf

“Euskara, immigrazioa eta hizkuntza-eskubideak”
http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/euskara_immigrazioa.pdf

Ebaluazioa:

Dekalogoa egokia den ala ez zehazteko, errubrika hau erabil dezakezu:

	Bai	Ez
Hamar esaldi ditu dekalogoak.		
Irakurritako dokumentuen ideia nagusiak laburbiltzen ditu.		
Esaldiak laburrak dira.		
Esaldiak ondo eraikita daude, eta ulertzen dira.		
Erakargarria da irakurlearentzat.		

10. taula. Dekalogoa ebaluatzeko errubrika.

3. Euskal Herriko beste hizkuntzak eta kulturak

3.1. Euskal Herri eleaniztuna: etorkinen hizkuntzak gure gizartean

Hirugarren atal honetan, gaur egungo Euskal Herria osatzen duten beste hizkuntzez eta kulturez arituko gara; estereotipoen gainetik, eleaniztasunari eta kultura-aniztasunari buruzko gogoeta sakona egingo dugu. Horretarako, Euskal Herrira etorritako pertsona etorkinen egoera soziokultural eta soziolinguistikoa aztertuko dugu, baita hizkuntza etorkinen tratamenduak eskolan zer ezaugarri izan behar dituen ere.

Gaur egungo gizartearen ezaugarririk deigarrienetakoa hizkuntza-aniztasuna da. Itziar Idiazabal adituak dioenari jarraituz, gizartearen berezko ezaugarri arrunt bat da eleaniztasuna. Erkidegoak, estatuak eta gizarteak, oro har, ez dira inoiz elebakarrak izan, ezta izango ere (Manterola eta Berasategi, 2011: 7).

Euskal Herria osatzen duen gizartea ere fenomeno horretan murgilduta dago. Hala, hamaika soinu ezberdin entzuten dira gure karriketan; ehunka hizkuntza bizi dira EAEko hizkuntza ofizialekin batera. Hala ere, hizkuntza horien hiztunen jatorria aldatuz joan da urteetan zehar, baita etorkinen kopurua ere.

Ikuspegik 2015ean argitaratutako txosten baten arabera, gaur egun, 137.397 pertsona etorkin bizi dira EAEn, hau da, biztanleriaren % 6,3. Esan beharra dago erroldatuta dauden etorkinenak direla datu horiek. Aurreko urtearekin alderatuz, % 2,8 etorkin gutxiago dago; beraz, azken urte hauetako joerak aurrera jarraitzen du: etorkin kopurua, gutxinaka bada ere, behera doa (Ikuspegi, 2015).

Lurraldez lurralde, Bizkaian dugu etorkin kopuru handiena (65.041 pertsona); ondoren, Gipuzkoan (46.408), eta Araban bizi dira gutxien (25.948). Hala ere, etorkinen pisua ezberdina da lurralde bakoitzean, lurraldeko biztanle kopuru osoa kontuan izanez gero. Kasu horretan, % 8 du Arabak, Bizkaiak (% 5,7) eta Gipuzkoak (% 6,5) baino ia bi puntu gehiago. Horri erantsi behar diogu Bizkaian jaitsi dela nabarien etorkin kopurua. Ikuspegiren (2015) txostenean azaltzen den bezala, 2001etik gertatzen ari dena berretsi egiten du horrek, hau da, ehunekotan, Araba da atzerriko biztanle gehien duen herrialdea; ondoren, Bizkaia, zeina Espainiako estatuko batezbestekotik beherago dagoen, eta, azken tokian, Gipuzkoa, zeina, Espainiako estatuko datuekin konparatuta, batezbestekoan dagoen kokatuta.



	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
CAPV	0,7	0,8	1,0	1,3	1,8	2,3	2,8	3,4	4,0	4,6	5,4	6,1	6,4	6,7	6,9	6,8	6,5	6,3
Araba/Álava	0,9	1,0	1,3	1,9	2,8	3,6	4,1	5,1	5,6	6,4	7,4	8,3	8,9	9,0	9,4	8,8	8,3	8,0
Bizkaia	0,7	0,7	0,8	1,2	1,7	2,1	2,6	3,2	3,8	4,4	5,1	5,7	6,0	6,3	6,5	6,4	5,9	5,7
Gipuzkoa	0,8	0,9	1,2	1,3	1,7	2,2	2,7	3,1	3,7	4,2	5,1	5,8	6,0	6,2	6,5	6,5	6,5	6,5

12. grafikoa. Etorkinen garapena EAEn 1998tik 2015era (Ikuspegi, 2015: 2).

Nahiz eta etorkin kopurua jaitsi den, EAEko aldaketa minimoa da, Espainiako estatuko beste autonomia-erkidegoekin konparatuz (2. grafikoa).



13. grafikoa. Biztanle etorkinaren garapena EAEn, beste autonomia-erkidegoekiko konparaketa (Ikuspegi, 2015: 2).

Orain arte, gaur egungo datuak aurkeztu ditugu, baina migrazioaren garapena ez da homogeneotasunez gauzatu denboran. Ikupegik (2015) bost fase zehazten ditu txostenean:

MIGRAZIOAREN BILAKAERA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN

Hastapenak	1998-2000	Atzerriko immigrazioa gero eta errealitate garrantzitsuagoa bihurtu zen. Hazkundea areagotzen hasi zen, eta, 1998tik 2000ra, 1.600 inguru izatetik 6.300 inguru izatera iritsi ziren atzerritarrak.

Finkatzea	2001-2003	Urteak aurrera joan ahala, 10.000 atzerritar baino gehiago erroldatu ziren. Migrazio fenomenoa finkatu egin zen EAEn, eta garrantzitsu bihurtu.
Areagotzea	2004-2008	Bost urte horietan gertatu zen migrazio-hazkunde handiena. Hazkunde-erritmoa, gelditu beharrean, bizkortu egin zen; 2007an izan zen erroldatze berrien tasa handiena; 18.813 erroldatze berri, hain zuzen.
Krisiaren eragina	2009-2012	Krisi ekonomikoa asko nabaritu zen, eta hazkunde-erritmoa nabarmen jaitsi. Hala ere, immigrazioak gora egiten jarraitu zuen 2009-2011 bitartean, eta migrazio-fenomenoaren aldia hasi zeneko maila berera heldu zen, hau da, 5.000 erroldatze berri baino gehiago.
Krisiaren ondorioen finkatze-aldia	2013-2015	Lehen aldiz, nazionalitate atzerritarreko 3.017 pertsona gutxiago zeuden, hau da, % 2ko murrizketa izan zen; jaitsiera hori 2014an areagotu zen, beste 7.561 pertsonarekin (-% 5,1), eta, 2015ean, beste 3.919rekin; guztira, % 2,8ko murrizketa izan zen.

11. Taula. EtorkinEN mugimenduaren garapena (Ikuspegia, 2015: 3).

Beste faktore batzuk ere izan ohi dira kontuan etorkinen gaineko datuak biltzeko orduan; horien artean ditugu sexua eta jaioterria. Sexuari helduz, ezberdintasunak aurkitzen ditugu. Etorkinen artean, % 51 gizonak dira, eta % 49, emakumeak. Ezberdintasun hori areagotu egiten da Araban: gizonak % 53 dira, eta emakumeak, % 47. Gertaera horren arrazoia zera da: Arabako etorkinak Afrikatik etorriak dira (batez ere, magrebtarrak), eta, kolektibo horren barruan, gizonek gehiago emigratzen dute. Hala ere, gizon baino emakume gehiagok lortzen dute espainiar herritartasuna.

Bestalde, nazionalitate-taldeei dagokienez, migrazio-fluxuen jatorria aldakorra izan da EAEn (12. taula). Lehenengo aldi batean, hegoamerikarrak ziren nagusi; ondoren, errumaniarrak, eta, 2009tik gaur egun arte, magrebtarrak dira protagonistak. Izan ere, hegoamerikarrena izan da krisiaren ondorioz gehien joan den etorkinen nazionalitate-taldea, eta, bestalde, nazionalitate espainiarra bi urteko erresidentziarekin eska dezake talde horrek.

ETORKINEN NAZIONALITATE-TALDEEN BILAKAERA	
2003-2004 ALDIA	Nabarmena izan zen latinoamerikarren migrazio-hazkundea; izan ere, atzerritar guztien ia erdia ziren (% 48,4); 2007ra arte mantendu zen tasa hori.
2006tik AURRERAKO ALDIA	Gainerako Europako biztanleriaren migrazio-hazkundea hasi zen, batez ere errumaniarrena. 2007an, Errumania Europar Batasuneko kide bihurtzearen ondorioz, erroldatutako atzerritar guztien % 27,3ra iritsi zen, 2008an, nazionalitate horren pisua.
2009tik 2015era	Magrebtarrak (batez ere marokoarrak) izan dira hazkundearen protagonista: 2007an % 11,8 izatetik 2015ean % 18,4 izatera pasatu dira. Gainera, 2012az geroztik, marokoarrak dira EAEko atzerritar gehienak.

12. taula. EAEn Etorkinen bilakaera nazionalitate-taldeen ikuspegitik (Ikuspegi, 2015:4).

2015. urtean, nazionalitateei dagokienez, Hego Amerikako bost daude hamar nagusien artean (Bolivia, Kolonbia, Paraguai, Nikaragua eta Brasil), Europar Batasuneko bi (Errumania eta Portugal), Afrikako bi (Maroko eta Aljeria) eta Asiako bi (Txina eta Pakistan) (Ikuspegi, 2015: 7).

Baina garrantzitsuena ez da zenbat dauden, asko ala gutxi diren, baizik eta zer eskubide izan behar dituzten eta zer eraldaketa dakarten gizarteetan migrazio-mugimenduek.

Euskal Herria harrera-gizarte bilakatzea da ondoriorik nabarmenena. Retortillos eta lagunek (2008) *Inmigración y modelos de integración: entre la asimilación y el multiculturalismo* lanean azaltzen dutenari jarraitzen badiogu, edozein harrera-gizartek hiru erantzun posible ditu kultura-aniztasunaren aurrean: asimilazioa, kultura-aniztasuna eta interkulturalitatea.

Azken horrek kultura desberdinekiko aitorpena onartzen du, hau da, errealitate aniztunen elkarbizitza, ulermena eta inklusioa bultzatzen ditu.

Hori horrela izanik, gizartean, kohesioa eta ongizatea lortzeko bultzatzen diren immigrazio-politikek oso kontuan izan behar dute zer-nolako garrantzia duten norberaren kulturak eta hizkuntzak gizakiontzat, eta baita zer balio erantsi duten kulturak eta hizkuntza-aniztasunak harrera-gizartearentzat. Horregatik, politikan, etorkinen jatorrizko hizkuntzak eta kulturak aintzat hartzen dituen bidea jorratu behar da (Zapata, 2007). Horretarako, bi alderdi izan behar dira kontuan: bata, etorkinen harrera-gizartearen nortasun kulturala eta hizkuntza bereganatzea,

eta bestea, etorkinentzako harrera-gizartea den horrek haien jatorrizko identitate kulturala aitortzea (Alonso, 2015).

Ildo berean, etorkinek dakartzaten hizkuntzetan zentratuz gero, esan beharra dago, aurretik aipatutako etorkinen nazionalitateekin lotuta bederatzi hizkuntza funtzional azaltzen badira ere, errealitatea askoz ere askotarikoagoa dela eta ehun ama-hizkuntza baino gehiago daudela EAEn (Uranga eta lag., 2008). Kontinente guztietako hizkuntzak entzun ditzakegu gure hiri eta herrietako karriketan.

Aurretik aipatu dugun bezala, magrebtarrena da gure herrialdean etorkin kopuru handiena biltzen duen taldea. Afrikako hizkuntza gutxi batzuk ekartzen dituzte: arabiera estandarra eta haren aldaerak, eta tamazigha edo bereberea, batez ere.

Baina, Afrika osoan, 2.138 hizkuntza daude (Uranga eta lag., 2008); munduko kopuru osoaren % 30. Hizkuntza gutxik dute ofizialtasuna; hiztunek, aldiz, Afrikako erdialdekoek eta hegoaldekoek batik bat, komunitateko hizkuntzaz gainera, eskualdeetako hizkuntzetan eta estatuko hizkuntza ofizialetan ere hitz egiten dute. Hala, ezin ahatz dezakegu europar jatorriko hizkuntzak (frantsesa, ingelesa eta portugesa) ezagutzen eta erabiltzen direla Afrikan, kolonizazioaren eraginez, eta hizkuntza ofizial ere badira. Beraz, Afrikako etorkinek hizkuntza sorta handia dakarte gure herri, auzo eta, nola ez, eskoletara ere (3. irudia).



3. irudia. EAEra etorritako afrikar etorkinen hizkuntzak (Uranga eta lag. 2008; Aramendi, 2015).

Amerikako hizkuntzei dagokienez, Euskal Herrian gutxien entzuten diren hizkuntzak dira(4. irudia). Nahiz eta Amerikako hizkuntza indigenen kopurua oso handia izan, 170 hizkuntza baino gehiago daude Brasilen bakarrik; oso hiztun kopuru txikia du hizkuntza bakoitzak. Gainera, gurera heltzean, beren herrialdeetan ere ofiziala den gaztelania erabiltzera jotzen dute pertsona horiek.

4. irudia. Amerikatik etorritakoen hizkuntzen mapa (Uranga eta lag. 2008; Aramendi, 2015).

Asian ere, antzeko zerbait gertatzen da hizkuntzekin. Munduko hizkuntzen % 33 hitz egiten da Asiako kontinentean –2.301 hizkuntza inguru, besteak beste–: Indonesian, 660; Indian, 398, eta, Txinan, 205. Hala ere, hizkuntza ofizial bakarra dago herrialde gehienetan: arabiera, ingelesa edo txinera. Nolanahi ere, kasu batzuetan, hindiarekin, punjabierarekin edo tagaloarekin partekatzen dute ofizialtasuna. Baina, Euskal Herrian, Asiatik etorritako etorkin kopurua oso txikia da (% 3,5); beraz, horrelako hizkuntza gutxi daude gure artean, baina egon badaude, eta aintzat hartu behar ditugu (Aramendi, 2015).

Europan, 286 hizkuntza daude –munduko hizkuntzen % 3, gutxi gorabehera–, baina 35 hizkuntzek bakarrik dute ofizialtasuna. Islandia, Liechtenstein eta Vatikanoa izan ezik, Europako estatu gehienak eleaniztunak dira; dena den, hizkuntza ofizial bakarra dute gehienek (Uranga, 2008). Euskal Herrira Europako herrietatik datozen biztanleek hizkuntza hauek dakartzate: nederlandera, daniera, alemana, finlandiera, suediera, italiera, portugesa, frantsesa, ingelesa, gaelera, azerbaijanera, armeniera, georgiera, mingreliera, svanera, greziera, bulgariera, serbiera, errusiera, ukrainera, hungariera, errumaniera, errusiera, kalmukera, poloniera, bielorrusiera eta lituaniera.

Hizkuntza horiek guztiak euskararekin eta gaztelaniarekin batera bizi dira EAEn, euskara eta gaztalania ofizialak izanik. Baina, liburu honen hasierako kapituluetan aipatu dugun bezala, Euskal Herriaren ezaugarri nabarmenena euskara da, hau da, bi hizkuntza ofizialetatik bat gutxitua dela eta azken urteotan lan handia egin dela bai gizartean baita erakundeetan ere euskara berpiztu eta mantentzeko. Etorkinak eta hizkuntza-aniztasuna euskararentzako arrisku gisa ikusi izan dira askotan, baina, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak adierazitakoaren ildotik (2015), fidagaiztasun horri uko egin behar diogu, bai gizartean, bai eskolan, etorkinengana eta haien hizkuntzetara mesfidati gerturatzeak guregandik urrundu eta gaztelanian babestera eramango dituelako. Horrez gainera, ohartu beharra dugu euskararen egoera gutxitua ez dela inolaz ere etorkinen eta hizkuntza etorkinen errua, eta hizkuntza gehiagoren agerpena ez dela arazotzat hartu behar, baizik eta euskararentzako erronka berri bat bezala. Beste jatorri batzuetako jendea ez da arriskutsua euskararen biziraupenerako, baizik eta hiztun gehiago izateko aukera bat, eta horretarako behar diren baliabideak sortu behar dira; betiere, beren ama-hizkuntzekiko errespetuan eta onarpenean oinarrituta euskara eskainiz (Alonso, 2015). Barquin eta Ruiz Bikandi (2007) irakasleek zera diote: etorkinek euskararekiko jarrera positiboa, errespetua eta, batez ere, sinpatia izan dezaten nahi badugu –hau da, euskara ikasteko eta euskaraz bizitzeko gogoa piztea nahi badugu–, etorkin bakoitzaren jatorrizko hizkuntzaz arduratu behar dugu: hizkuntza etorkinekiko jarrera positiboa erakutsi behar dugu euskaldunok eta euskal erakundeek. Hau da, helburua euskara integrazio-elementu gisa ulertzea da, baina, horretarako, gizarteak kontziente izan behar du.

Baina nola bideratu daitezke aurreko paragrafoan aurkeztutako ideiak? 2009ko Euskara, Inmigrazioa eta Hizkuntza Eskubideak jardunaldietan, Ruiz Vieytezek zenbait ideia proposatu zituen herri-erakundeek hizkuntza-aniztasuna era egokian kudeatzeko. Taula honetan laburbilduko ditugu zenbait gizarteko-esparrutarako irizpideak:

Aniztasuna	-Legearen esparruan, hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren aldeko apustu sendoa egin behar dute herri-erakundeek. Kanada dugu horren adibide. -Eleaniztasunaren aldeko politikak egiteak ez du esan nahi tokiko hizkuntza gutxitua lehenetsi behar ez denik. -Oinarri gisa, hizkuntza-aniztasuna bultzatu eta sustatzeko ahaleginak egin behar dituzte herri-erakundeek. -Gizarte batean barne-kohesioa erabatekoa izan dadin hizkuntza ofizial bakarra edo gehienez bi hizkuntza ofizial egon daitezkeela pentsatzeak kalte handia egiten dio eleaniztasunari, eta lehenbailehen

	erauzi behar da uste hori herritarren eta agintarien gogotik.
Lege-esparrua	-Zuzenbidearen esparruan, hizkuntza-aniztasuna demokratikoki kudeatzeko estrategiak eta politikak bultzatu behar dira. Laguntza handia eman daiteke zuzenbidearen esparruan, hizkuntza-eskubideen interpretazio zabalagoa eginez eta haien aldeko nazioarteko itunak eginez. -Oinarrizko eskubide zibilen interpretazio zabala aski izan liteke hizkuntza-aniztasunaren aldeko aldaketa sakonak egiteko. -Giza taldeei berez dagozkien eskubideez gainera, gizabanakoari dagozkion eskubide zibiletan hizkuntzen tratamenduak izan behar duen garrantzia azaleratu behar da. -Hizkuntzen ofizialtasuna ezin da izan zabaltasunez eta irudimenez lan egitea eragotziko digun molde zurrun bat.
Iraupena	-Hizkuntzen arloan, epe luzerako jardunbideak landu behar dira, helbururik behinena gaur egun dugun aniztasunak denboran irautea baita. - Ezinbestekoa da hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa eguneroko eztabaida politikotik bereiztea.
Ekonomia eta gizartea	-Enpresetan eleaniztasuna bultzatzeko planak diseinatu eta gauzatu behar dira. -Gizarte-erakundeetan eleaniztasuna bultzatzeko planak diseinatuko eta gauzatuko dira. -Beste lurralde batzuetako hizkuntza-komunitateetako pertsonek ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-elkarteen aholkularitza- eta zuzendaritza-organoetan parte hartuko dute.
Justizia	-Hizkuntza ez-ofizial nagusiak jendaurrean erabiltzea erregistro zibilen eta oinarrizko argibideen esparruan. -Hizkuntza ez-ofizialetan idatzita dauden agiriak ez baztertzea eta haiek itzultzeko baliabideak jartzea.
Herri-administrazioa	-Administrazio-arloko zeregin ohikoenak egiteko, telefono bidezko

	zerbitzuak eskaintzea ahalik eta hizkuntza gehienetan. -Jendaurreko administrazio-lanpostuetan langile eleaniztunak izatea.
Hedabideak	-Beren jarduera hizkuntza ez-ofizialetan eta hizkuntza gutxituetan egiten duten hedabideak sortzea eta zabaltzeko erraztasunak ematea. -Administrazioaren jabegoak diren hedabideetan beste hizkuntzen erabilera bultzatzea.
Kultura	-Hizkuntza ez-ofizialen kultura-adierazpideak sustatzea. -Euskal kulturaren ekoizpenak hizkuntza ez-ofizial erabilienetara itzultzea.
Hezkuntza	-Hezkuntza curriculumean munduko hizkuntza-aniztasunari buruzko nozioak txertatzea, ikasleek haren berri izan dezaten. Adibidez, euskal gizartean gehien hitz egiten diren kanpoko hizkuntzen gutxieneko hiztegia irakastea.

13. taula. Ruiz Vieytezen proposamena (Ruiz Vieytez, 2007: 7-8)

3.2. Hezkuntza eleaniztuna: kontzeptuak argitzen

Gaur egun, hezkuntza elebidunetik eleaniztunerako bidean goaz. Baina zer da hezkuntza eleaniztuna? Nola ulertu behar dugu?

Europako Erreferentzia Marko Bateratuan irakur daiteke hizkuntza-aniztasuna hizkuntza asko ezagutzea dela, edo gizartean hizkuntza asko aldi berean bizitzea. Eskolan edo hezkuntza-sistema batean eskaintzen diren hizkuntzak dibertsifikatze hutsarekin lor daiteke hori, ikasleek atzerriko hizkuntza bat baino gehiago ikas dezaten bultzatuz. Aldiz, ikuspuntu eleaniztuna honako hau da:

> Gizabanakoak hizkuntza baten kultur ingurunean duen hizkuntz esperientzia zabaldu ahala, hasi familia-hizkuntzatik eta gizarte-hizkuntzaraino, oro har, eta beste herri batzuetako hizkuntzetaraino gero (izan eskolan edo unibertsitatean ikasiak, edo zuzeneko esperientziaren bidez ikasiak), hizkuntza horiek eta kultura horiek ez ditu adimeneko gune berezietan gordetzen; aldiz, komunikazio-gaitasun bat garatzen du, hizkuntz arloko ezagutza eta esperientzia guztien bidez eta hizkuntzen arteko harremanaren eta elkarreraginaren bidez. Egoeraren arabera, pertsona batek malgutasunez joko du, gero,

> gaitasun horren parte bakoitzera, solaskide jakin bakoitzarekin komunikazio eraginkorra lortzeko. (Europako Kontseilua, 2005: 24)

Hori guztia jakinda, Trujilloren (2008) arabera, gizarteko eta ikastetxeetako hizkuntza-aniztasuna curriculumean eta eskolako hizkuntzen kudeaketan nola sar daitekeen erabakitzean datza gakoa. Aditu horrek Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren garrantzia azpimarratzen du, eta hura diseinatzeko eta garatzeko irizpideak azaltzen ditu.

Bestalde, badaude hezkuntza-eredu eleaniztuna bi hizkuntza baino gehiago ikasten eta erabiltzen den hezkuntza-formula gisa ulertzen dutenak. Ytsmakek, 2001. Urtean, hezkuntza eleaniztun motak sailkatzeko irizpideak zehaztu zituen. Hiru irizpide nagusi zehaztu zituen (Goikoetxea, 2006):

a. Hezkuntza hirueleduna gertatzen den testuinguru linguistikoa.

Kasu horretan ere, aipatutako adituak hiru taldetan bereizi zituen herrialdeak: lurralde hirueledunak (Luxenburgo, adibidez), lurralde elebidunak (Herrialde Katalanak, Euskal Herria eta Finlandia) eta elebakarrak (Libanoko gune batzuk, besteak beste). Hala, herrialdearen ezaugarrien arabera zehazten da hezkuntza eleaniztuna eskoletan, bakoitzari dagozkion helburuak lortu ahal izateko.

b. Hiru hizkuntzen arteko ezberdintasun edo berdintasun tipologikoa.

Hasteko, esan beharra dago era gradualean ulertu behar dela hizkuntzen arteko hurbiltasuna. Baina, Goikoetxearen (2006) arabera, zenbait ikerketak (1989an Swainek eta 1984an Mägistek egindakoek, adibidez) frogatu dute hizkuntzen arteko hurbiltasuna/urruntasuna aldagai esanguratsua dela ikasleen emaitzak arrazoitzeko orduan, hizkuntzen arteko transferrak handiagoak baitira hurbil dauden hizkuntzen artean. Hizkuntzen arteko hurbiltasuna edo urruntasuna neurtzeko, hiru bide jarraitu ohi dira:

1. Hizkuntzak hurbil daude ikuspuntu tipologikotik.
2. Hizkuntzetako batek ez du harremanik besteekin.
3. Hizkuntzek ez dute antzekotasun tipologikorik.

c. Hiru hizkuntzen irakaskuntzaren antolabidea.

Ytsmakek (2001) bi azpiatal definitu zituen hizkuntzen arteko hurbiltasuna/urruntasuna eskoletako hizkuntza-kudeaketan nola egiten den argitzeko:

1. Hiru hizkuntzak aldi berean irakasten dira.
2. Hiru hizkuntzak elkarren segidan irakasten dira.

Eskola hirueledun gehienetan, bigarren aukera eramaten da aurrera, hau da, hizkuntzak elkarren atzetik aurkezten zaizkio ikasleari, adinaren arabera, baita aldi bereko programak dituzten lurraldeetan ere (Katalunian eta Euskal Herrian, kasurako).

Euskal Herriaren kasura joz gero, elebitasunean oinarritutako ikaskuntza baten garapen gisa ulertzen da eredu eleaniztuna edo hirueleduna. EAEn, Nafarroaren egoera aldera batera utziz, 80ko hamarkadara egin behar dugu salto hezkuntza elebidunaren lehen hastapenak ikusteko. Garayk (2011b) bere doktore-tesian dioen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan, bi alderdik bultzatu zuten elebitasuna eskoletan: guraso-kooperatibek sortutako ikastolek eta 1982ko Euskararen Erabileraren Normalkuntzarako Legeak. Azken horrek eskolan bi hizkuntza ofizialak ikasteko nahitaezkotasuna ezarri zuen. Bestalde, 1983an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailak kaleratutako dekretu batek EAEko unibertsitatez kanpoko hezkuntza elebidunaren oinarriak zehaztu zituen. Ikasle bakoitzak bere hizkuntza-garapena ikusirik gehien komeni zitzaion hezkuntza jasotzeko aukera izateko bideak zabaldu zituen, eta, horretarako, gaur egun indarrean dauden A, B eta D hezkuntza-ereduak definitu zituen.

Baina atal honetako gure gaia etorkinak eta beren hizkuntzak izanda, interesgarria litzateke jakitea nolakoa den Euskal Herrira hurbiltzen diren ikasle etorkinen eta elebitasun-programen arteko harremana.

Gai horren gainean ikerketak egin diren arren, hutsune handiak daude oraindik. Garayk (2011b) dioenaren arabera, elebitasun-programak eta etorkinak binomioarekin batera datorkigun lehen ideia da ikasle etorkinak immertsioan bizi direla. Baina aditu ugarik diote (Tebar, 2005; Vila, 2004) oraindik immertsio linguistikoaren eta sumertsio linguistikoaren arteko bereizketak errakuntza ugari sorrarazten dituela elebitasunaren inguruan. Bietan gauzatzen da etxeko eta eskolako hizkuntza-aldaketa; baina, lehenengoaren emaitzak baikorrak badira ere, ez da gauza bera gertatzen bigarrenean.

Egoera horren aurrean, Tebarrek (2005) zehazten du benetan zaila dela hezkuntza elebidunaren ohiko ereduak erabiltzea ikasle etorkinekin. Bi arrazoi ematen ditu: batetik, aniztasuna izugarria denez, irakasleek ezin dituzte jakin ikasle guztien ama-hizkuntzak; eta, bestetik, hizkuntza horietariko batzuk agrafoak direnez, ezin dira erabili ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko jarduera tresna gisa. Hala ere, gure ustez, azken arrazoi hori ez da guztiz erreala: hizkuntza agrafoak erabilgarriak dira eskolako gaietarako; hori bai, hezkuntza-metodologiak eguneratzen badira eta hizkuntzaren ahozkotasuna lantzen bada eskolan.

Ildo horretan, Besalúk eta Vilak (2007) beren lanean zehazten dute, etxetik eskolarako hizkuntza-aldaketari dagokionez, eskasak direla elebitasun-programetan parte hartu duten ikasle etorkinen emaitzak. Emaitza hori azaltzeko arrazoi nagusietako bat ikasleen nortasunari lotzen

zaio: programa elebidunetan, edo, gehienetan, ikasle etorkinek ez dute sentitzen beren hizkuntza balioesten denik.

Egoera horien aurrean irtenbideak topatzea ez da erraza, baina bide horretan lagungarri izan daitezke Besalú eta Vila (2007) adituen hitzak:

> Es evidente que la movilidad implicada en la globalización, afecta más y más en el sistema educativo y, en consecuencia, a la diversidad lingüística respecto al conocimiento de la lengua de la escuela. Hemos de dejar de pensar en el grupo diverso que progresa homogéneamente a lo largo de la escolaridad. Al contrario, hemos de comenzar a pensar en que, al menos en parte, el progreso homogéneo del alumnado a lo largo de la escolaridad se ha acabado y, por tanto, en las aulas convivirán alumnos con experiencias escolares muy distintas respecto a la lengua de la escuela. Por eso, la cuestión no está en intentar repetir las condiciones organizativas de la inmersión lingüística, sino en profundizar en los aspectos de la práctica educativa que están detrás de su éxito y en las nuevas formas de organizar las escuelas que "encorseten" y posibiliten prácticas educativas exitosas […]. Organizativamente, hay dos cuestiones a tener en cuenta. Una, el apoyo lingüístico al alumnado que desconoce la lengua de la escuela ene l momento de su incorporación y, otra, la búsqueda de fórmulas que permitan la individualización del trabajo del profesorado con los alumnos y, en relación con la práctica educativa, también deben contemplarse dos cuestiones: Una, el uso de la lengua oral como el instrumento privilegiado que permite, desde la actividad dialógica, la negociación de los significados implicados en las tareas escolares y, otra, la búsqueda de apoyos lingüísticos al alumnado que vayan más allá de los que proporciona el profesorado y, por tanto, el diseño de actividades, basadas en el trabajo cooperativo, en las que diversidad lingüística sobre conocimiento de la lengua de la escuela se convierta en fuente de progreso lingüístico de todo el alumnado. (Besalú eta Vila, 2007: 93-94)

Beraz, hezkuntzako eredu elebidunaz eta hirueledunaz gainera, badago hezkuntza eleaniztuna ulertzeko beste era bat, hau da, eskolan dauden hizkuntza guztiak kontuan hartzen dituen hezkuntza izan daiteke hezkuntza eleaniztuna, tokian tokiko eta kanpotik etorritako ikasle, irakasle eta langileen hizkuntzak eta kulturak errespetatu eta agertzen dituen hezkuntza mota. Baina, bide hori hartuta ere, ezinbestekoa dugu beste kontzeptu eta hezkuntza mota batzuekin

dituen berdintasunak eta ezberdintasunak agertzea. Aipatutako hezkuntza moten artean, esan genezake hauek direla aipagarrienak: arrazakeriaren kontrako hezkuntza, hezkuntza inklusiboa, hezkuntza globala, kultura-aniztasunerako hizkuntza eta kultura arteko pedagogia (Aguado, 2003).

Orain arte esandakoa kontuan hartuta, zaila da eleaniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna kontzeptuen arteko bereizketa egitea. Lan horretarako, argibideak ematen dizkigu Europako Erreferentzia Marko Bateratuak; honela azaltzen du kontzeptu horien arteko bereizketa:

> Hizkuntz aniztasunak hizkuntza asko ezagutzea edo gizarte jakin batean hizkuntza asko aldi berean bizitzea esan nahi du. Ikastetxe batean edo hezkuntza-sistema jakin batean eskaintzen diren hizkuntzak dibertsifikatze hutsarekin lor daiteke hori, ikasleek atzerriko hizkuntza bat baino gehiago ikas dezaten bultzatuz, edo ingelesak nazioarteko komunikazioan duen nagusitasuna murriztuz. […]. (Europako Kontseilua, 2005)

Hortaz, gizarte batean hizkuntza bat baino gehiago egotea adierazten du hizkuntza-aniztasunak. Eleaniztasuna, aldiz, hizkuntzen arteko kontaktuan oinarritzen da, hizkuntzen artean gauzatzen diren harremanetan; beraz, aldi bereko presentzia hutsa gainditu nahi da kontzeptu horrekin. Azken kontzeptu horiekin bat datoz aurreko paragrafoetan aipatu eta taula honetan azalduko ditugun hezkuntza-ikuspegiak.

Hezkuntza mota	Definizioa
Arrazakeriaren kontrakoko hezkuntza	Helburu nagusia zera da: gizarte ez-diskriminatzaile bat eraikitzeko trebetasunak, edukiak eta jarrerak garatzea eskolako kide guztiengan. Hezkuntza mota horrek ez du jarrera indibidual gisa ulertzen arrazakeria. Arrazakeria definitzen duten dimentsioak lantzea proposatzen du: arrazakeria indibiduala (jarrerak eta nahiak), arrazakeria kulturala (estereotipoak, aurreiritzi sozialak, eta abar), pertsonen arteko arrazakeria (gatazkak, erasoak, jazarpena, eta abar.), erakundeetako arrazakeria (formala, legala, prozedurazkoa) eta arrazakeria estrukturala (botere-harremanak, lanaren banaketa, rolen banaketa, eta abar.)
Hezkuntza inklusiboa	Edozein sexu, adin eta gaitasun-mailako pertsona oro hezkuntzako parte aktibo bilakatzen du hezkuntza inklusiboak. Talde eta pertsona guztien ekarpenak kontuan hartzen dituen eskola da.

Hezkuntza globala	Gaur egungo eskolak dituen erronka nagusiak mundu mailan era globalean ematen diren harremanekin lotzen ditu hezkuntza globalak. Ikaskuntza kooperatiboaren estrategiak erabiliz taldearen eta pertsonaren giza trebetasunak garatzea du helburu; betiere, kulturaren eraikuntzan eta trukean oinarrituz.
Kultura-aniztasunerako hezkuntza	Kultura-aniztasunerako hezkuntza irakasle-, ikasle- eta eskola-komunitate osoko ezberdintasun kulturalak errespetatzean oinarritzen da. Ikuspuntu integratzailea du, eta autokontzientzia kulturalaren gaineko gogoeta bultzatzen du.
Kultura arteko pedagogia	Gizarteko berezko kultura-aniztasunari erantzuna ematea du helburu kultura arteko pedagogiak. Betiere, kultura-aniztasuna baliabide kultural eta aberats gisa ulertuz.

14. taula. Hezkuntza motak (Aguado, 2003: 53-67, moldatua).

Beraz, kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren errespetua garatzea da azken urte edo garaietako hezkuntzaren bidea. Gure gizartearen ezaugarriak aztertuta, aurrerantzean ere jarraitu beharko da eskoletan eta ikastetxeetan bide hori jorratzen. Beraz, garapen egokia eman beharko zaio gero eta globalagoa eta askotarikoagoa den gure gizarteak ere era egokian gara dezan bere etorkizuna.

> Lo intercultural en educación surge como etapa final en el proceso de aceptación y valoración de las variables culturales, más allá de las alternativas asimilacionistas o compensatorias y muy vinculada a formulaciones educativas afines: educación global, educación inclusiva, educación antirracista, educación multicultural. (Aguado, 2003: 62)

3.3. Hizkuntza etorkinen tratamendu didaktikoa euskal eskolan

Ikasle etorri berriek harrera-herrietako ikastetxeetara heltzen direnean duten zailtasun handienetako bat ikastetxeko hizkuntza edo hizkuntzak ikastea da.

> Eskola-hasiera zaila suerta daiteke ikasle batentzat, baina zailtasun horiek oraindik gehiago korapilatuko dira ikasleak hizkuntza berri bati eta beste kultura bateko irakasle bati aurrera egin beharrean aurkitzen

> badira. Posible da kasu hauetan, ikasleek etxetik eskolara nabarituko duten jarraitasun ezetik sentitzea, eskola ingurunean bere etxeko hizkuntza ez dela maitatua eta hortik, bera eta bere kultura ere gaitzetsiak izango direla ondorioztatzea (Vila, 1999). Hori dela eta, zenbait kasutan, ikasleek berehala garatzen dute konfiantza eza, autoestimu baxua, edo eskolarenganako atsekabea: oso jarrera ezkorra zalantzarik gabe, ikaskuntza prozesu eraginkor bat lortuko bada. Gainera, Cumminsek (1986) argudiatzen du eskolaren aldetik euren ama-hizkuntzen eta kulturen aldeko balioztatze bat sumatzeak, ikasleen autoestimu eta konfiantzan gorakada dakarrela. Hori dela eta, bere jatorrizko kulturaren eta eskolaren arteko desberdintasunen ondorioz garatutako barne gatazka lasaitzen dela eta ikasleak askoz hobeto sentitzen direla euren "azalean". (Alonso, 2015: 8)

Euskal eskolaren kasuan, eredua gorabehera, euskaran eta gaztelanian murgildu behar dira heldu berriak. Ondorioz, egoera bat baino gehiago suerta daiteke: ikasleek eskolako hizkuntza bat ere ez ezagutzea edo herrialdeko hizkuntza ofizialetatik bat ezagutzea. Gure kasuan, Hego Amerikatik datozen ume eta nerabeek badakite gaztelaniaz, baina ez euskaraz. Ikasle horiek A eredura bidaltzea izan da joera, baina, horrela, ikasleak euskaratik aldendu egiten dira. Beraz, ikasle horiek bi hizkuntza ofizialetara hurbildu nahi izanez gero, garrantzitsua da harrera-ikastetxean era askotako mekanismo eta bitartekoak garatzea. Baina are garrantzitsuagoa da ikasle etorkin horiek dakarten aberastasun handia eta interesgarria (beren hizkuntza edo hizkuntzak) aintzat hartzea, errespetatzea eta ikastetxeetan lekua izatea (Garay, 2011b).

Manterolak eta Berasategik (2011) adierazten dutenaren arabera, askotan, etorri berrien hizkuntzak gutxituak izaten dira beren herrialdeetan, eta, noski, baita harrera-herrialdeetan ere. Ondorioz, etorkinen jatorrizko hizkuntzen tratamendua oso auzi korapilatsua izanik oro har, halakoetan, areagotu egiten da. Nola kudea genezake egoera berria gaur egungo eskoletan?

Lehenik eta behin, esan beharra dago egiten diren proposamenek errealistak izan behar dutela. Hau da, oso zaila da ikasle etorkinen hizkuntzak bultzatzeko asmoz hizkuntza horiek eskolatze-hizkuntza bihurtzea, nahiz eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan erabilgarriak izan daitezkeen. Bestalde, ezin diegu irakasleei eskatu ikastetxeko hizkuntza etorkin guztiak ikasteko. Baina jakina da, era berean, etxeko hizkuntza sustatzea beste hizkuntzak ikasteko aldagai garrantzitsu bat dela, eta hizkuntzan funtsezko aldagai bat dela motibazioa. Beraz, eskolak ondo asmatu beharra dauka zer egin dezakeen eta zer ez ikasle etorri berrien hizkuntzekin eta kulturekin (Manterola eta Berasategi, 2011: 124).

Proposatzen diren jarduera edo irizpide batzuk deskribatuko ditugu ondoren, baina horrek ez du esan nahi egin daitezkeen jarduera edo ekintza bakarrak direnik. Gai horretan, bereziki interesgarria da ikertzen jarraitzea eta, batez ere, eskola-proposamen berriak diseinatzea, aurrera eramatea eta emaitzak aztertzea.

Lehen proposamena ikasle etorkinen hizkuntzek eskoletan lekua izatea da. Aurretik aipatu dugun bezala, ez da lan erraza, eta irakasleek ezin dituzte hizkuntza guztiak jakin, baina bai ikasleen izenak ondo ahoskatu edo hizkuntza horietako esamolde batzuk ikasi (agurrak, besteak beste).

Ildo beretik, ikasleak aditu bilakatzen dira beren hizkuntzen gainean aritzen garenean; beraz, hizkuntzak ezagutarazi eta elkarbanatu behar dira. Horretarako, badira zenbait esperientzia; haietatik aipagarrienak dira ikasleen gurasoak edo senitartekoak eskolara etortzea eta beren hizkuntzei buruz hitz egitea edo beren kulturako ipuin edo kondairak kontatzea beren hizkuntzan, eta baita jolasen bidez ikasleen hizkuntzak plazaratzea (Villacortak diseinatutako "Glotta: hizkuntzen jolasa", Correaren "Viajes de colores: atendiendo a la diversidad", eta abar).

> Eskolak bete dezakeen oso oinarrizko zeregina da ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzak zein diren ezagutu eta zer ezaugarri dituzten ikustea. Ez bakarrik ezaugarri tipologikoak. Baita ezaugarri demolinguistiko eta soziolinguistikoak ere. Ha da, hizkuntzen komunitateen berri eman liteke, nolako bizi indarra daukan hizkuntzak jatorrizko lurraldean, zein esparrutan erabiltzen den, zeinetan ez, eta abar. Hizkuntzen idazketaren ezaugarri ortografikoak ere elkar banatu litezke ikasgelan, alfabeto kulturalaren bidez. Hizkuntzak munduan kokatzea ere baliagarria izan daiteke, hau da, ikasgelan munduko mapak jarri eta bertan hizkuntzak kokatzea. Noski, informazio hau guztia eskuratzeko eskolak gurasoen parte-hartzea lortzen badu, askoz hobeto. Guraso etorri berriak ikasgelara gonbida litezke, euren jatorrizko hizkuntza-komunitatearen berri eman dezaten, argazkiak edo bestelako baliabide audiobisualak erabilita. Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak Interneten dituen baliabideak oso erabilgarriak izan daiteke hemen: Munduko Hizkuntzen Amarauna-World Languages Network (http:www.amarauna-languages.com) eta Azkue Fundazioarekin elkarlanean ikusgarri dauden Hizkuntza Leihoak (http://www.azkuefundaizoa.org/web/hizkuntza-gutxituak/hasiera). (Manterola eta Berasategi, 2011: 126).

Esperientzia-mundu honetan, zer esanik ez dago eskola inklusiboak eta ikaskomunitateek urrats handiak egin dituztela bide horretan, eskola-komunitatea osatzen duten pertsona guztien ekarpenak biltzen, errespetatzen eta goraipatzen baitituzte.

Bestalde, berebiziko garrantzia du, nahiz eta batzuetan ahaztu egiten zaigun, identifikatzea zer jarrera duten ikasle etorkinek beren hizkuntzekiko, hau da, jakitea nola identifikatzen eta irudikatzen dituzten beren hizkuntzak. Horrekin lotuta, ondo legoke aztertzea emigrazio-esperientziak zer eragin izan duen beren hizkuntzekin duten harremanean. Horrek guztiak ikaslearen nortasunaren garapenean eragiten du, eta, hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala, hizkuntza-nortasunean.

Bukatzeko, esan beharra dugu hezkuntza-sistemako helburu nagusietako bat ikasleek kultura arteko gaitasunak garatzea dela (Aguado, 2003), ez bakarrik ikasle etorkinak dauden ikastetxeetan, baizik eta eskola guztietan.

> Gogoan izan behar da, ikasgeletan kultura-aniztasuna kontuan hartzea, lantzea eta ikuspuntu anitz batetik abiatzea ez dela soilik etorri berriei moldatu eta erraztasunak emateko, bertakoek ere horrek eskaintzen dizkien aberastasun eta alderdi positiboez gozatu ahal izango duelako horrela. Kultura ateko bizikidetzari esker, enpatia, kooperazioa eta ingurukoekin harremanetan sartzeko gaitasunak garatzen joaten direlako, “bertako” eta “hango” kontzeptuekin batera, aurreiritziak ere desagertzen joaten direlako, garapen pertsonalerako beste heziketa mota batek eduki ditzakeen barrera batzuk gainditzeko aukera ematen duelako eta denek batera garatzen dituztelako elkarrekin bizitzeko gaitasun eta abileziak. Gero eta aldakorragoa eta anitzagoa den gizarte honetan bizitzeko ezinbesteko suertatuko zaie. (Alonso, 2015: 6)

3.4. Jarduera didaktikoa: “Euskara eta beste hizkuntzen arteko harremanetarako eta bizikidetzarako hizkuntza-plana”

Jardueraren deskribapena:

Diseinatu herrialde batean euskara eta beste hizkuntzen arteko harremanak bultzatzeko eta hizkuntzen arteko elkarbizitza egokia sustatzeko plan bat.

Lan-sekuentzia:

-Ikusi bideoa, eta erantzun galderak:

El bilingüismo en el mundo

http://www.youtube.com/watch?v=npumvubux00

a. Nola bultzatzen da elebitasuna bi kasuetan?
b. Helburuak eta ondorioak berberak dira?
c. Zergatik sortzen ditu zalantzak elebitasunak?

-Hizkuntzen zenbait alderdi bultzatzeko planak aztertu, eta duzun helbururako planak zer ezaugarri izan behar dituen zehaztu.

-Herrialdeko biztanleen eta beren hizkuntzei buruzko informazioa jaso.

-Planaren diseinua egin.

-Plana idatzi.

Materiala eta gomendioak:

-Irakurri:

Soziolinguistikako eskuliburua

http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf

Euskara, immigrazioa eta hizkuntza-eskubideak

http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/euskara_immigrazioa.pdf

Gomendioa: kontuan izan Fishmanen belaunaldi arteko etenaren eskala edo GIDS (Graded Intergenerational Scale), baita Txepetxek hizkuntza indarberritzeko proposatzen dituen ereduak ere. Horretarako, irakurri liburu hauek.

Fishman, J.A. (1991). Reversing Language Shift. Mutilingual Matters, Clevedon

Sánchez de Carrión, J.M: “Txepetx” (1987). Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas, Estella/Lizarra.

Ebaluazioa:

Idatzi duzun planak ezaugarri hauek dituen ala ez aztertu, eta, behar izanez gero, hobetu.

	Bai	Ez
Jasotzaileak konbentzitzeko xede argia du testuak.		
Egitura argia du.		
Atalen arteko lotura egokia da.		
Arrazoiak azpimarratzeko egitura sintaktiko egokiak ditu.		
Hiztegi tekniko egokia erabiltzen da.		
Bat dator irakurritako dokumentuetan agertzen den informazio eta irizpideekin.		

15. taula. Hizkuntza-plana ebaluatzeko errubrika.

4. Hizkuntzak eta nortasunaren garapena: euskal identitatea

4.1. Hizkuntzak eta identitatea

Nortasuna edo identitatea definitzea ez da inoiz lan erraza izan. Aspalditik eta gaur egun arte hainbat buruhauste sortu dituen kontzeptua dugu, batez ere hizkuntzarekin lotzen dugunean. Hasteko, hizkuntza-komunitatea zer den zehaztu behar dugu. Berrutok (1998) adierazten du hizkuntza-komunitatearen definizioak, oro har, hiru ezaugarri nagusiren arabera zehazten direla. Ezaugarriok hauek dira: hizkuntza, oinarri soziogeografikoa eta arau soziolinguistikoak.

Lehenengo bideari jarraitzen dioten adituen artean, Bloomfield (1933) eta Mackey (1972) ditugu. Haien arabera, hizkuntza-komunitatea hizkuntzaren bitartez harremanak dituen taldea da (Estornés, 2010).

Aldiz, ikuspegi soziogeografikoan oinarritzen direnen arabera, entitate geografiko-politiko batean hizkuntza bera duten pertsonek osatzen dute hizkuntza-komunitatea (Estornés, 2010), hau da, eremu geografiko berbera dutenek.

Hirugarren ezaugarria oinarritzat hartzen dutenentzat (Labov (1972), adibidez), hizkuntza erabiltzeko arau linguistikoak partekatzen dituzten pertsonek osatzen dute hizkuntza-komunitatea.

Hala ere, ikuspuntu orokor horietatik kanpo gelditzen diren definizioak ere topa daitezke; Gumperzena (1971), adibidez. Aditu horrek interakzioaren garrantzia jartzen du hizkuntza-komunitateen definizioen oinarri gisa.

Hizkuntza-komunitatearen definizioarekin lotura hertsia duen atal honetako oinarrizko kontzeptua hizkuntza-nortasuna da. UZEIren arabera, eta, Boudieuk 1982an esandakoari jarraituz, hizkuntza-nortasuna zera da: pertsona edo giza talde baten identitatearen eta hizkuntza baten artean dagoen lotura. Pertsona edo giza talde bakoitzak hizkuntza jakin batekin edo gehiagorekin lotzen du bere identitatea (Estornés, 2010). Beraz, hizkuntza-nortasuna ulertzeko eta definitzeko, ezinbestekoa da nortasun kontzeptua argitzea.

Nola eraikitzen dugu nortasuna? Eta nortasun bakarra ala nortasun bat baino gehiago ditugu? Horiek dira nortasunaren gainean aritzean burura datozkigun galderak.

Giddesenen (1995) arabera, nortasuna hau da:

> La identidad es el resultado de un proceso micro como macrosocial, en el que existe una relación dialéctica entre ambos niveles, y en el que la identidad del YO es la manera en que nosotros mismos nos percibimos de una manera refleja en función de nuestra biografía. (Giddesen, 1995: 294)

Giddesen bideari jarraitu diote beste hainbat adituk ere; haien artean, aipatzekoak dira Brunerrek 2003an eta aditu horren bide beretik 2008an Esteban eta lagunek plazaratutako hitzak:

> Entendemos por identidad la historia de la vida que elaboramos sobre nosotros mismos y que constituye nuestros recuerdos, ideas y creencias alrededor de quienes consideramos que somos". (Esteban, Nadal, Vila eta Rostán, 2008)

Ildo beretik, Esteban eta lagunek are gehiago zehaztu zuten definizioa, 2010. urtean argitaratutako *La construcción narrativa de la identidad en un contexto educativo intercultural* lanean, lerro hauen bitartez:

> La realidad de la identidad de la persona se conforma por su identidad completa que se divide en aspectos unidos a la biografía (definición que un individuo hace sobre sí mismo y lo que le rodea) y la realidad colectiva, social, histórica y cultural (basada en la pertenencia a unidades socioculturales. (Esteban eta lag., 2010: 2)

Ondorioz, Garay eta lagunek zera adierazi zuten 2012an egindako gogoetan: nortasunaren garapena bi atalen batuketan oinarritzen da: esperientzia pertsonala eta gizarteko esperientzia. Baina gaur egungo gizartearen ezaugarri nagusietako bat aniztasuna da, eta horrek eragin zuzena du bakoitzaren nortasunaren eraikuntzan. Hau da:

> Norbanakoaren identitatea bere komunitatea osatzen duten komunitate ezberdinen eraginez sortzen da. Bizi garen gizartean, migrazioek, bidaia ugariek eta [Internet] sareko elkarreragin birtualek eragindako bizimodu anitzak daude. Bizi garen munduan, pertsonen, ideien, sinboloen, irudien eta errepresentazioen jarioa handia da, eta egun, inoiz baino

> gehiago, norbanakoaren eta besteen kulturak kontaktuan eta mugimenduan daude. Horregatik, bada, norberaren biografia pertsonalean komunitate eta talde sozial ezberdinek bat egiten dute identitatea era globalean eraikitzeko. (Garay eta lag., 2012: 74-75)

Hortaz, badirudi bakoitzak, bere nortasuna eraikitzeko, ispilua topatzen duela besteengan eta ez duela identitate bakar bat; identitate askotarikoak ditugu. Esteban eta lagunek (2010) beste termino bat plazaratu dute kontzeptu hori aipatzeko: “nortasun hibridoa”.

Gaur egungo gizartea ere hibridoa da, hau da, ez dago bizimodu bakar bat, ezta mundua ulertzeko era bakar bat ere. Egunero-egunero topatzen ditugu kultura, adin eta hizkuntza ezberdinak elkarrekin bizitzen eta elkarri eragiten. Ondorioz, hiztun eta biztanle edo herritar global garen heinean, ezinbestekoa dugu norberaren kultura arteko komunikazio-gaitasuna garatzea.

Kultura arteko komunikazio-gaitasuna gizarte eta kultura jakin batean jarrera egokiak izateko trebetasun kognitiboen eta afektiboen multzoa da, eta trebetasun horiek gutxieneko komunikazio eraginkorra bideratzea dute helburu nagusi (Vila, 2008). Horregatik, Vilàk adierazi zuen (2008) kultura arteko komunikazio-gaitasunak hiru gaitasun biltzen dituela: gaitasun kognitiboa, gaitasun afektiboa eta portaera- edo jokaera-gaitasuna.

2012an, Garay eta lagunek gaitasun prosodikoa gehitu zioten ikuspuntu horri. Aditu horiek egindako hainbat ikerketaren emaitzen arabera (Garay eta lag., 2011; Garay eta lag., 2011b; Gaminde eta lag., 2011), gaitasun prosodikoa hizkuntza-gaitasunaren parte den konpetentzia bat da, eta afektibitatearen errespetuan garatzeko bidea ematen dio kultura arteko gaitasunari.

5. irudia. Kultura arteko komunikazio-gaitasunaren osagaia (Garay eta lag. 2012, moldatua).

Ikuspuntu berarekin, Rodrigok (1999: 4) urte batzuk arinago azaldu zuen beste kulturak ezagutzea baino gehiago zela kultura arteko komunikazio-gaitasuna. Aditu horren ustez, norberaren kulturaren kontzientzia hartzea ere eskatzen du gaitasun horren garapenak, beste kulturak ezagutzeaz gainera. Beraz, ez da besteekin komunikatzea soilik; besteak ulertzea, gurea ulertzea eta moldatzea ere bada.

Bide hori hartu ohi da hizkuntza-nortasuna zer den definitzeko ere. Hiztun batek bere hizkuntza-gaitasuna definitzeko, beste hiztunekin konparatzen du bere burua, eta, aldi berean, hizkuntzak besteekin komunikatzeko duen tresna garrantzitsuena da hiztunek elkar ulertzeko duten ahalmena. Ildo horretan, Auñamendi Euskal Entziklopediak hitz hauek erabiliz azaltzen du zer den hizkuntza-nortasuna:

> Hizkuntza nortasuna: pertsona edo giza talde baten identitatearen eta hizkuntza baten artean dagoen lotura. Pertsona edo giza talde bakoitzak hizkuntza jakin batekin (edo gehiagorekin) lotzen du bere identitatea.

Beraz, Jolyk (2009) azaltzen duen bezala, Whorfen erlatibismo linguistikoa dugu azaldutakoaren oinarri teorikoa. Whorfek azaldu zuen hipotesiaren arabera, lotura zuzena dago hizkuntzaren eta hiztunaren pentsatzeko moduaren artean; laburbilduz, hizkuntzaren eta kulturaren artean harreman zuzena dago. Beraz, hizkuntza bat jakiteak pentsatzeko modu bat emango luke, mundua ulertzeko eta bizitza interpretatzeko ikuspuntu bat. Are gehiago, erlatibismo linguistikoak dio hizkuntzak determinatzen duela hizkuntza-komunitate baten kosmobisioa eta kultura (Estornés, 2010).

Teoria hori gaitzesten duten adituak ere badaude; haien artean, Chomsky eta Fishman ditugu ezagunenak. Lehenengoak dio hizkuntzek estruktura unibertsalaren zati handi bat partekatzen dutela. Bigarrenak, aldiz, zehaztu zuen kultura eta hizkuntza bateko hiztunen arteko harremanak bi zuzenbide dituela: badago joan-etorria, hizkuntzak eragina baitu hiztunengan, baita hiztunak hizkuntzaren gainean eta garapenean ere.

Azken atala bukatzeko, euskaldun berriek agertzen duten hizkuntza-nortasunaren gaineko gogoeta egin nahiko genuke. Beste hizkuntza batzuetatik euskarara murgildu diren kideak ditugu euskaldun berriak, eta interesgarria suertatzen da jakitea zer hizkuntza-nortasun duten. Hau da, interesgarria da aztertzea nola definitzen duten beren hizkuntza-nortasuna euskararen ikuspuntutik.

Gai horri buruz, ikerketa gutxi kaleratu da oraindik. Baina, daudenen artean, Ortega eta lagunek 2013an argitaratutako “Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: nolako euskalduna naiz?” azpimarratuko dugu. Ikerketa horren ondorioetan, erantzuna eman nahi izan zaio “zer motatako euskal hiztuna naiz ni?” galderari. Artikuluan azaltzen denaren arabera, aipatutako galderak hiru erantzun posible ditu. Erantzunak hauek dira: euskaldun zaharra, euskaldun berria eta euskalduna. Baina, euskara ikasten ari direnen artean, galdera horren erantzunak murriztu egiten dira, eta bi erantzun posible ematen dituzte: euskaldun berria eta euskalduna. Are gehiago zehazten du ikerketak: euskara ikasten ari direnen artean, euskaldun izatea euskaraz hitz egiteko gaitasuna izatea baino gehiago da. Hau da, euskaldun izateko, ez da nahikoa euskaraz hitz egiten jakitea.

Beraz, zer ezaugarri izan behar ditu euskaldunak edo euskararen hizkuntza-nortasuna agertzen duenak? Aipatutako ikerketako inkestatuen arabera, euskalduna edo hizkuntza-nortasunaren jabea euskaraz bizi dena da. Gehiago zehaztuz, euskara etengabe erabiltzen duena bere bizitza sozialean eta familian, eta komunikazio-gaitasun altua duena (batez ere, ahozko trebetasunari dagokionez eta esparru informalean erraztasunez aritzeko gai dena). Eta, hori gutxi balitz, euskalki bat ezagutu eta erabiltzen duena eta horretarako aukera duena da euskalduna edo euskal hizkuntza nortasunaren jabea (Ortega eta lag., 2013).

Beraz, euskalkiek ere badute tokia hiztunaren nortasunaren eta hizkuntza-nortasunaren garapenean, baina lan zaila da euskararen alderdi horrek gizartean zer toki duen eta historian zehar zer toki izan duen zehaztea, bai eta gure egunerokotasunean zein eskolan nola tratatu behar den zehaztea eta horren gaineko erabakiak hartzea ere.

4.2. Euskalkiak gizartean eta eskolan

Ikasgela “mikrokomunitate” bat izanik, hau da, identitate anitzetako pertsonen hiztun-komunitate txikia, egungo errealitatea kontuan hartuta, hizkuntza bat baino gehiago eta eskolako hizkuntzaren bariazioak aurkitzen ditugu. “Mikrokomunitate”etan sortzen diren harremanetarako sare komunikatiboetan, irakasleak ezin ditu baztertu ikasgelako hizkuntzak, ezta ikasgelan irakasten diren hizkuntzaren bariazioak ere. Hizkuntzaren bariazioa aipatzean, hiru mota zehaztu behar dira: bariazio diafasikoa (erregistroa), diastratikoa (maila sozialak, kulturalak, profesionalak eta ekonomikoak, nahiz generoak eta identitateak eragindakoa) eta diatopikoa (geografiak eragindakoa).

Hizkuntzaren bariazioei dagokienez, hizkuntza-baliabideen multzoa osatzen dute, eta hiru azpigaitasunetan eragiten dute batik bat: gaitasun soziokulturalean eta soziolinguistikoan, nahiz hizkuntza-gaitasunean. Nola lortzen da hori, ordea? Maila kognitiboaren eta afektiboaren arteko lotura egiten duen metodologia komunikatiboan oinarritutako baliabideen bidez. Afektiboari dagokionez, hizkuntza eta bariazio guztiekiko jarrera positiboak garatu behar ditu irakasleak; batetik, estatus-ezberdintasunik ez egiteko, eta, bestetik, hizkuntzak estimu handiagoan izateko. Cheshirek 2005ean egin zuen ikerketaren arabera, hizkuntza estandarraren eta ez-estandarraren arteko loturak mesede egiten die ikasle gazteei komunikazio-gaitasunaren garapenean:

> The research indicates, then, that educational programmes that recognise the associations that standard and nonstandard English have for speakers, and that build on these, are more likely to result in children becoming proficient in using standard English than are policies which assume that acquiring the standard language is simply a matter of substituting one variant for another. (2005: 2.349).

Hala ere, ez dakigu errealitatean zer gertatzen den. Zer jarrera du irakasleak bariazioaren aurrean? Alegia, nahiz eta ikasleek eta irakasleak hizkuntza berean hitz egin, ikasgelako elkarreraginean kontuan hartzen al dira, baztertu gabe, barietate geografikoak eta dialektoak, soziolektoak, erregistroa, eta abar, ikasgelako hizkuntza baliabideen multzo gisa? Eta ikasleak baliatzen al dira hizkuntza-bariazioaz? Zer motatakoa eta zer neurritan?

Horren inguruan, zenbait lan egin dira azken urteetan: 2000an, Maiak aldarrikatu zuen "dialektoek (eta bestelako hizkuntz aldaerek) eskolan bere tokia behar dutela"; 2003an, Goikoetxeak honako hau adierazi zuen bere tesian:

> Ondorioen artean, baieztatzen da, atxikitze-eredukoekin euskara batua euskalkiaren —etxetik dakartenaren— arartekotasunez ikastea dela egoki, beraz, etxetik euskalkia —bizkaiera, zuberera...— dakitenentzat atxikitze-eredua dela irakasbide zuzena. (2003: 1)

2005ean, Charityk Afrikako amerikar haurren bariazio dialektalaren inguruko ikerketak argitaratu zituen. Sweetlandek, 2006an, hizkuntza-bariazioaren garapenaz eta eskolan sartzeko beharrizanaz ikertu zuen, baita horrek ikasleen nahiz irakasleen jarreran izan ditzakeen ondorioez ere. Hazenen ikerketen arabera (2008), irakasleak jarrera positiboa baldin badu bariazioaren aurrean, hobeto ikasten da eskolako hizkuntza estandarra, ikasleek oposizio txikiagoa baitute hizkuntza horrekiko:

> One crucial component is to work with teachers to develop materials which reflect a modern, scientific view of language. Understanding of how language works, including its social intricacies, makes the teaching of standard codes less of a social hand grenade, increasing both the efficiency and effectiveness of the teaching. When langauge variation is properly respected, students are less opposed to institutional language and the social connotations of it. (2008: 95)

Gure lurralde honetan, bariazioa termino-aniztasunean ere badago: euskara batua, estandarra, euskalkiak… Kontzeptu ugari aipatu izan dira argitalpenetan urteetan zehar, baina euskara batua kontzeptua Arantzazuko Biltzarretik (1968) aurrera agertzen da. Villasantek hauxe dio (1994):

> `Euskara batua' nik ez dakit zeinek asmatua den. Mitxelenak bere hitzaldian ez du izen hori behin ere aipatzen. Dena den, Arantzazuko Biltzarraren inguruan erabiltzen hasten da eta handik laster arrunta bihurtzen. (647)

Sasoi hartan, euskara batuaren proposamena aurkeztu zuen Arantzazuko Biltzarrean Mitxelenak, lapurtera, gipuzkoarra eta nafarrera kontuan izanik.

El País egunkarian 2005. urtean argitaratutako artikulu batean, Zuazok adierazi zuen euskara batua eta euskalkiak ontzat/txartzat ulertu direla:

> Batzuek euskara batua "euskara ona" dela uste dute eta euskalkiak, berriz, "euskara txarra", eta gauzak ez dira horrela. Euskara batua euskaldun guztiok ulertzeko eta literaturan, eskola liburuetan eta horrelako beste zenbait esparrutan erabiltzeko egin zen. (*El País*, 2005)

Urte batzuk geroago, Gamindek euskara batutik bereizi zuen euskara estandarra:

> Euskara batua abstrakzio bat da. Ez dago, berez, euskara baturik. EUSKARA ESTANDARTZAT jotzen dena da komunikabideetan eta irakaskuntzan erabiltzen dena. Euskara formala, aseptikoa, neutroa. Hori da euskara estandarra. Batua, aldiz, barietate bat beharrean abstrakzio bat da. Eta abstrakzio horretatik hurbilago edo urrunago egon zaitezke. (*Zuzeu*, 2012)

Kontzeptuak kontzeptu, euskarak ere badu hiru motatako bariazioa: diastratikoa, maila sozialak, kulturalak, profesionalak, ekonomikoak, eta generoak eta identitateak eraginda; diatopikoa, geografiak sorrarazita; eta, azkenik, diafasikoa, erregistroekin zerikusia duena. 2012an, barietateen beharrizanaz hitz egin zuen Gamindek:

> Barietateetan euskalki tradizionalak, berriak… sartzen dira eta horiek beharrezkoak ditugu bizitzeko. Barietate estilistikoak gutako bakoitzak erabiltzen dituenak dira: hots barietate estilistiko sozialak, geografikoak, egoeraren araberakoak… Nahiz eta euskalki bera izan barietate estilistikoak hizkuntzan egiten ditugun moldaketak dira. Amonarekin gaudenetan edo eta lagunekin gaudenetan egiten dugun ezberdintasuna, esaterako. (*Zuzeu*, 2012)

Barietateek, gainera, lotura zuzena dute identitatearekin. Euskarabideak 2011n egindako txosten batek, adibidez, agerian uzten du euskalkiak balio eta prestigio handia duela gazteengan, identitarioa baita; hala ere, adinekoek baino gutxiago erabiltzen dute euskalkia.

Cheshirek (1989) adierazi zuen Erresuma Batuan dialektoekiko jarrera negatiboek lotura zuzena zutela jendearen ezjakintasunarekin. Hau da, berak dio jendeak ingeleseko dialekto ez-estandarrekiko eta azentuekiko dituen jarrera eta aurreiritzien isla dela dialektoekiko gatazka. Blakek eta Cluterrek (2003) egindako lan batean, New Yorkeko eskola-giroa abiapuntu izanik, irakasleek Afrikako hiztunek amerikarren hizkuntzaren inguruan zer jarrera zuten aztertu zuten. Bost eskola publiko aztertu zituzten;

horretarako, kontuan hartu zituzten ikasleen aniztasun etnikoa, eskola-politikak, irakasleen adina, sexua, irakaskuntza-esperientzia, etnia... Ikerketako galderen erantzunak eskolen artean erkatu zituzten, eta ondorio hauetara iritsi ziren: irakasleek dialektoarekiko duten jarrera negatiboak txarrerako eragina du batez ere ikasleen mailan, ikasle afrikar-amerikarren kasuan.

4.3. Euskal nortasunari buruzko gogoeta eskolan

Orain arte atal honetan eta aurrekoetan aztertutakoaren arabera, gaur egungo gure gizartea elebiduna ez ezik eleaniztunaeta kultura-aniztuna da. Beraz, euskaldunen nortasunaren garapena ere bide horretatik doa, zenbait arrazoi direla medio: beste kulturen presentzia gure gizartean; mundu globalizatuak eragiten duen kultura globala; IKTen –batez ere Interneten– garapenak besteekin harremanak izateko zabaltzen dituen bideak, eta abar. Beraz, lan zaila da gure eskoletan euskal identitate bakar bat definitzea edo zehaztea.

Eskolako euskara-munduaren inguruan, errealitate asko topatzen ditugu: etxeko euskaldunak, euskaldun berriak, beste herrialdeetatik etorritako euskaldunak, eta abar. Eta irakasleek horri guztiari aurre egin behar diete. Baina, gure uste xumean, aurre egitea ez da egokiena, hau da, egoera hori aprobetxatu beharra dugu gure ikasleen nortasunaren garapenean laguntzeko. Hala ere, ez da lan erraza irakasleei eta eskola-komunitateari egokitu zaiena; beraz, ezinbestekoa dugu irakasleak eta eskola-komunitatea osatzen duten beste kideak trebatzea. 2000. urtean, Filmorrek eta Snowk irakasle onaren ezaugarriak aipatu zituzten, eta, haien artean, ezinbesteko ezaugarri gisa hartu zuten hizkuntza-bariazioa eta kultura-aniztasuna kontuan hartzea, diskurtso-ereduak kulturak baldintzatuak izanik beharrezkoak baitira ikasleen nortasunaren garapena ulertzeko. Bestalde, Garay, Etxebarria, Gaminde eta Romero Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek (2012), hamabi urte geroago bide beretik jarraituz, esan zuten irakasle izango direnen kultura arteko komunikazio-gaitasunaren garapenean murgiltzea ezinbestekoa dela norberaren eta taldearen nortasuna eraikitzeko.

> Irakasleagaiak trebatu egin behar ditugu, testuinguru jakin batzuetan eta etorkizuneko ikasle mota berriengan eragiteko konpetenteak izan daitezen prestatu behar ditugu. Lan egingo duten testuinguru kulturalarekiko sentikortasuna agertu behar

dute. Irakaslea malgua izan beharko da horregatik, bere baliabide pertsonalak errekurtso eraginkor bilakatzeko, egoera aldakorretan murgiltzeko, eta gizarte aldakor honetan erabakiak hartzeko. (Garay eta lag., 2012: 78)

4.4. Jarduera didaktikoa: "Euskalkiak, aurreiritziak eta hizkuntza-nortasuna gaur egungo hiztunengan"

Jardueraren deskribapena:

-Idatzi ikerketa-artikulu bat zure inguruko jendearen euskalkiekiko jarrera nolakoa den deskribatuz.

Lan-sekuentzia:

-Elkarrizketa ikusi, eta erantzun galdera hauek:

Itziar Idiazabal EHUko irakasleari eta UNESCO Etxearen kideari elkarrizketa

http://www.hamaikabilbo.tv/tb/bideo/2771

- 1996. urtera arte ez zen hizkuntzen inguruko proiekturik sortu Unescon. Zergatik esan zituen erakundeak hain gauza gutxi hizkuntzei buruz ordura arte?
- Hizkuntza gutxituei buruzko aurreiritzi asko dago: atzerakoiak direla, ez dutela balio aurrera egiteko... Oso sakon errotua eta aurrekoak baino arriskutsuago den aurreiritzi bat aipatzen du Idiazabalek. Zein da? Zergatik iruditzen zaio hain arriskutsua?

-Hizkuntza-aurreiritziei buruzko informazio teorikoa bildu eta aztertu.

-Blake eta Cluterren inkesta moldatua (2003) erabili jende multzo baten erantzunak jasotzeko.

-Erantzunak Excel edota SPSS programetara pasatu, eta proba estatistiko bat hautatu eta aplikatu.

-Emaitzak atera. eta ikaskideei aurkeztu.

-Artikulu zientifiko bat idatzi.

Materiala eta gomendioak:

-Blake eta Cluterren inkesta moldatua (2003)

	BAI/EZ
1- Hezkuntza bidialektala hizkuntza edo euskalki ofizialean hitz egiten ez duten haur guztien eskubidea da.	
2- Euskalkiak euskara zatarra baino ez dira.	
3- Euskalkiak erabiltzen dituzten haurrek eskola-errendimendua hobetuko lukete euskalkirik erabiliko ez balute.	
4- Ikasgaietan euskalkiak irakastresna gisa erabiltzea kaltegarria da, euskara estandarra ikastea eragozten baitu.	
5- Hobe da euskalkiak ikasgelatik kanpo erabiltzea.	
6- Hezkuntzaren ikuspegitik, ikasleen ama-hizkuntza erabiltzea egokia eta zentzuzkoa da, komunitate bateko hizkuntza estandarra irakasteko baliabide moduan.	
7- Euskalkiak desegokiak dira Matematika, Gizarte Zientziak eta halako ikasgaiak irakasteko.	
8- Euskalkiak erabiltzen dituzten ikasleek euskara bigarren hizkuntza gisa ikasten ari direnen antzeko hizkuntza-arazoak dituzte.	
9- Euskalkiak erabiltzen dituzten ikasleek eta euskara bigarren hizkuntza gisa ikasten ari diren ikasleek elkarrekin egon beharko lukete ikasgelan.	

10- Ikasgelan, egoera formaletan besterik ez da erabili behar euskararen aldaera estandarra (irakaslearekin mintzatzeko, ariketak egiteko).	
11- Euskara estandarrak prestigio handiagoa dauka euskalkiek baino.	
12- Euskara estandarra eskolako aldaera da, eta ez kalekoa.	
13- Ikasgelan, euskalkiak erakutsi behar dira.	

16. taula. Blake eta Cluterren inkesta moldatua (2003).

-Artikulu zientifikoaren ezaugarriak Wikipediak azaltzen ditu. Jarraitu lotura honi:

https://es.wikipedia.org/wiki/Art%C3%ADculo_cient%C3%ADfico

Gomendioa: bibliografia aipatzeko, APA arauak betetzen dira lan zientifikoetan. Hona hemen 6. edizioko APA arauak.

http://www.suagm.edu/umet/biblioteca/pdf/GuiaRevMarzo2012APA6taEd.pdf

Ebaluazioa:

	Gutxi	Nahiko	Ondo	Oso ondo
Artikulu zientifikoaren egitura mantentzen du.				
Originala da.				
Proposatutako ikerketarako galdera edo hipotesia bat dator marko teorikoan azaltzen diren ideiekin edo kontzeptuekin.				

Emaitzak era argian eta ulergarrian azaltzen dira.				
Emaitzen eta datuen interpretazioa egiten da.				
Hiztegi zientifiko estandarra erabiltzen da.				
Euskara zuzena erabiltzen da.				
Bibliografia atala eta aipu bibliografikoak APA arauei jarraituz aurkezten dira.				

17. taula. Artikulu zientifikoak ebaluatzeko errubrika.

5. Bibliografia

AGUADO, T. (2003). Pedagogía intercultural. Madrid: McGrawHill.

ALONSO, A. (2015). “Denon hizkuntzak zubi lanetarako”: eskoletan hizkuntza guztiek lekua izan dezaten sortutako gunea. Argitaratu gabeko Master Amaierako Lana, UPV-EHU.

ALTUNA, O. (2007). Euskal Herriko kale erabileraren neurketa. Ikerketaren nondik norakoak. Bat Soziolinguistika Aldizkaria, 64, 21-31.

AMONARRIZ, K. (2007), 2006ko kale-erabileraren neurketa: aurreikuspenak eta emaitzak. Bat Soziolinguistika Aldizkaria, 63, 33-46.

AMORRORTU, E.; BARREÑA, A.; IDIAZABAL, I.; IZAGIRRE, E.; ORTEGA, P.; URANGA, B. (2004). Munduko hizkuntzei buruzko txostenaren laburpena. Bilbo: UNESCO ETXEA.

AMORRORTU, E.; ORTEGA, A.; IDIAZABAL, I.; eta BARREÑA, A. (2009). Erdaldunen Euskararekiko Aurreiritziak eta Jarrerak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ARAMENDI, S. (2015). Hizkuntza aurreiritziak gainditzeko proiektua. Argitaratu gabeko Master Amaierako Lana, UPV-EHU.

AREJITA, A.; MANTEROLA, A.; OAR-ARTETA, S. (2007). Euskararen Geografia Historikoa. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

AZURMENDI, J. (2015). “Nazioa objektiboki deskriba daitekeen zerbait da edo ezer ez”, Deia, urtarrilaren 16, http://m.deia.net/2015/01/16/ortzadar/nazioa-objektiboki-deskriba-daitekeen-zerbait-da-edo-ezer-ez-da.

BARQUIN, A. eta RUIZ BIKANDI, U. (2007). Hizkuntzen kudeaketa eskolan. Aierdi, X. eta Uranga, B. (ed.), Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak. Lan Jardunaldiaren inguruko gogoetak, 43-48 http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/euskara_immigrazioa.pdf -en, 2015-09-20.

BERRUTO, G. (1998). Fondamenti di sociaolinguistica. Roma: Laterza.

BESALÚ, X. eta VILA, I. (2007). La buena educación. Libertad e igualdad en la escuela del siglo XX. Madrid: Catarata.

BLAKE, R. eta CUTLER, C.(2003): African American vernacular English and variation in teachers´ attitudes: A question of school philosophy?. Linguistics and Education, 14(2), 163-194.

CHESHIRE, J. (2005): Sociolinguistic and mother-tongue education. En Ammon, U., Dittmar, N., Mattheier, K. And Trudgill, P. (editors), Sociolinguistic: An Introductory Handbook of the Science of Language and Society (second edition). Berlin: Mouton de Gruyter, 2341-2350.

CORREA, N. (2014). Viajes de colores: atendiendo a la diversidad. Gradu Amaierako Lana, UPV-EHU, https://addi.ehu.es/handle/10810/14092, 2015-08-4.

CRYSTAL, D. (2005). La revolución del lenguaje. Madrid: Alianza Ensayo.

ELORTZA, M. (2015). Zuzenbidea ikasten. Irakaskuntzarako aldizkaria, 4, http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Zuzenbide.

ERRIONDO, L. (1993). Afasiko elebidunen hizkuntza trebetasunen azterketa. Doktore tesia, Donostia: UEU.

ESTEBAN, M.; NADA, J.M. eta VILA, I. (2010). La construcción narrativa de la identidad en un contexto educativo intercultural. Límite. Revista de filosofía y psicología, 5, 77-94.

ESTEBAN, M; NADAL, J.M.; VILA, I. eta ROSTAN, C. (2008). Aspectos ambientales implicados en la construcción de la identidad en una muestra de adolescentes de la Universidad Intercultural de Chiapas, Resma, 9 (1-2), 91-117.

ESTORNÉS, B. (2010). Hizkuntza-komunitatea eta hizkuntza-nortasuna. Auñamendi Eusko Entziklopedia, http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee152150/136237 -en 2015-9-25ean begiratuta.

EUROPAKO KONTSEILUA (2005). Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa. HABE: Eusko Jaurlaritza.

EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA. Kultura aniztasunari buruzko adierazpena, bakearen nazioarteko egunean. http://webcache.googleusercontent.com/search?q=cache:VJ33uiKTDIkJ:www.unescoetxea.org/dokumentuak/UNESCOEtxea_KulturaAnizt_Adierazpena.pdf+&cd=1&hl=es&ct=clnk&gl=es.

FILMOR, L. W. eta SNOW, C.E. (2000). What Teachers Need To Know about Language. http://people.ucsc.edu/~ktellez/wong-fill-snow.html -en, 2015-09-18an begiratuta.

GAMINDE, I. (2012). “Gipuzkoan uste da hortik kanpo, Lea-Artibain kenduta, ez dagoela euskaldunik”, ZuZeu, ekainaren 11, http://zuzeu.com/blogak/modu-bat/tag/euskara-batua/

GAMINDE, I.; ETXEBARRIA, A.; GARAY, U. eta ROMERO, A. (2011). Komunikazio gaitasunetik kultur arteko komunikazio gaitasunera: baliabide didaktikoak. Hizkuntzaz jabetzen, 209-250, Bilbo: Mendebaldeko Euskal Kultur Alkartea.

GARAY, U. ; ETXEBARRIA, A.; GAMINDE, I.; ROMERO, A. eta LARREA, K. (2011b). Emozioak etorkinen hizkuntzetan: estrategia linguistikoak eta euron pertzepzioa. Evaluar la competencia lingüística del alumnado inmigrante, 137-149, Deustuko Unibertsitatea: DeustoDigital.

GARAY, U.; ETXEBARRIA, A.; GAMINDE, I. eta ROMERO, A. (2012). Ondarearen ekarpena kultura arteko komunikazio gaitasunaren bidean. Etxebarria, A.; Garay, U.; Romero, A. eta Gaminde, I (ed.), Ondareaz eta hezkuntzaz. I Jardunaldiak. Leioa: UPV-EHU, 70-79

GARAY, U.; ETXEBARRIA, A.; GAMINDE, I.; LARREA, K. eta ROMERO, A. (2011). Kultura arteko komunikazio gaitasuna: emozioen pertzepzioa hizkuntza etorkinetan. Tantak, 23 (2), 77-95.

GARAY, U. (2011b). Ahozkotasunaren ikaskuntza-irakaskuntza DBHko ikasle etorkinetan. Deskripzioa, esperimentazioa eta emaitzen azterketa. Argitaratu gabeko Doktore tesia, UPV-EHU:

GIDDENS, A. (1995). Modernidad e Identidad del Yo. Barcelona: Península.

GOIKOETXEA, N. (2006). Gaitasun Komunikatiboa eta hizkuntzen arteko elkar eragina EAE-ko hezkuntza eleanitzea. Doktore tesia, UPV-EHU. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/nekane_goikoetxea_TESIS.pdf -en, 2015-09-25

GOROSTIAGA, A. eta BALLUERKA, N. (2000). Elebidunen garapen kognitibo eta neurosikologikoaren inguruko ikerkuntza XX. mendean zehar: berrikuspen teoriko-metodologikoa, UZTARO, 35, 89-130.

GUMPERZ, J. (1971). Language in social groups. Stanford: Starford University Press.

HERNÁEZ, I.; NAVAS, E.; ODRIOZOLA, I.; SARASOLA, K.; DIAZ DE ILARRAZA, A.; LETURIA, I.; DIAZ DE LEZANA, A.; OIHARTZABAL, B.; SALABERRIA, J. (2012). Euskara aro digitalean. Berlin: Springer.

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BEHATOKIA. Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala. http://www.behatokia.org/

IDIAZABAL, I. (2001). Euskal irakasteredu elebidunak etorkizunari begira. In Sabino Arana Kultur Elkargoa, Euskara Milurteko Berrian.

IKUPEGI (2015). Biztanleria atzerritara EAEn 2015. http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/panoramicas/eus/panoramica57eusOK.pdf -en, 2015-09-1.

IRAZUSTA, J. (2010). Euskara sustatzeko politika UPV/EHUn: plan gidaria. Bat Soziolinguistika aldizkaria 75, 73-82.

IRIONDO, X. (1997). Hizkuntz eskubideen deklarazio unibertsala: Sorrera, eduki juridikoa eta etorkizuna. Eleria. 1, 1997, 43-50.

IZTUETA, P. (2006). “Euskarazko irakaskuntzaren erronkak egun”, *Uztaro* 58: 89-102.

JIMENEZ, M.A. eta RICO-MARTÍN.A. (2012). Bilingüísmo y segundas lenguas. En Alemany, I.; Jiménez, M.A.; Sánchez, S. (coords.) Formación del profesorado para la diversidad cultural. Madrid: Editorial La Muralla.

JOLY, L. (2009). Erlatibismo linguistikoa: hizkuntza eta kosmobisioa. Jakin, 173, 124-131.

KULTURA SAILA. HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA. (2009). Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzei hitza ematea. https://www.coe.int/t/dg4/.../Brochure_baq.pdf

LARRABE, A. (2015). “Azurmendi: Euskal nazio tradizionala desegina dago, eta ez gure errurik gabe”, Berrian, ekainaren 26,

http://www.berria.eus/paperekoa/1878/003/001/2015-06-26/azurmendieuskal_nazio_tradizionala_desegina_dago_eta_ez_gure_errurik_gabe.htm

LAVOB, W. (1972). Sociolinguistic patterns. Philadelphia: University of Pennsylvania.

MANTEROLA, I. ETA BERASATEGI, N. (2011). Hizkuntza gutxituen erronkak. UEU: 2011.

MARTÍ, F. (2006). Palabras y mundos: informe sobre las lenguas del mundo, Barcelona: Icaria editorial S.A.

MORENO CABRERA, J.C. (2008). El nacionalismo lingüístico: una ideología destructiva. Barcelona: Ediciones Península.

NUÑEZ ASTRAIN, L. (2003). El euskera arcaico: extensión y parentescos. Tafalla: Txalaparta.

OSA, E. (2003). Ikastola eta eskoletan euskararen erabilera indartzeaz gogoeta. Bat Soziolinguistika Aldizkaria, 49, 129-146.

PUJOLAR I COS, J.; GONZÁLEZ, I.; FONT, A.; MARTÍNEZ, R. (2010). Llengua i joves. Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana, Generalitat de Catalunya.

REVENGA, M. (2005). Notas sobre oficialidad lingüística y cultura constitucional. Revista de Llengua i Dret, 43, 129-143.

RETORTILLO, A.; OVEJERO, A.; CRUZ, F.; LUCAS, S. eta ARIAS, S. (2008). Inmigración y modelos de integración: entre la asimilación y el multiculturalismo. Revista universitaria de ciencias del trabajas. Valladolid: Universidad de Valladolid.

RODRIGO, M. (1999). La comunicación intercultural. Barcelona: Anthropos

RUIZ VIEYTEZ, E. (2009). Hizkuntza aniztasuna kudeatzeko ideiak. Aierdi, X. eta Uranga, B. (ed.), Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak. Lan Jardunaldiaren inguruko gogoetak, 31-35 http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/euskara_immigrazioa.pdf -en, 2015-09-20.

TEBAR, P. (2005). Inmigración y aprendizaje de la lengua. De la educación bilingüe a la plurilingüe. Organización y gestión educativa: Revista del forum de administradores de Educación OGE, 13 (4), 22-24.

TRUJILLO, F. (2008). Plurilingüísmo en el aula: las lenguas de los estudiantes. Ballano, I (ed.), I. Jornadas sobre Lenguas, Currículo y Alunmado Inmigrante, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 61-70.

TUSÓN, J. (1996). Los prejuicios lingüísticos. Barcelona: Octaedro.

URANGA, B. ; AIERDI, X; IDIAZABAL, I.; AMORRORTU, E.; BARREÑA, A. eta ORTEGA, A. (2008). Hizkuntzak eta inmigrazioa. Bilbo: UNESCO etxea eta Ikuspegi.

VILA, I. (2004). ¿Nivel sociocultural o desconocimiento de la lengua. Una explicación de algunas de las relaciones entre escuela e inmigración. Perspectivas Cep. Revista de centros del profesorado de Andaluacia, 8, 23-54.

VILLACORTA, D. (2013). Glotta: hizkuntzen jolasa. Argitaratu gabeko Gradu Amaierako Lana, UPV-EHU.

VILLASANTE, L. (1994). Euskara batuaren filosofiaz. Euskera, XXXIX, *Euskera 2. Aldia*, 647-673, Bilbo: Euskaltzaindia.

YTSMA, J. (2001). Towars a typology of trilingual primari education. International Journal of Bilingual Education and Bilingualism, 4, 11-22.

ZABALETA, E. (2011). La politique publique en faveur de la langue basque en France: entre verrou juridique et promotion de la diversité linguistique. G. Agresti & C. Schiavone, Plurilinguisme et monde du travail, Actes des Cinquièmes Journées des Droits Linguistiques (Teramo-Giulianova-Civitanova Marche, 19-21 mai 2011), 115-138.

___, (2014a). Les contradictions du pluralisme linguistique en France. M. Doucet, *Le pluralisme linguistique : aménagement de la coexistence des langues.* Montreal: Yvon Blais.

___, (2014b). “Euskararen egoera Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan: dignosia eta gako soziolinguistiko eta juridikoak. Eskuizkribua.

ZALBIDE, M. (19989. Normalización lingüística y escolaridad: un informe desde la sala de máquinas. *RIEV*, 43-2, 355-424.

___, (2010). Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa. Bilbo: Euskaltzaindia.

ZAPATA, M. (2007). Euskara, inmigrazioa eta hizkuntza-eskubideak. Aierdi, X. eta Uranga, B. (ed.), Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak. Lan Jardunaldiaren inguruko gogoetak, 49-54 http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/euskara_immigrazioa.pdf -en, 2015-09-20.

ZARRAGA, A. COYOS, J-B.; HERNÁNDEZ, J.; JOLY, L.; LARREA, I.; MARTÍNEZ, L.; URANGA, B.; BILBAO, P. (2010). Soziolinguistika Eskuliburua. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ZENDOIA, J.M. (2000). Hizkuntza gutxituak eta ekonomia: euskararen kasua. Doktore tesia, UEU.

ZUAZO, K. (2005). "XVI. mendean agertu zen euskararen batasuna sortzeko kezka", El País, abenduaren 26, http://elpais.com/m/diario/2005/12/26/paisvasco/1135629607_850215.html

Lanean agertzen diren web-orrien zerrenda:

http://www.kuadrillategi.com/

www.mintzapraktika.org

http://www.domeinuak.eus/eu/domeinua/

http://www.badubada.com/eu/erakusketa/euskera_munduan_hizkuntzak_estatuak.php)

https://www.ethnologue.com/

http://www.euskarabidea.es/

http://www.argia.eus/multimedia/erreportajeak/euskararen-misterioaç